



COVID-A GAINETIK KENDU EZINDA

Aitor Arana aramaioarrak lau urte daroatza COVIDaren eraginak gainditu ezinda. Proba asko egin eta medikamentu asko probatu ondoren, "gero eta txarrago" dagoela dio; gaur da COVID Iraunkorraren Nazioarteko Eguna / 7



Aitor Arana, eguaztenean Arrasaten, Long Covid Euskal Herria elkartearen kamiseta soinean duela. XABIER URZELAI

Banketxeetako 21 bulego itxi dituzte azken 16 urteetan; gehienak, Arrasaten eta Bergaran / 2

Landaola saria jaso du Bergarako Udalak, Oxirondo azokan irekiko den Elikaenea gunegatik / 4

Atzo abiatu zen Korrika, Irundik, eta datorren eguaztenean eta zapatuan pasako da Debagoienetik

55 kilometrotan eskualdeko 140 eragilek eroango dute lekukoa; Goienak zuzenean emango du Korrika, eta azpimarra jarriko du ibarreko tartean / 17



Peru Abarrategi, Paula Amilburu eta Manex Agirre eguaztenean Aramaion. X.U.

Aramaioko hiru bertsolari ariko dira zapatuan Arabako txapelaren bila / 42

SINADURAK

	MAMADOU SARR DIAME / 34
	RUFINA OLASAGASTI ZUBELDIA / 6
	HIDE DOHINO / 38
	DJAMILA ZEREIBY / 9
	AINZANE OIARBIDE / 48



Kirolean nabarmentzea jada ez da nahikoa

Arturo Apraiz geologoari elkarrizketa

2MÓ
229€
erreflexuen aurkako
betaurreko progresiboak

Kontsultatu optikan karpainaren ezaguerriak.



MULTIÓPTICAS

943 79 29 95
Otalora Lizentziaduna, 18
ARRASATE



eskatu hitzordua



943 76 15 75
Ibargarai, 16
BERGARA

www.multiópticas.com



Banketxeetako 21 bulego itxi dituzte 16 urtean

2008tik gaurdaino, Arrasaten eta Bergaran itxi dituzte bulego gehien bailaran; zenbait herritan, zerbitzua murriztu dute

Idoia Aranbarri Arzuaga DEBAGOIENA Banketxe eta bulego gutxiago daude urtez urte Hego Euskal Herrian, eta Debagoiengan ere joera berbera da. 2008tik hona, ibarreko herri gehientsuenetan itxi dituzte banketxeek egoitzak.

Spainiak Bankuak emandako datuen arabera, Debagoiengan 57 bulego zeuden 2008an. 2015ean, aldiz, banketxeek 49 egoitza zituzten bailarako herrietan, 2008an baino zortzi gutxiago. 2019an, ordea, 41 bulego zeuden zabalik, eta, gaur-gaurkoz, 2024an 36 bulego daude, duela 16 urte baino 21 gutxiago. 2008tik 2024rako epealdi hori kontuan hartuta, %36,83 jaitsi da banketxeetako bulegoen kopurua eskualdean.

Azterketa herrika


Arrasaten eta Bergaran itxi dituzte bulego gehien. Arrasaten eta Bergaran 19 eta 15 bulego zeuden 2008an, hurrenez hurren; egun, bederatzina daude. Eskoriatzan lautik bira jaitsi dira; Aretxabaletan, bostetik laura; eta Oñatin, bederatzitik zortzira. Antzuolan eta Aramaion, bulegoa ez itxi arren, murrizketak egiteko erabakia hartu dute; Elgetan, aldiz, bulegoa kendu baina kutzazaina utzi zuten

2020an. Leintz Gatzagan, berriz, bulegorik ez, baina 2005ean kutzazain bat jarri zuten.

Banketxeek bailarako herrietan duten ordezkariaren errepertuz gero, Bergara da entitate gehien dituen herria; denera, bederatzia daude.

Bulego kopuruaren bilakaera

ITURRIA: DATU HISTORIKOAK: ESPAINIAKO BANKUA / 2024: GOIENA



Banketxeen bulego kopurua entitatearen arabera

	Laboral Kutxa	Kutxabank	Rural Kutxa	Santander	Caixabank	BBVA	Sabadell Gupuzcoano	Bankoa Abanca	Bankinter	
Antzuola	1	1	0	0	0	0	0	0	0	2
Aramaio	1	1	0	0	0	0	0	0	0	2
Aretxabaleta	1	1	0	0	1	1	0	0	0	4
Arrasate	3	1	1	1	1	1	1	0	0	9
Bergara	1	1	1	1	1	1	1	1	1	9
Elgeta	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Eskoriatza	1	1	0	0	0	0	0	0	0	2
Gatzaga	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Oñati	2	1	1	1	1	1	1	0	0	8
	10	7	3	3	4	4	3	1	1	36

Goienagusik urteko batzar orokorra egin du Kulturaten

Kuotak jaiste onartu eta lehendakari berria –Arantza Gardoki– aukeratu du

I.A.A. ARRASATE

Goienagusi elkarteak urteko batzar orokorra egin zuen astelehenean Kulturateko areto nagusian. Batzarrean, besteak beste, onartu zituzten aktak, iazko jardun ekonomikoa nahiz elkartearen kudeaketa azaldu zituzten eta 2024ko aurrekontuaren berri eman zuten.

Ikasturte berriko aurrekontuak gora egingo du iazkoarekin alderatuta, udaletatik jasotako dirulaguntza handitu egin baita, eta Caixabank Fundazioak 5.000 euro eta Kutxa Fundazioak 10.000 euro eman baitizkiote. Horrek bazkideen kuota 80 eurotik 40 eurora "jaisteko" bide emango diela nahiz irteeretako autobusak eta ekitaldi bereziak finantzaketa horretatik bideratuko dituztela azaldu zuen Jesus Mari Ugarte elkarteko lehendakariak.

Maiatzetik aurrera zuzendaritza batzordeko kide izango direnak onartu zituzten. Arantza Gardoki izango da lehendakaria, eta lehendakariordea, berriz, Bego Lejardi. Batzordekideak izango dira Marian Perurena, Miren Eraña, Itziar Arrue eta Mikel Tatiegi. Esti Mendarozketa izango da diruzain berria eta idazkaritzan jarraituko du Mikel Goenagak.

bertako
igogailuak | ascensores

KORRIKAN ERE

**EUSKARA,
GURE HELBURU
PARTEKATUA**

943 903 450 bertoko.eus



Epeleko zabortegia, artxiboko irudi batean. IMANOL BELOKI

Epele ixteko proposamena egingo du Mankomunitateak

Baldintza geoteknikoak betetzen ez dituelako hartu du proposamena egiteko erabakia Mankomunitateak

Julen Murua Mesonero BERGARA

Epeleko zabortegia berriro ere zabaltzea erabaki zenetik bi urte igaro dira, eta Debagoieneko Mankomunitateak zabortegia ixteko proposamena egingo duela jakinarazi du asteon Dorleta Elkorobarrutiak, Mankomunitateko lehendakariak. Horren harira, aste honetan bildu da Mankomunitateko Ingurumen Batzordea, eta Epele ixteko erabaki proposamena egingo dio Debagoieneko Mankomunitateko Juntari. Ordezkarrien bilkura martxoaren 21ean izango da eta orduan hartuko dute behin betiko erabakia.

Erabaki aldaketa

Duela bi urte hartu zuten Eusko Jaurlaritzak eta Debagoieneko Mankomunitateak 2018a ezker ohiko jardunik ez zuten Epeleko zabortegia berriro irekitzeko erabakia. Hain justu, urtebete lehenago, Eusko Jaurlaritzak 2 milioi euroko dirulaguntza onartu zuten Epeleko zabortegia egokitu eta berriro ere zabaltzeko. Orduan, Mankomunitateak adierazi zuen aldebakarrez hartutako erabakia izan zela, baina, geroago, adostasunera heldu ziren bi erakundeak. Bi urteren ostean, berriz, egoera guztiz aldatu da eta Mankomunitateak adierazi du zabortegia berriro ez irekitzeko proposamena egingo duela. Proposamen hori Ingurumen Batzordera eraman eta gero Juntan onartuko balitz, "Epeleko zabortegiaren etorkizuna baldintzatuko duen proze-

dura bat hastea" ekarriko lukeela dio Gorka Artolak, Mankomunitateko Ogasun batzordeburuak. Gainera, Eusko Jaurlaritzak 2021ean emandako "dirulaguntza itzuli" egin behar duela adierazi dio GOIENARI Xabier Igartuak, Mankomunitateko lehendakariordeak. Bestalde, zigilatze lanak egiteko prozedura lanak ere martxan jarriko ditu Debagoieneko Mankomunitateak.

Azterketa geoteknikoak

Epeleko zabortegia ireki aurretik baldintza geotekniko guztiak betetzen zirela eta, beraz, irekiera bidezkoa zela berresten zuten bi azterketa geotekniko egin behar izan zituen Debagoieneko Mankomunitateak 2022an eta 2023an, zabortegiaren egonkortasun egoera zein zen jakiteko. Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuak egin zituen txosten horiek adierazten dute Epeleko zabortegiak ez dituela berriz irekitzeko eta hondakin gehiago jasotzeko baldintza geoteknikoak betetzen, hainbat arrazoi direla medio. Bi azterketetako emaitza kontuan izanik hartu du Debagoieneko Mankomunitateak Epele ixteko proposamena egiteko erabakia.

EPELEK BALDINTZA GEOTEKNIKOAK BETETZEN EZ DITUELA ADIERAZTEN DUTE EGINDAKO TXOSTENEK

Sektore publikoan deitutako grebak eragina izan du

Sindikatuaren esanetan, sektore publikoan aurretik izandako bi egunetan baino handiagoa izan da jarraipena

J.M.M. ARRASATE

ELAk, LABek, CCOOk, Steilas-ek eta ESK-k EAEko sektore publikoan martitzenerako deitutako grebak eragina izan zuten Debagoienean. Eskarien artean zeuden lantaldea handitzea, lan kargak

arintzea, osasun zerbitzu egokiak bermatzea eta KPIn %10eko igotzea. Eusko Jaurlaritzak ezeztatu egin zuen zerbitzu publikoak pribatizatzen ari direla edota langile publikoen lan baldintzek okerrera egin dutela.

Arrasateko, Bergarako, Oñatiko, Elgetako eta Leintz Gatzagako udal zerbitzuetako zenbait langilek bat egin zuten grebarekin. Udal zerbitzu batzuetan zerbitzu minimoak izan ziren, beste batzuk itxita izan ziren eta beste batzuk, zabalik. Beste udaletan ez zuten lanuzteekin bat egin. Eskola publikoan grebaren jarraipena %50etik gorakoa izan zen, sindikatuaren esanetan, eta Osakidetza-ko gutxieneko zerbitzuek grebaren jarraipena baldintzatu zutela adierazi zuten sindikatuek.

Martxoaren 16an ta 17an

AGROMOTOR

OUTLET AZOKA

Aukerako ibilgailuak eta 0km-koak

Marka askotakoak

Txingorak kaltetutako

Ibilgailu berregokituak

AGROMOTOR KONTZESIONARIOA
Armentziagana 23
Gasteiz (Araba)

Martxoaren 16an
(10:00etatik 19:30era)

Martxoaren 17an
(10:00etatik 14:00etara)

945 150 812

PREZIO NAZIONAL HOBERENAK!

✓ **ASEGURUA DOAN***

Eta askoz gehiago...

Musika **Pintxoak**

Motor baten zozketa

SARRERA DOAN

*Baldintzak kontsultatu

Landaola saria Oxirondo azokako Elikaeneari

Bergarako Oxirondo azokan kokatuko den Elikaenea gunea saritu dute Landaola sarietan, Erakunde Publikoaren Saria kategorian. Zazpigarren edizioa da aurtengoa, eta, Bergarako Udalarri emandako sariaz gain, beste hiru banatu dituzte hainbat ataletan

Eneko Azkarate Laspiur BERGARA

Honelaxe baloratu du saria epai-mahaiak: "Burujabetza eta bertako produktuak oinarri hartuta, azoka garaikidearen kontzeptuari heldu dio Elikaeneak, baserriaren produktuak lehen lerroan eskuragarri jarriz, ordutegi malguaz, kalitatezko eta konfiantzazko jakiak eskura ipiniz, sentsibilizazio jarduerak antolatuz, zein jantokien horniketa aukerak landuz".

Ia bi urteko barne lanaren ostean, Oxirondo azoka berriua gorpuztuko duen Elikaenea egitasmoa joan den abenduan aurkeztu zuten Bergarako Udalarri eta herriko Elikadura Mahaia osatzen duten hainbat eragilek. Asmoa da udaberriaren zehar irekitzea azoka erabat berriuan.

Sariak landa garapeneko proiektuei aitortza egiteko sortu ziren. Lau ataletan ematen dira: Erakunde Publikoa, Erakunde Pribatua, Landa Eremuko Emakumea eta Ibilbidea. Sariak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesa daukate.

"Esker oneko unea"

Usurbilgo Sutegi aretoan egin zuten atzo sari-banaketa ekitaldia. Ainhoa Lete eta Markel Azkargorta Bergarako Udala



Ainhoa Lete eta Markel Azkargorta, garaikurra jaso berrikan. GOIENA

bernuko kideak izan ziren bertan. Elikaenea moduko proiektu batek "piztutako ilusioa eta interesa" nabarmendu zituzten. "Emozio eta esker oneko momentua da. Oxirondo azoka biziberritzeko herri proiektuak, eta horretarako muina izango den Elikaenea proiektuak, sari hau jasotzeak ilusio berezia egiten digu".

Ainhoa Letek gogoratu du 2021ean egindako "azoken hausnarketa konpartituan" hasi zela egitasmoa. "Garai hartan sortu zen Bergarako Elikadura

Mahaia. Elikadura burujabetzan sakondu eta bertako produktuen ekoizpen zein kontsumoan eragiteko zeregin eta ardurak bere eginda hasi zen lantaldea martxan. Norabide horretan, eta elkarlan publiko-komunitarioa oinarri hartuta, azoka biziberritzeko proiektua lantzen ari da lantaldea ordutik".

Idea horri jarraituz, zera gehituta amaitu du zinegotziak: "Elikaenea proiektua ezinezkoa izango litzateke albaan daukagun eta izan dugun lantalde barik".



Iñigo Ansola -EEE-, Debagoieneko hautagai jeltzaleekin. TXOMIN MADINA

Trantsizio energetikoa eta eredu sozioekonomikoa berbagai EAJk

Ekonomia eta enplegua "sendotuko dituen estrategia" defenditu dute jeltzaleek

Txomin Madina ARRASATE

Eusko Legebiltzarrerako EAJren Debagoieneko hautagaiek trantsizio energetikoa eta eredu sozioekonomikoa izan dituzte hizpide asteen egindako agerraldietan. Batetik, Energiaren Euskal Entitatearen zuzendari Iñigo Ansola alderdikidearekin batera klima aldatzarekin lotutako erronka eta apustuez jardun zuten martitzenean Arrasaten. Otsailean onartutako Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legeak dakartzan helburuak izan zituen hizpide. "Asmo handiko etorkizuneko apustuak egiteko garaia" dela esan zuen, eta horretarako "gaitasuna" behar dela. "EAJk badu erabaki estrategikoak hartzeko gaitasuna", esan zuen. Ansolak azpimarratu zuen energia kontuetan herritarrek erdigunean kokatu behar direla, eta, horren adibide, Leintz bailarako Ekiola energia koope-

ratiba jarri zuen. Agurne Juldain hautagaiak ere, EAJk egindako lanari balioa emateaz gain, norbanakoaren ekintzen garrantzia azpimarratzen zuen.

Udalak eta industria

Bestetik, EAJren eredu sozioekonomikoaren gainean hitz egiteko, Bergarako Larramendi industrialdean batu ziren hautagai jeltzaleek eguaztenean. Maria Eugenia Arriabalagak esan zuen Euskadiko gizarte eredu aurreratua jeltzaleek erakundeetan bultzatutako politikei esker lortu dela, eta EH Bilduren kritikak gaitzetsi zituen. Elena Letek, bestalde, Larramendiko industrialdea jarri zuen jeltzaleen eredu sozioekonomikoaren adibide. Letek esan zuen udaletatik hasi behar dela "politika industrialak egiten; enpresak herrira etortzeko industriarako lurrak eta baldintzak" sortu behar direla azpimarratu zuen.

Isaias Carrasco omendu zuten joan den domekan Arrasaten

Senitartekoak, lagunak eta alderdikideak Navas de Tolosa kalean elkartu ziren, beste behin, hura omentzeko

Iñigo Barrena ARRASATE

Joan den domekan omendu zuten Isaias Carrasco; ETak erail zuela hamasei urte igaro dira. Senitartekoez gain, bertan izan ziren, besteak beste, PSE-EEko idazkari nagusi eta

lehendakarigai Eneko Andueza eta Denis Itxaso -Gobernuaren ordezkaria Euskal Autonomia Erkidegoan-; Mainer Morras alkateak ere parte hartu zuen omenaldian. Bertan, Eneko Anduezak EH Bilduko lehen-

dakarigai Pello Otxandianori erreferentzia zuzena egin zion, hark esan zuelako ETaren terrorismoa "ziklo politiko" bat izan zela, eta Anduezak esan zuen hura ez zela "ziklo politiko" bat izan, baizik eta batzuei "bizitza osoan lagunduko dien lotsa". Arrasateko alkateari eskerrak eman zizkion omenaldian izateagatik, baina egun hartan egoerak eskatzen zuen bezala jokatu ez zutela esan zion, eta gertatutakoa "gaitzes-tea" falta zaiela.



Isaias Carrascori domekan egindako omenaldiaren irudi bat. IMANOL SORIANO



Oscar Bustamante

Fabrikazio Mekanikoko
Produkzioaren Programazioa
Goi Mailako Heziketa Zikloa

Oscar Bustamante naiz, Queretarako (Mexiko), 20 urte ditut, eta 15 urte inguru nituela Legok antolatutako World Robot Olympics lehiaketan parte hartu nuen. Une hartatik garbi izan nuen automatizazioarekin, robotekin eta fabrikazioarekin zerikusia zuten gaiekin lotutako industria munduan trebatu nahi nuela.

CBTisen batxilergo teknologikoa egin nuenean –han programazioko karrera tekniko bat ikasi bainuen–, Mondragon Unibertsitatea ezagutu nuen, unibertsitateak Queretaron egoitza bat baitu. Orduan konturatu nintzen unibertsitatearen atal sendoetako bat ingeniari teknikoak zirela, eta horien artean Mekatronikako karrera; arreta eman eta ikasi nahi nituen alderdiak biltzen zituen karrera, alegia. Unibertsitateari buruz informazio gehiago bilatzen ari nintzela, konturatu nintzen egoitza nagusia Arrasaten zegoela, eta, hango egoitzarekin harremanetan jarri nintzenean, gomendatu zidaten prestakuntza ziklo bat ikasten hastea, ondoren ni bilatzen ari nintzen Ingeniaritza Mekatronikarekin jarraitzeko.

Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa izan zen aukeratu nuen prestakuntza zikloa, fabrikazioa egungo prozesu industrial guztien oinarria baita. Prestakuntza ziklo horretan, fabrikazio kontzeptuez gain –CNC mekanizazioa, galdaketa, estanzazioa, eta abar–, oso gai garrantzitsuak sartzen dira, hala nola kalitatearen kudeaketa eta kontrola, produkzioaren kudeaketa eta sistema automatizatuak.

Formatu dualan ikasteko aukera izan zen Mondragon Goi Eskola Politeknikoa (MGEP) aukeratzeko arrazoi garrantzitsuetako bat; izan ere, MGEPk enpresa nazional zein internazional askorekin du harremana, eta hori unibertsitateko ikasleen artean ere ikus daiteke.

Prestakuntza duala Mondragon Assemblyn egiten ari naiz. Enpresak Aretxabaletan du egoitza nagusia, baina nik Mexikotik ezagutzen nuen enpresa hori, Queretaron egoitza bat baitu. Atentzioa ematen zidan lan egiteko zuen moduak eta haren antolaketa, eta jakin-min handia sentitzen nuen giro horretan murgiltzeko. Behin hemen egonda, konturatu naiz antolatzeko modua munduko enpresa tradizionalen aldean desberdina dela, enpresa kooperatiboa baita, eta, beraz, egituraren eta lanaren antolamenduak oso desberdinak dira, eta ikusten dut langile guztiak enpresako lantaldeetan asko parte hartzen dutela helburu bera lortzeko.

Nire esperientzian oinarrituta, eta inguruan ditudan lankideek esan didatenez, garbi daukat prestakuntza duala gomendatuko nukeela, aukera ematen baituzu urte

“Txikitatik argi nuen gauza teknikoak ikasi nahi nituela, eta MGEPko goi mailako prestakuntza ziklo bat egiten hasi naiz, MUko gradu bat egiten jarraitzeko”.

oso batean enpresa baten funtzionamendua oso ondo ezagutzeko, lankideekin harreman estua izateko, eta MGEPko prestakuntza oso ondo osatzen duelako; gainera, enpresaren beste gauza tekniko zehatz batzuk ikasteko edo, besterik gabe, ezagutza berriak eskuratzeko aukera duzu. Prestakuntza dualaren hasieran mekanizazio sailean ari nintzen, eta, beraz, mekanizazio lanak egiten aritu nintzen, eta, horri esker, Mondragon Assemblyn fabrikatzen diren pieza motak ondo ezagutzeko aukera izan nuen. Orain, berriz, ekipo automatikoak muntatzeko eta puntu jarrezko bukaerako lanak egiteko taldean nagoenez, esan dezaket nire prestakuntzari ekarpen handia egiten dioten jarduerak direla.

MGEPko prestakuntza zatiari dagokionez, atentzioa eman zidan ikasturteko bigarren astetik aurrera tailerretan gauza praktikoak egiten ari ginela, eta hori garrantzi handikoa da, eta ikasketetan asko estimatzen dut. Erronkak dira nabarmentzeko moduko beste gauza bat. Erronka horiek taldeko proiektu batzuk dira, eta praktikan jartzen dira irakasgai batzuetan landu diren kontzeptu teorikoak; garrantzitsua da erronkek egungo mundu industrialarekin eta enprekin duten harremana. Adibidez, lehen ikasturteko erronka batean enpresa baten produktu bat landu genuen, bertan aurkezpen bat egin genuen, eta bisitarekin amaitu genuen, produktu hura benetan nola fabrikatzen zen ikusita.

Niretat balio handia duen beste puntu bat da enpresetara egin ditugun bisitak. Bigarren ikasturtean egin dugun azken bisita, ikasgelan aztertu ditugunekoizpenaren programazioaren kontzeptuak argi eta garbi aplikatuta ikusi ahal izan ditugu.

Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioaren zikloa amaitzen ari naiz dagoeneko, eta ikasturteko nire aurreikuspenak gainditu dira. Hasieran espero nuena erabat bete da: ikasketa oso dinamikoak eta praktikoak, enpresa batean egonaldi duala, klasean oso giro ona, bai ikaskideekin, bai irakasleekin, eta ondo homitutako tailerrak eta laborategiak eta abar.

Datorren ikasturtean Mekatronikako Ingeniaritzako graduarekin jarraituko dut, eta horretarako oinarri tekniko ona dudala esan dezaket; gainera, goi mailako prestakuntza zikloko ikasketa horiek graduko ikasturte oso bat baliozkotzen dute; beraz, hiru ikasturtean egin ahal izango dut.

Eman izena!

MGEP: 664 298 683 // 664 298 704



ATE IREKIAK: Martxoak 23, 11:00
Maiatzak 4, 11:00



ZABALIK

RUFINA OLASAGASTI ZUBELDIA

Euskaraz lan egin

Laneko hizkuntza izan da urtarrilean Eusko Jaurlaritzak antolatuta egindako Languages Lanean Kongresuko gaia, eta eman du zer ikasia. Hemen eta kanpoan tokiko hizkuntzen erabilera eredu garri diren enpresen esperientziak ezagutzera kongresuko helburua.

Mondragon taldeko presidente Leire Mugerzak egindako hitzaldian adierazi zuen elkarrekin hazi direla kooperatibak eta euskara. Adibide gisara esan zuen euskaraz egiten direla Mondragon taldeko organo goren bilerak: urteko Kongresua, Batzorde Iraunkorra eta Zuzendaritza. Kooperatiba batzuetatik beste aldea egon arren, Emun kooperatibako Olaso eta Legorburu teknikariek *Berria*-n egindako elkarrizketa batean zioten gaur egun Fagorrek ez duela euskaraz funtzionatzen eta asko falta dela horretarako, nahiz eta aurrerapen handiak egiten ari diren.

Atentzioa eman dit Itziar Nogerasek Kongresu horri buruz *Berria*-ko artikulua batean zioena; alegia, irmo ari diren herrialdeetan, Islandian, kasurako, gobernu egitasmoen erdian dagoela ingelesaren eraginetik islandiera babestea eta garatzea, maila guztiak hartzen dituen Hizkuntza Politika zorrotza

betearazita. Interneten dago, *Languages lanean* estekan sartuta, Johanna Vigdis-en hitzaldia.

ORAIN ARTEKO ESPERIENTZIA ARRAKASTATSUAK ISOLATUTA GERA DAITEZKE


Kongresu horretako mahai inguru batean parte hartu zuen euskaraz funtzionatzen duen Antzuolako Elay enpresak. 1992an, kolektiboak

eta jabetzak, asanblada bidez, erabaki zuten funtzionamendua euskaldundu behar zutela, eta gaur egun euskaraz funtzionatzen dute, ez ele bitan. Euskadi Irratian egindako elkarrizketan, Kristina Elkoro kontseilari delegatuak zioen arrotz samar sentitzen direla enpresa foroetan, nahiz eta euskara planak martxan izan enpresa askotan inportantzia eskasa ematen zaiolako euskarari.

Orain arteko esperientzia arrakastatsuek isolatuta geratzeko arriskua dute, atxikimendu zabala lortu eta euskara eta euskal kultura babestu eta garatzeko goren mailako erabaki estrategikoak hartzen ez badira.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Molekula

NEREA LOIOLA
'BERRIA'-N ARGITARATUA
HTTPS://LABUR.EUS/WXHKI

Artikuluaren izenburuak berehala erakarri du: *Garunaren eta antsietatearen elkarrizketa*. Orria pasatu du, ordea, beste kontu batzuetan arreta jartzeko. Pentsatze hutsak mamua esnatu dezake. Izenburuak, baina, bihotz-aitxagarri den zerbait du: *elkarrizketa* hitza; ez sufrimendua, ez iluntasuna. Ideia horri helduta atzera itzuli eta poztu da azpitu-tuluan irakurri duenean antsietatea tratatzeko erabilgarria izan daitekeen molekula aurkitu dutela. Mamua ohartu gabe

irakurtzeko modukoa izan daiteke beharbada.

Arrisku egoerak hizpide abiatzen da artikulua: errepide erdian bazaude eta kamioi bat agertzen bada, gorputzak azkar erreakzionatu behar du, segundo batean garunak beldurra prozesatu behar du zu errepidetik aldentzeko. Halako egoera batean, normaltzat joko genituzke izerdia, bihotz taupada azkarrak eta arnasa hartzeko zailtasunak. Horregatik, antsietatea organismoak mehatxutzat hartzen dituen egoeren kontrako erantzun natural gisa uler daiteke.

Sintomak irakurtze hutsarekin ezinegona piztu zaio, baina kontrolatu dezakeelakoan,

jarraitu egin du. Defentsa mekanismo hori inongo arrazoirik gabe aktibatzen da antsietatea daukaten pertsonetan, eta baita horrek dakartzen gaitz guztiak ere. Egunkaria itxi du. Zezakeela uste zuen, baina ezin du. Ez da iritsi molekula esperantzarriaren atalera, taupadak bizkortu zaizkio, arnasa estutu. Mamua esnatu da. Ez dago zergatirik, ez dago arriskurik. Gaixotasuna omen, baina bera ez da gaixo sentitzen, baizik eta ahul, txiki, ezdeus. Irakurtzeko gai izan den azken esaldia errepikatu dio bere buruari: arrazoinamenduak ezin du deus egin une honetan. Ea aurki molekula horrek egin dezakeen.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Bereziar, Iratxe Bengoa,
Leire Etxebarria.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Ez daukagu oraindik gaitz honen ondorioen berririk"

AITOR ARANA COVID IRAUNKORRA DUEN GAIXOA

Hasier Larrea Herrero DEBAGOIENA COVID Iraunkorraren Nazioarteko Eguna da gaur, iaz izendatutakoa. Gaixotasun hori pairatzen du Aitor Aranak (1975, Aramaio), eta Goiena telebistako *Hemen Debagoiena* saioan izan da haren emazte Aizpea Ajuriagerrarekin batera. **2020ko abenduan kutsatu zinen, eta handik bi urtera diagnostikatu zizuten COVID iraunkorra. Zer moduz zaude orain, gaixotu eta lau urtera?**

Ba, proba asko egin eta medikamentu asko probatu ondoren, gero eta txarrago nago. Sintomak areagotu egin dira lau urte hauetan, hala nola buruko mina, min muskularra eta nekea. Momentu honetan besoetako min handia daukat, eskuak txindurritzen zaizkit eta digestio arazoak dauzkat. Gainera, kapazitate kognitiboa mugatu egin zait, *laino mentala* edukitzen dut. **Eta psikologikoki nola daramazu?** Oso gogorra da hobetu beharrean txarrera noala ikustea. Pasatu izan zait mediku espezialistak esatea denborarekin pasatzen dela; baina zenbat da hori? Garbi dago hau gaixotasun kronikoa dela eta ez dakigula zer bilakatuko den: degeneratibo



Aitor Arana, Long Covid Euskal Herria elkartearen elastikoarekin. XABIER URZELAI

bihurtuko den, beste gaixotasun batzuk sortuko dituen...

Eta atsedena nolakoa da? Deskantsatzen duzu?

Lotarako hartu izan ditudan medikamentuen arabera, fase asko pasatu ditut, baina inoiz ez naiz deskantsatuta jaikitzen. Esango nuke energiaren erdiarekin baino gutxiagorekin jaikitzen naizela, eta arratsalderako gutziz gastatzen zaidala. Ondorioz, deskantsatu beharra dut.

Asko aldatu al da zure bizitza 2020a ezkeror?

Erabat. Pertsona oso kirolari eta aktiboa nintzen, mendiko lasterketa luzeak egiten nituen eta mendiko bizikletan ere ibiltzen nintzen. Orain, mendira paseoan joatearekin konformatu behar dut, eta eskerrak! Ze hori da nire terapia handi bat, psikologikoki asko laguntzen didana. Bizitza soziala galdu egin dut, ez dut aguantatzen jende talde bat dagoenean sortzen den ahots burrunbada.

COVID iraunkorrek tratamendurik ba al du?

Egunero agertzen dira ikerketen artikulua, baina gauza konkreturik ez. Oraindik ez dakite zergatik sortzen den gaixotasuna; hortaz, diagnostikoa egitea ere zaila da. Gaur egun, ez dago sendatzeko tratamendurik. Probatzen ari dira farmako asko sintomak hobetzeko; nire kasuan, probatu ditudan denek egin didate kalte. Garbi dakiguna da gaixotasun kronikoa dela eta ez dakigula ze ondorio izango dituen gure gorputzean.

Zein premia aldarrikatzen duzue?

Gaur, Long COVID edo COVID Iraunkorraren Nazioarteko Egunean, gogoratu behar da Osasunaren Mundu Erakundearen arabera munduan 65 milioi pertsona dagoela gaixotasun honekin kutsatuta. Osakidetzari eskatzen diogu medikuei informazio eta formazio gehiago emateko, eta diziplinarteko unitateak sortzeko, orain espezialista batetik bestera gabiltza eta. Horrez gain, LCK sortzen digun ezgaitasuna onartzea ere eskatzen dugu. **Elkarte bateko kidea zara eta.** Bai, LC Euskal Herria elkartekoa. Batez ere, laguntza psikologikoa jasotzen dugu. Ni ulertua sentitzen naiz, eta, egia esan, zorte handia izan dut artatu nauten profesionalekin: esaterako, Aramaioko medikuarekin eta Arrasateko ospitaleko espezialista batzuekin.

Bailarako daturik ematerik?

Elkartean sei debagoiendar gaude; horrek ez du esan nahi gaixo gehiago ez dagoenik. COVID Iraunkorra daukaten pertsonak elkartera etortzera animatzen ditut, laguntza handia jasoko dutelako. Sare sozialetan aurkituko gaituzue. **Ikerketa batean parte hartzen ari zinen; jarraitzen duzu?**

Nerbio sistema autonomoaren alterazioa ikertzeko proiektu bat zen, baina argibiderik ez dute aurkitu. Dirulaguntzak bukatu egin ziren, eta orain, bigarren fasea hasteko esperoan gaude. Horretarako, dirua inbertitu behar da.

Ze mezu helarazi nahiko zenuke?

COVID iraunkorra ahaztu egin nahi den gaitz baten ondorioa da, eta, ondorioz, estigmatizatu egiten da. Pandemia joan zen, baina COVID iraunkorra duten gaixoak hemen gaude, gure osasunagatik borrokan. Gure kamiseta berde honek adierazten du esperantza badugula: sendabidea aurkituko duten esperantza.

"ELKARTEAK LAGUNTZA PSIKOLOGIKO HANDIA EMAN DIT; OSO ESKERTUTA NAGO"

"FARMAKO UGARI PROBATUTA ERE, SINTOMAK AREAGOTU EGIN DIRA LAU URTE HAUETAN"

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI

KO RRI KA!



Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Kirol azpiegiturak berriitu eta, era horretan, eskaintza hobetzea da Arrasateko Udal Gobernuaren lehen tasun nagusietako bat 2023-2027ko agintaldian. Horretarako, hiru lan-lerrotan martxan daude dagoeneko, Mikel San Migel Arrasateko Udaleko Kirol batzordeko zinegotziaren esanetan: "Iturripe eta Musakolako kiroldegien proiektuak egitea, egungo instalazioetako mantentzea indartzea eta Kirol Herria proiektuaren garapena".

Azken horri dagokionez, kirola egiteko beste modu bat dauka helburu, eta, funtsean, kirola herri osora zabaltzea. "Gaur egun daukagun kirol instalazio zentralizatutik kirola oinarri duen herri baterantz jo gura dugu. Hemen inguruan baditugu mendi ibilaldiak, bizikletan egiteko ibilaldiak, bigorriak eta abar. Beraz, mugikortasun aktiboa sustatu gura dugu", dio San Miguelek.

Atletismo pista 17 urte ditu

Kirol azpiegiturak berritzeari dagokionez, 2024ko aurrekontuan dagoeneko txertatuta dituzte hainbat esku-hartze. Esaterako, Mojategiko atletismo pista berriitu egingo dute, baita ekipamendu guztiak ere, 841.000 euroko inbertsioa eginda. Azpimarratzekoa da 2007an inauguratu zutela pista eta, beraz, 17 urte dituela dagoeneko. "Urteen eta erabileraren poderioz, nabaria da geroz eta egoera kaxkarragoan dagoela pista eta, hainbat zulo izateaz gain, leku askotan altxatuta dagoela lurzorua", dio Jon Ormaetxeak, Arrasate Atletiko Taldeko presidentek. "Bereziki laugarren kalea da oso gaizki dagoena. Kale horretan ezin da lehiatu", gaineratu du.

Hasiera batean, maiatzean hastekoak ziren berritze lanekin, baina Arrasate Atletiko Taldeak eskatu zuen hilabete atzeratzea, hainbat txapelketa izango dituztelako maiatzean. Hala, ekainean hasiko dituzte atletismo pista aldatzeko lanak eta udazkenerako bukatuta izatea aurreikusten dute.

Era berean, Mojategiko argiteria ere aldatu egingo dute eta zortzi dorreetako foku guztiak LED sistemakoak jarriko dituzte. Horretarako, 520.000 euroko inbertsioa egingo du Gobernuak.

Horrez gain, Antoñako gunean ere hainbat lan egingo dituzte.



Arrasate Atletiko Taldeko presidente Jon Ormaetxea, pista altxatuta dagoen lekuetako bat erakusten. E.A.B.

841.000 euro pista berritzeko

Kirol Herria proiektua martxan jartzeaz gain, kirol arloan hainbat esku-hartze egingo ditu Udal Gobernuak agintaldi honetan, bai epe laburrean eta baita epe luzean ere; hala, aurtengo inbertsio nagusia Mojategiko atletismo pista berritzeko egingo du

"Azken urteetan mantentze eta jarraipen falta handia egon da eta hezetan arazo handiak ditu. Gainera, mendiaren aurka dago, ura sartzen da, eta, hori konpontzeko, hobekuntza lan batzuk egingo ditugu saskibaloi kantuan eta pilotalekuan".

Uarkape morez margotu dute

Uarkaperi dagokionez, hainbat mantentze-lan egin dituzte udal langileek; hiru hormek zituzten akatsak konpondu dituzte. Udal Gobernutik azaldu dutenez, lan zailena frontisak eman du. "Pin-

MOJATEGIKO ARGIAK LED SISTEMARA ALDATZEKO, 520.000 EURO INBERTITUKO DITU GOBERNUAK

tura zaharra dekapatu, akatsak zuzendu, harriak lixatu, juntak hartu eta pintura geruza berria eman zaio, oraingoan, more kolorekoa, Arrasateko kolorea delako", diote. Beste bi hormetan, pilotak utzitako zuloak konpondu eta kolore berriarekin pintatu dute (Ikus 40.orria).

Era berean, frontiseko txapa ere berritu dute, eta, horrekin batera, beste bi paretetako txapa margotu. Telebistako kamerak erabili ohi duten frontiseko txapa azpian dagoen kristala ere berritu dute, apurtuta baitzegoen. Azkenik, markagailua babesten duen polikarbonatozko panela ere berritu dute.

Bestalde, aurtengo 25 urte betetzen ditu Uarkapek -1999ko abenduaren 21ean inauguratu zuten-, eta urteurrena gogora ekartzeko logotipo propioa jarri du Udalak frontoian.

Lehenik, Iturripe berrituko dute

Proiektu nagusiak, inolako zailtasunik barik, Iturripe eta Musakolako kiroldegia berritzekoak izango dira. Bietan "inbertsio handiak" egitea aurreikusten du Gobernuak, eta Iturripe izango da lehenengo berrituko dutena. Kontuan hartzekoa da Iturripeko lursaila Gizabidea Fundazioarena dela eta orain arte, hitzarmen bidez, utzita erabili izan duela Udalak. Orain, Gobernuak lursailaren jabetza bereganatu gura du, eta horretarako negoziaketak "bide onetik" doazela aitortu du San Miguelek. Epeei

AURREIKUSPENA DA ITURRIPE 2027RAKO BERRITZEA, TARTEAN MUSAKOLAKO PROIEKTUA GARATUZ

dagokienez, hilabete barru, apirilean, aterako dute lehiaketara proiektuaren idazketa, 600.000 euro inguruko aurrekontuarekin. Ondoren, aurreikuspena da lanak 2025ean hasi eta 2027an bukatzea.

Iturripe bideratuta utzi ondoren helduko dio Gobernuak Musakolako kiroldegia berritzeko proiektuari; 2026an proiektuaren idazketa esleituko du. Eraikina zaharkituta dago eta aluminosia dauka -hormigoiaren gaixotasuna-. Beraz, zurrara da hura eraitsi eta berria eraiki beharko dutela. Halere, Iturripe berritzeari eman diote lehen tasuna, eta arrazoi nagusia hauxe da: "Klub eta herritar askok erabiltzen dute Musakolako kiroldegia, eta, berritzeko lanek iraun bitartean, zerbitzu batzuk beste herri batzuetara bideratu beharko ditugu. Edozelan ere, Iturripe berrituta edukitzen badugu, hara bideratu ahal izango ditugu erabiltzaileak eta klubak".

EAJ: "Gobernua berandu dabil"

Oposizioko talde nagusi EAJren proposamena da eurek egindako prozesu parte-hartzaitetik ateratako kirol azpiegituren mapa aurrera eramatea. Horren harira, adierazi du Gobernua dagoeneko berandu dabilela Iturripe berritzeko orduan. "2023ko bigarren zatian ez du ezer egin, nahiz eta aurreko proiektua eginda egon eta dirua aurrekontuan izan. Berez, 2023an hasi beharko lirake proiektuarekin, eta 2024. urte amaieran lanak hasi". Era berean, kiroldegia tamaina bikoizteaz gain, lur azpiko aparkalekuak egitea "ezinbestekoa" dela uste dute jeltzaleek. "Arazoak daude aparkatzeko, eta kiroldegi berriarekin areagotu egingo da arazo hori".

Modu paraleloan Musakolako kiroldegi berriaren proiektua egitea gurako luke EAJk. "2024. urtean hasi behar da Musakolako kiroldegiaren proiektua egiten, 2027an obrak egiten hasi ahal izateko", azaldu dute.

Azkenik, eskoletako kirol instalazioak berritzeko programa martxan jarri beharko litzateke, jeltzaleen ustez: "Musakolako institutuko kantxa berritu eta herritarren kirol jarduerara bideratu, Erguinen erdi estalita dagoen gunea itxi eta kirol eremu bilakatu, edota Santa Teresa kanpoko gunea estali kirol praktikara bideratzeko".


Musakola Ekinsare proiektuaren baitan, doako hiru programa

Aita Menniko Musakola zentroan egingo dituzte; izena emateko, 943-79 44 11 zenbakira deitu beharko da

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak eta Aita Menni ospitaleak Arrasateko adinekoen arreta eta bizi-kalitatea eraldatzea helburu duen Musakola

Ekinsare proiektua abiatu dute, eta, horren baitan, hiru programa jarriko dituzte martxan Musakola zentroan. Batetik, Itzulgarri izenekoa: "Ahultasun-egoeran dauden adinekoen bizi-kalitatea hobetzeko dizipli-

na askotariko arreta-programa, ariketa fisikoa, errehabilitazio funtzionala, estimulazio kognitiboa eta laguntza emozionala barne hartzen dituena". Bestetik, Zaintza Eskola. "Terapia pertsonalizatuak, prestakuntza eta informazioa adinekoentzat, senideentzat eta zaintzaileentzat, plataforma digital baten bidez". Azkenik, Denbora Bankua. "Denbora trukatzeko komunitatea, belaunaldien arteko lankidetzeta eta adinekoen, senideen, zaintzaileen eta komunitatearen



Erabiltzaile bat Musakola zentroan.

arteko zaintza sareak, plataforma digital baten laguntzaren bidez. Helburuen artean, nahi ez den bakardadearen ondorio negatiboak arintzea nabarmentzen da".

Izena emateko, 943-79 44 11 telefono-zenbakira deitu beharko da, eta Jose Ezquerria Aita Menniko adinekoen koordinatzailearekin berba egin.

Proiektuak Arrasateko Udaleko Gizarte Zerbitzuen Sailaren eta Arrasateko Nagusien Kontseiluaren laguntza du.



NIRE USTEZ

DJAMILIA ZEREIBY

Arazo serioa dugu etxebizitzarekin

Djamila naiz, IMME elkarteko ordezkaria. Joan den asteko osoko bilkuran, martxoaren 5ean, mozio bat aurkeztu genuen; Arrasateko Udalarri hainbat eskaera egin genizkion. Besteak beste, eskatzen genuena zen udal bulego bat sortzea, bitartekari lanak egingo lituzkeena herritarren eta instituzio publikoen zein pribatuen artean; nagusiki, alokairuari dagokionez. Izan ere, etxebizitzarekin oso arazo serioa daukagu eta Udalak esku hartu behar du lehenbailehen. Bestalde, gure proposamenetako bat da udal jabetzakoak diren Polmetasako lurretan babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea. Modu horretan, lortuko genuke eskuragarria den alokairu bat; izan ere, etxebizitzaren jabeekin egiten diren negoziaketek ez du bermatzen alokairu duin bat, nahiz eta haien jarrera ere ulertzen dugun.

Gure mozioa onartu egin zuen udalbatzak, EAJren aldeko botoekin, EH Bilduren eta Elkarrekin Arrasateren abstentzioarekin eta sozialisten aurkako botoekin. Beraz, espero dugu gure eskaerak bidea egin dezala eta ez dadila izan promesa hutsa. Izan ere, laguntza espero dugu Udalarengandik.

Garaiko produktuen artean, karapaixoa biharko azokan

Martxoko hirugarren zapatuarekin batera egingo dute bihar bertako produktuen azoka, Seber Altube plazan, 09:00etatik 14:00etara, eta karapaixoa izango da produktu izarra. Hala, karapaixo salmentarako posible izango da aurrez erreserba egitea, Artazubiagan 639 65 13 40 telefono-zenbakian, Errastikon (646 82 08 57) eta Irrika Gluten Freen (647 73 79 80). Erreserba egiten dutenek azokan bertan jasoko dute produktua.

Halaber, azokan erosten dutenen artean hamabi karapaixo zozkatuko dituzte egunaren amaieran. Ikastaroa ere egingo dute, 11:00etan, baina plaza guztiak beteta daude.

Aisialdi eta kirol programetan parte hartzeko laguntzak

Udalekueetan eta udako kirol campusetan herriko haurren parte-hartzea sustatzeko xedea duen dirulaguntza deialdia aurrreratu du Arrasateko Udalak. Irabazi asmorik gabeko herriko elkarteek antolatutako udaleku eta kirol campusetarako bakarrik eskatu daitezke laguntza horiek eta eskaerak *Arrasate.eus* webgunean egin daitezke, edota Biztanleen Arreta Zerbitzuan (BAZ). Hainbat baldintza bete beharko dira laguntza jaso ahal izateko. Informazio zabalagoa honako bide hauek erabiliz lortu ahal izango da: BAZen, Arrasateko Udaleko Gazteria Bulegoan (Biteri kalea 3) edo 943-25 20 65 zenbakira deituta.

Lanbide Heziketa PRIMERAKO AUKERA

GOIAZ!

Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka 2024

Martxoak 20-21

KULTURATE Arrasate

Debagoiengan

1.600 IKASLE 7 Ikastetxe 30 Ziklo

ZATOK LANBIDE HEZIKETA EZAGUTZERA!

www.fpdebagoienah.eus

Komediatik bezainbeste gizatasunetik duen lana

David Desola idazle kataluniarraren nobela oholtza gainera eramanda, 'Almazenean' antzezlana eskainiko dute domekan Iker Galartzak eta Zuhaitz Gurrutxagak Amaia antzokian, 19:30ean; sarrerak udal webgunean eros daitezke, hamar eurotan

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Txalo Produzioek ondutako antzezlana da, aurtengo urtarri-lean estreinatu dutena, eta dagoeneko 25 funtzio baino gehiago egin dituzte. "Antzezlan freskoa da, baina dagoeneko egonkortuta dagoena. Hasierako urduritasunak eta hasierak eskatzen dituzten aldaketatxoak eginda gatoz Arrasatera, momentu ezin hobean", adierazi du Iker Galartza aktoreak.

Emanaldi kopuru handiak lagundu du, hain zuzen, antzezlana egonkortzen. "Askotan, hainbat gauza zuzendu gura dituzu, baina hurrengo emanaldira arte hiru aste pasatzen dira eta ordurako ahaztu egiten zaizkizu. Kasu honetan, Hondarribian estreinatu genuenetik, asteburu bakoitzean hiru emanaldi izaten ari gara. Horrek laguntzen du antzezlana bizirik mantentzen".

Gainera, harrera oso ona izaten ari direla azpimarratu du. "Bagenuen beldur puntu bat. Izan ere, normalean komedia hutsa egiteko joera izaten dugu, jendeak barre egin dezan eta kito. Hala ere, oraingo honetan zerbait ezberdina egin gura genuen eta apustu garrantzitsua zen guretzako. Komedia egiten dugu, baina istorio gordin bat kontatuz. Beraz, aretoak bete eta jendearen iritzi positiboak entzunda, konturatu gara asma dugula", dio Galartzak.

Komedia hutsa baino gehiago

David Desola idazle kataluniarraren *Almacenados* nobelan oinarritutako antzezlana da, bi langile aurrez aurre jartzen dituen. "Batetik, gaixotasun baten ondorioz erretiro aurreratu hartzekotan dagoen langilea. Bestetik, hura ordezkatu duen langile gaztea. Lehenak bost egun dauzka bigarrenari azaltzeko almagazteko funtzionamendua nolakoa den eta zein den haren lana. Izan ere, langile gaztea



Iker Galartza eta Zuhaitz Gurrutxaga, *Almazenean* lana antzeztzen. TXALO PRODUKZIOAK

DUELA BI HILABETE ESTREINATUTAKO ANTZEZLANA DEN ARREN, 25 FUNTZIO EGIN DITUZTE JADA

arduradun izatera pasako da segituan", azaldu du Galartzak.

Lanari buruz ez du gehiago aurreratu gura izan. "Behin, lagun batek esan zidan emazteak bera baino hobeto pasatu zuela, ezer jakin gabe joan zelako. Beraz, esan dezakedana da jendeak une atsegin bat pasako duela eta barre egingo duela". Esan moduan, ordea, guztia ez dira algarak izango. "Gizatasuna, pertsonen arteko tratua, pazientzia, gordintasuna... elementu asko batzen dituen lana da. Jende gazteak begi batzuekin ikusiko du eta erretiroa hartuta dutenak, beste begi batzuekin. Garaiak aldatu egiten diren moduan, gauzak ikusteko perspektibak ere aldatu egiten dira adinaren arabera".

Galartzak dio aurrez beste testu bat proposatu zietela eta barre apur bat egin zutela. "Bai-

na ez zen guk nahi genuena. Nolabait, zen barre egitea barre egiteagatik. Zuhaitz eta biok *Lehendakari*gaia egitetik genduzen eta ez genuen nahi haren bigarren zati bat planteatzerik, publiko konparaketara eramaterik. Beraz, zerbait desberdina bilatzen genuen, eta domekan ikusiko duzun horren aldeko apustua egin genuen, azkenean".

Halaber, Zuhaitz Gurrutxagarekin lan egitea plazera dela adierazi du: "Oso mutil azkarra da, eta oholtza gainean segurtasun eta konfiantza handia transmititzen duena. Ni, askotan, pertsonaia gehiegi sartzen naiz, testua ahazteraino, baina hura hain da zorrotza eta aplikatua, segidan bideratzen nau".

Euskarazko antzerkia, bizirik

Antzerkiak gozatu eta "une atsegin bat" pasatu gura dutenak animatu ditu domekan joatera: "Zorionez, antzokiak betetzen ari gara". Horri lotuta, euskal antzerkiak bizi duen loraldia nabarmendu du: "Antzerkiarekiko zaletasuna geroz eta handiagoa da eta bizi-bizirik dago. Euskarazko eskaintza zabala dago; ezin gara kexatu".

Euskal kontalarien aldarriaz gain, sehaska-kantak Kulturaten

Ahokotasunaren Nazioarteko Eguneko ekitaldia egingo dute eguaztenean, Ahoz Aho jaialdiaren baitan, 18:00etan

E.A.B. ARRASATE

Joan den urtean lehen aldiz, euskal kontalarien izenean aldarri bat idatzi zuten Ahokotasunaren Nazioarteko Egunean, martxoaren 20an. Iaz Itziar Zubizarretak irakurri zuen eta aurten, berriz, Juan Kruz Igerabidek izango du ardura hori. "Iaz arrakasta handia izan zuen komunikatuak, eta, beraz, aurten ekitaldi bat egitea erabaki dugu", dio May Gorostiagak, Ahoz Aho jaialdiaren koordinatzaileak.

Beraz, Igerabidek berak idatzitako komunikatua irakurriko du, ahokotasuna ardatz hartuta. Horrez gain, Kanadako Berceurs Du Temps konpainia ere ekitaldian izango da. "Instalazio poetiko-artistikoa egingo dute. Kulunkari batzuk jarriko dituzte eta horietako bakoitzak bozgorailu txiki bat izango du. Horietan sehaska-kantak entzun ahal izango dira; izan ere, 80

hizkuntza baino gehiagotan grabatutako sehaska-kanten bilduma daukate. Era berean, hona egingo duten bisita baliatuko dute euskarazko sehaska-kanta batzuk grabatzeko".

Ahoz Aho jaialdia martxoarekin batera amaituko dute, eta, Gorostiagak nabarmendu duenez, aurtengo edizioak orain arte eman duena ederra izan da. "Oso pozik gaude, etorri diren kontalariak oso maila handikoak izan direlako eta saioek harrera ona izan dutelako".

'Bizkarsoro' martitzenean

Ekitaldi hori Korrika Kulturaren baitakoa izango da, baita *Bizkarsoro* filmaren emanaldia ere. Azken hori martitzenean izango da, Amaia antzokian, 19:30ean, eta Manex Fuchs aktorea han egongo da, ikus-entzunezkoaren nondik norakoak azaltzeko prest.



Berceurs Du Temps konpainiak 80 hizkuntzatan ditu grabatuta sehaska-kantak. B.T.

Gaurko eta biharko kontzertuen ostean, Libe doa gaztetxera

Musika erdigunean jarrita, asteburu bete dute Arrasateko gaztetxean. Batetik, gaur, egubakoitz, Palestinaren aldeko kontzertu solidarioa egingo dute, 22:00etan hasita. 112, Dirty Old Gasteiz eta Berandu Baina Lehen taldeak ariko dira oholtza gainean; sarrera bost euro izango da. "Sarreretatik lortutako dirua palestinar herriaren aldeko bo-

rroka finantzatzeko izango da", azaldu dute AGAKOko kideek.

Bihar, zapatua, bestalde, EguzkiFest jaialdia egingo dute, 22:30ean hasita. Honako musikari hauek ariko dira: Txandal Vandals, Anixe, Pxl.721, An2an, Brgs eta Loreak; sarrera bost euro izango da.

Azkenik, martxoaren 21ean, eguena, Libe Garcia de Cortazar *Libe* musikariak hartuko du gaztetxeko oholtza, Kooltur Ostegunen baitan, 22:00etan; sarrera zazpi euro izango da.



Aramaion egindako plater tiroketa saio bateko talde argazkia. KKE

Kurtzeta Gain elkarteak lehiatzeko gertu dago

Otsailean hasi zuten denboraldia Kurtzeta Gain plater tiroketa elkarteak kideek, eta hurrengo hitzordua domeka honetan daukate, sei kidek Gallartan jokatu duten Euskadiko Kopan; ahalik eta tiraldirik onena egitea dute helburu

Idoia Aranbarri Arzuaga ARAMAIO Domeka honetan parte hartuko dute Kurtzeta Gain plater tiroketa elkarteak Koldo Jauregik, Iker Jauregik, Enrike Ullibarriaranak, Juan Luis Nafarratek, Oskar Arrizabalagak eta Aitor Abarrategik Gallartan jokatu den *mini foso* (MF) modalitateko Euskadiko Kopan. Lehiaketa 25 plateretara izango da eta finala beste 25etara jokatu dute sailkapen orokorrean lehen sei postuak eskuratzen dituztenek. Otsailean, denboraldia hasi berrikan, jokatu zen Euskadiko Plater Tiroketa Txapelketa, eta orduko eta domekako emaitzen kontaketa hartzen da kontuan, eta puntuazio onena dutenek

lortuko dute beka Espainiako Txapelketara joateko. Juan Luis Nafarratek adierazi du domekan Gallartara doazenez ahalik eta tiraldirik onena egitea dutela buruan: "Ea zortea daukagun".

Denboraldiko erronkak

Azken bi urteetako Arabako plater tiroketako irabazlea da Kurtzeta Gain elkarteak, eta aurten ere badute asmoa parte hartzeko. "Kanpoko lehiaketetara joaten ez denak parte hartu ohi du eta 8-10 kidek osatutako taldea osatzen dugu", dio Nafarratek. Bospasei saio egiten dira hainbat herritan –tartean, Aramaion–. Halaber, iaz Gipuzkoako Txapelketan ere hartu zuten

parte eta irabazi egin zuten. Aurten ere izena eman dute.

Bestelako txapelketa edo lehiaketetan ere hartuko dute parte; esaterako, Irungo San Martzialgo tiro-eremuaren inaugurazio saioan, martxoaren 24an.

Jarraipena, kolokan

Nafarratek gaineratu du plater tiroketan oso gazte gutxi izaten direla eta beterano kategoriaz geroz eta beteagoa dagoela: "Aramaion gazterik ez dago. Iker dago, baina... Jende gehien hartzen duena beteranoena da, eta Espainiako Federazioak aldaketa egin du. Kategoriaren gutxieneko adina 60 urtetik 65era aldatu du".

Sagardo Eguna ospatuko dute bihar Oletan, bigarren urtez

Bazkarian 50 lagunendako lekua egongo da eta izena emateko Oletako herriko tabernara deitu behar da

I.A.A. ARAMAIO

Bi lagunen elkarrizketa batetik sortu zen Oletako Sagardo Eguna antolatzeke idea, Oletari "bizia emateko eta jendeak parte hartzeko" helburuarekin. Iaz egin zuten lehendabiziko aldiz, eta aurten izango du jarraipena. Egun osoko egitaraua osatu dute, eta, besteak beste, herri kirolek eta musikak izango dute lekua, bazkariarekin batera.

Eguerdiko hamabietan eman go zaio hasiera Sagardo Eguna, Luis Polanco, Ramiro, Claudia eta Kimetz aizkolarien erakustaldiarekin. Ondoren, 13:00etan, pintxo-potea egingo dute, txalapartak, albokak eta trikitiak lagunduta. 15:00etan izango da bazkaria.

Horren ostean, 17:00etatik 19:00etara, herri musika izango da. Antolatzailen esanetan, lehen egiten zen moduko erro-

meria bat izango da: "Bafle batetik garai bateko musika jarriko dugu. Lehengo erromeria-dantzaldia egingo dugu Oletan". Azkenik, eguna biribiltzeko, Otxandio Txino Musik Seletor-ek jarriko du musika, 19:00etatik gauerdira bitartean.

Bazkarirako izen-ematea

Sagardoa izango da protagonista nagusia eta Aramaioko Iturrieta Sagardotegitik eroango dute. Bazkaria antolatzeko orduan, berriz, Euskal Herriko errezeta tradizionalak berreskuratu nahi izan dituzte, eta, horretarako, tokiko produktuez baliatutako menua osatu dute. Oletako Herriko Tabernan egingo dute bazkaria eta 50 lagunendako lekua dago. Erreserba 945-09 72 54 telefono-zenbakian egin behar da. Bazkariaren prezioa 35 euro da.

OHARRAK

Argi mozketa

Hilaren 18an, goizean, aldizkako argi mozketak izango dira, Oletan izan ezik.

Elkarretaratzea gaur

Palestinari elkartasuna adierazteko, 19:00etan, Goiko tabernaren aurrean.

Batzar orokorra bihar

Alaiak Jubilatuen Elkartearen batzar orokorra, 10:30ean.

'Harira' saioan izango da Asier Agirre alkatea hilaren 22an

Asier Agirre Aramaioko alkatea Goiena telebistaren *Harira* saioan izango da datorren egubakoitzean, hilak 22 (18:30, 20:30 eta 22:30). Herriko gaiei buruzko galderak erantzungo ditu. Herriarrek ere galderak egin ditzakete, astelehenerako bidalita. Posta elektronikoz: berriak@goiena.eus; edo Whatsapp zein Telegram bidez: 688 69 00 07.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

ASIER AGIRRE

ARAMAIOKO ALKATEA

'HARIRA' SAIOAN
MARTXOAREN 22AN, EGUBAKOITZA,
18:30EAN, 20:30EAN ETA 22:30EAN

BIDALI ZUK ERE GALDERA:
✉ berriak@goiena.eus 📞 688 69 00 07

EPEMUGA: MARTXOAK 18, ASTELEHENA

DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena

Zu hemen zaude.



Ion Albizu –Hirigintza zinegotzia–, Angel Etxabe –Garapen Ekonomiko zinegotzia– eta Iñaki Etxebeste –Tantai kooperatiba–. UDALA

Tantai kooperatibako bazkide izango da Udala

Udal Gobernuak uste du udalen inplikazioa ezinbestekoa dela basoen kudeaketan eta horren balioa bultzatzeko lanetan, eta bazkide laguntzaile izateko prozedurari hasiera eman dio, "landa eremuko bizitzaren alde" apustu eginda

Mirari Altube ARETXABALETA

Tantai baso-jabeen kooperatibako bazkide laguntzaile izateko erabakia hartu du Udal Gobernuak, eta, 1.000 euroko ekarpena eginda, prozesu horri hasiera eman dio. Kooperatiba horren helburua da basoen kudeaketan eredu aldaketa bultzatzea, eta Udaletik ohar bidez jakinarazi dute bat egiten dutela: "Kudeaketa horrek baso ekosistemen berezko biodibertsitatea mantentzen eta haien funtzionamendua bermatzen lagunduko du, zuraren, zelulosaren, biomasaren eta antzeko lehengaien hornidura alde batera utzi gabe".

Landa eremuaren "alde"

Udalen "konpromisoa ezinbestekoa" dela uste du Gobernuak, hainbat gaitan zeresan handia dutela iritzita: "Plangintza urbanistikoa zein kontzientziazio arloan, eta basoen jabeak ere bagarelako".

Hala, hartutako erabakia lan-kidetzaren baten hasiera dela azal-

du dute, eta baso politika garatzeko ematen duten lehen pausoa: "Udalak apustua egiten du landa eremuko bizitzaren alde eta politika aktiboak garatzeko konpromisoa irmoa adierazi nahi du". Eta gaineratu dute hori guztia datorrela baso-jabeak lagundu eta biodibertsitatea zaintzeko helburua dutelako.

Bazkide laguntzaileak

Tantai kooperatiba duela hiru urte D2030 ekimenaren babesean hasitako proiektua da, eta 2023ko urtarrilean eratu zen, ardatz nagusietako bat jasangarritasuna izanik. Hasieran 30 bat lagunek egin zuten bat, baina elkar-ateak eta enpresak ere joan dira batzen; Fagor Taldea, esaterako.

Hain zuzen ere, Aretxabaletako Udal Gobernuak bazkide laguntzaileen garrantzia nabarmendu gura izan du, "biodibertsitatean eta gizarte osoan duen onura bultzatzen duelako, jabeetatik harantzago doan inplikazioa sustatuta".

Basotik-en batzarra

Beste alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren partaidetza duen Basotik Fundazioak baso-jabeentzat batzar informatiboa deitu du eguaztenerako, hilaren 20rako; Arkupen izango da, 19:00etan.

Fundazioak baso-jabeen aukera emango die haien eremuen titularitatea mantenduz basoen zaintza eta kudeaketa haren esku uzteko, "ordain ekonomiko baten truke" eta "zaintza jasangarriko zerbitzua" eskainiz. Basotik-eko arduradun eta teknikariak joango dira azalpenak ematera eta zalantzak argitzeko aukera egongo da.

Beste bilera bat egingo du Udalak herriko eragileekin

Ekintza-agenda bat eta baliabideen inbentarioa egitea izango dituzte, besteak beste, mahai gainean

M.A. ARETXABALETA

Herriko eragileekin iaz azaroan elkartu ziren lehenengoz udal ordezkariak, Ibai Zangitu eta Nerea Zubillaga, Kultura eta Ongizate zinegotziak, hain zuzen ere. Asmoa zen elkarrekin arteko harremanak estutzea, Udalarekin hartu-emanaren erraztea eta agenda bateratu baten beharra aztertzea, besteak beste, eta 40 bat eragile elkartu ziren orduan. Hark emandakoa positiboa izan dela iritzia beste bilera bat deitu du Udalak, hainbat gai sa-kontzeko helburuarekin.

Ekintza-agenda

Zerrendan dituzten gaien artean honako hauek daude: herriko eragileen kontaktuen agenda eguneratu; ekintza agenda bat sortu –aplikazioa– eragile orok bestea zertan dabilen jakin dezan eta gero aretxabaletarrei komunikatzeko; ekintzak ikusarazteko herriko leku fisikoen proposamena jaso; elkarrekin eta Udalaren baliabideen inbentarioa egin; eta eragileentzat aholkularitza proposamena landu.

Bilera hori martxoaren 21ean izango da, 18:30ean, Arkupen.

Bandaren emanaldia gaur eta dantza erakustaldia 21ean

Leizarra musika eskolako ikasleek hainbat emanaldi egingo dituzte datozen egunetan Arkupen. Bandak, Jon Lopez zuzendariaren esanetara, kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, 18:00etan.

Martxoaren 21ean, ostera, dantza erakustaldia egingo dute. Hiru emanaldi izango dira: 17:00etan, 18:15ean eta 19:30ean.

Aretxabaletako aukera energetikoak aurkeztuko dituzte

Herriko egoeraren eta aukera energetikoen gaineko argibideak emango dituzte Debagoiena 2030eko Aritz Ameztegi eta Leintz Bailarako Ekiolako Errektore Kontseiluko Aritz Otxandianok. Martxoaren 21ean izango da, eguena, 18:30ean, udal-terreko osoko bilkuren aretoan.

Tecnaliak D2030endako egin duen azterketaren emaitzak azalduko dituzte, alde batetik. Debagoieneko egoera energetikoaren diagnostikoa egin du, eta baita ahalmenaren estimazio bat ere.

Ekiolak, bestalde, proiektuaren nondik norakoaren, gaur egungo egoeraren eta martxan duen bazkidetzaren kanpainaren berri emango du.

Posta bidezko botoa emateko laguntza batzokian

Legebiltzarrerako hauteskundeak direla eta, Aretxabaletako EAJK adierazi du posta bidezko botoa tramitatzeko laguntza zerbitzua emango duela: batzokira joan daitezke herritarrek apirilaren 11ra arte, astelehenetik zapatu-11:00etatik 13:00etara, edo hitzordua eskatu 647 36 65 52 zenbakian. Herriko posta bulegoan ere eska daiteke.

OHARRAK

Solasaldia

Mugimendu Feministak antolatuta, emakume baserriarren mahai-ingurua izango da hilaren 20an, udaletxe zaharrean (18:30).

Zinema

Cualquiera menos tú filma izango dute helduek gaur (22:00), bihar eta etzi (19:30) eta astelehenean (16:00) Arkupen; eta *¡Corre, Tiger, Corre!* neska-mutikoek bihar eta etzi (17:00).

Jaikiren ekitaldia

Jaiki elkarrekin *Fraideidei Belarmetan* bat-bateko saioa eskainiko du gaur (19:15), dendaren hamabosgarren urteurrenaren baitan.

M8

Frontenisean jarduteko lagunarteko topaketa

Lehenengoz egin dute halako deialdia, eta helburua da herriko jokalariai elkartzea eta goiz-pasa polita egitea hainbat partidu jokatu; bihar, zapatua, izango da, Iturrigorri pilotalekuan, 10:30ean, eta izena eman bakoak ere pozik hartuko dituzte

Mirari Altube ARETXABALETA

Frontenisa gustuko duten Aretxabaletako emakumeak elkartzea helburu, lehenengoz antolatu dute topaketa. Bihar izango da, martxoak 16, Iturrigorri pilotalekuan, 10:30etik 13:00etara. Hamabat bat lagunek dagoeneko eman dute izena, baina antolatzaileek adierazi dute pilotalekuko ateak zabalik izango dituztela eta egunean bertan joaten direnak ere ondo-torriak izango direla.

Elkartu eta jokatu

Martxoaren 8aren bueltan antolaten den frontenis txapelketa du abiapuntu topaketa horrek: "Dagoeneko hamar urte bete dira lehenengoz antolatu zenetik. Orduan, Aretxabaletako bikoteak ziren gehiengo, baina jokalariai kanpotik etortzen hasi eta maila igo egin zenean herrikideek atzera egin zuten. Horregatik, nondik gatozen gogora ekartzea eta noizbait jokatu dugunok elkartzea da asmoa, eta gazteak erakartzea, noski", azaldu du antolatzaile taldeko Lierni Zangituk. Hala, zozketa eginda bikoteak osatuko dituzte eta hainbat erronda egongo direla aurreratu du: "Kontua da nahastuta ahalik eta partidu gehien jokatzeko".

Goiza borobilduko dute kontu-kontari jardun eta mokadutxo bat janda udaletxe zaharrean.

Hainbat talde

Iturrigorri frontoian hainbat emakume elkartzeko dira frontenisean jokatzeko: "Oraindik ere gutxiago gara, baina ia poliki-poliki animatzen goazen. Gure gogoan zen asko elkartzeko, eta jakin badakigu interesa duen jende gehiago badagoela. Baina aste bukaeran honetan hainbat ez dira egongo". Hala, hurrengo topaketa bat egiteko aitzakia badute.



Frontenis txapelketako partidu bat jokatu, joan den zapatuan. IMANOL SORIANO



Txapelkun elgetarrak erdian, eta alboetan, goierritarrak. UDA

Elgetarrak nagusi txapelketan

Hamar bikotek jardun zuten nor baino nor gehiago joan den aste bukaeran jokatuak frontenis txapelketan. Hamargarrenez antolatu zuten UDAk, Loramendik eta Udalak, eta adierazi dute "oso giro polita izan zela" Iturrigorriko harmailetan.

Finalerako ez zen herrikorik sailkatu. Goierritarrek eta elgetarrek jokatuak partidu luze eta berdinduan, debagoiendarrak izan ziren nagusi, azken lau tantoekin markagailua iraulita: Maitena Mañarikua eta Mireia Rubio 22-1hintza lmaiz eta Maialen Ezeolaza 21. "Oso partidu polita eta orekatua izan zen, maila handikoa", adierazi dute antolatzaileek.

Hirugarren eta laugarren postuak, oster, herrikideen artean erabaki zituzten: Lierni Zangituk eta Ibone Arrietak irabazi zieten Jasone Zabala eta Zuriñe Etxanizi, 22-19.

Dantza urbanoen topaleku izango da kiroldegia, beste behin

Fun Dantz lehiaketa zortzigarrenez dator eta hiru kategoriatan banatuta hogeitalek hartuko dute parte

M.A. ARETXABALETA

Fun Dantz dantza urbanoen jaialdia bueltan dator; bihar izango da, martxoak 16, Ibarra kiroldegian. Zortzigarrenez antolatu du Break On Stage ekimenak, Udalaren laguntzarekin, eta oraingoan Euskal Herriko hainbat txokotatik etorritako hogeitalek izango dira lehiak; besteak beste, Nafarroako hainbat esaterako, Iruñetik, Aurrabiatik eta Noaindik etorritakoak, Gasteizkoak, Barakaldokoak, Donostiakoak eta Bergarakoak.

Hiru kategoriatan banatuta jardungo dute nor baino nor gehiago: haurrak, 11 urte artekoak; gazteak, 12 eta 16 urte artekoak; eta absolutua, 16 urtetik gorakoak. Bergararrek hiruretan hartuko dute parte: Candem Vibes, Candem Joys eta Candem Rules. Kategoriatan bakoitzeko irabazlea maiatzaren Barakaldon egingo



Talde bat iaz, dantzan. JOSU BILBAO

den Break On Stage lehiaketarako sailkatuko da.

Lehiaketa 18:30ean hasiko da eta 20:00ak arte iraungo du. Sarrerak dagoeneko eros daitezke aretxabaleta.eus atarian, eta, bestela, egunean bertan kiroldegiko leihatilan.

23. KORRIKA

Kantu afarirako alde zuretik eman beharko da izena

Martxoaren 22an iritsiko da Korrika Aretxabaletara; 03:14an sartuko da Eskoriatzatik bueltan eta 03:27an irten Arrasaterantz. Ekitaldiak, baina, arratsaldean hasiko dituzte: Loramendi Korrika izango da lehenengo, eta ondoren, umeendako jolasak, kontzertuak eta *zuk in, zuk jan*

afaria Upeidek girotuta. Azken hori Herriko Plazan egitea da asmoa baina eguraldi txarrarekin pilotalekuan izango da. Antolatze lanak errazteko, alde zuretik izena eman beharko da euro bat ordainduta. Gaur, egubakoitza, 18:30etik 19:30era bitartean, udaletxe zaharrean mahai bat jarriko dute edo hurrengo egunetan Loramendi elkartetik pasatu beharko da; azken eguna martxoaren 20a da.

Zuhaitzen bueltako ipuinak kontatuko ditu Maider Alcelayk

Maider Alcelay arrasatearrak *Zuhaitzak, izakion altxorrak* ipuin kontaketa saioa eskainiko die 5 eta 8 urte bitarteko neska-mutikoei egunean, 18:00etan, Txiki Txokoan; izena emateko epea zabalik izango da hilaren 20ra arte. Munduan zehar bidaiatzera gonbidatuko ditu Alcelayk, zuhaitzen gaineko istorio, sinisimen eta ipuinak kontatuta.



Durana 15
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Paper artean itota daudela salatu dute

Lehen sektorean jarduten duten hiru eskoriatzar lur-jota daude sektorearen egoerarekin. Instituzioek lan egiten uzten ez dietela diote, oztopoak soilik dituztela euren jardunean, eta irtenbiderik ez dietela ematen. Etorkizuna beltz ikusten dute

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Hainbat arlotan lan egiten dute lehenengo sektorean Josu Zurutuzak –ganaduzalea–, Antton Salaberrik –basogintzan jarduten duen nekazari gaztea– eta Asier Sagastak –Atxalde gazten egilea–. Hirurak izan ziren martxoaren 1ean Donostian egindako manifestazioan aldarrikapenak egiten.

Lehen sektore duin baten alde lelopean kaleak hartu zituzten Donostian; traktore eta lur orotariko ibilgailu ugari bildu ziren, eta, karabana osatuz, Batzar Nagusietaraino joan ziren euren aldarrikapenak egiteko. EHNE eta ENBA sindikatuek babestutako lehen mobilizazioa izan zen, lehen sektoreak bizi duen egoera larria salatze eta nekazarien ustiapenen bideragarritasuna defendatzeko. Eskoriatzatik ere joan ziren protestan; haietako bat, traktorean.

Traktorean Donostiara

Josu Zurutuzak kamioia eta traktorea eraman zituen Donostiako protestara. Horrek dakarrenarekin: kostua, aurretik baserriko lan guztiak egin da utzi beharra... "Joan ginene hara, manifestua irakurri zuten, eta horixe izan zen guztia. Ni prest nago halako protestetara



Lehen sektorean jarduten duten hiru eskoriatzar Mazmela elizatean. IMANOL BELOKI

KASUAN KASU, SEKTORE OSOKO NEKAZARIEN EGOERA KEZKAGARRIA DELA AZALDU DUTE

dudan material guztia eramateko, uzteko... baina egoera aldatu beharra dago".

Gazteen etorkizun beltza

Zurutuzak, Salaberrik eta Sagastak argi dute protestak ez duela

ezertarako balio izango. Hala, instituzioek jarri behar dutela euren aldetik dio Sagastak: "Al-daketa handia izan beharko litzateke belaunaldi berriek lehenengo sektorean jardun dezaten. Nik duela zortzi urte egin nuen inbertsioa, eta, orduetik, zortzi urte pasata, okerrera joan da egoera". Salaberrik, bestalde, basogintzaren egoera larria salatu du. "Pinuetako banda marroiarekin, esaterako, ez dituzte tratamendu batzuk egiten uzten; beste biderik ez dute ematen, eta basoak usteltzen utzi dituzte".




JOSU ZURUTUZAK
GANADUZALEA

"Belaunaldi berrikerik ez da egongo gure etxean; okerrera doa sektorea eta burokraziak ez du graziaz egiten. Horrela ez dago bizitzetik".



ANTTON SALABERRI
BASOGINTZAN JARDUTEN DU

"Baso-langileak ere kexu gara administrazioarekin; ez dute basoen kudeaketan askorik laguntzen, eta bizi dugun egoera okerrera joango da".



ASIER SAGASTA
GAZTAGILEA

"Nik 500 ardi-buru ditut, eta bertako esnearekin gazta egiten dut; gaur egun sektore honetan jardun gura duenari ez sartzeko esango nioke".

23. KORRIKA

02:35ean iritsiko da Korrika, Leintz Gatzagan behera

Goiena izango da lekukoa hartzen lehenengoa, eta Goienakide bati emango dio eramateko aukera

I.B. ESKORIATZA

Aurtengo edizioan, Eskoriatzara ordu txikitik iritsiko da Korrika martxoaren 23an, 02:35ean, Leintz Gatzagan behera. Hala, 2241. kilometrotik –Zarimutz– 2246. kilometroraino –Ederlango biribilgunea– zehaztu dute zein erakunde eramango duten lekukoa Eskoriatzan. Hurrenez hurren: Goienak, Merkatariek, Eskoriatzako Udalak, Atxorrotx Kultura Elkartek, Huhezik, Arizmendik,

Jubilatuek, Luis Ezeizak, EH Bilduk eta Ederlanek.

Goiena izango da lekukoa hartu eta eramaten lehenengoa. Zarimutzen izango da hori, eta Goienak Goienakideei eskaini nahi die lekukoa eramateko aukera; horregatik, zozketa egingo du izena ematen duten Goienakideen artean. Parte hartzeko, *Goiena app*-eko zozketen gunean egin beharko da, eta horretarako azken eguna martxoaren 19a da.

GORA ETA BEHERA



Margotze lanak zenbait auzotan



Aparkatzeko edo debekua adierazteko zenbait eremu ari dira margotzen herrian. Baita gastatutako lineak erreparatzen ere: Santa Ana auzoan, Ibarraundi museo parean; Intxaurtxueta...

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



Haur eta nerabeentzako oporretarako plana, gertu

Tortolis ludotekak eta Eskoriatzako gaztelekuak Aste Santu aurreko opor-egunetarako egitarau berezia prestatu dute: gaztetxoek martxoaren 25erako, 26rako eta 27rako egitaraua izango dute eta nagusiagoek, martxoaren 25erako eta 26rako

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Tortolis ludotekak eta gaztelekuak aisialdi-ekintzak prestatu dituzte hilaren 25erako, 26rako eta 27rako; egun horietan, euskara ardatz, ondo pasatzea izango da helburu nagusia.

Tortolisekoak prest

Tortolis ludotekako 3 eta 12 urtera artekoentzat martxoaren 25erako, 26rako eta 27rako proposamena egin dute. Egundorietan, 10:00etatik 13:00etara bitartean, altxorraren bila, bizikleta irteera, sukaldaritza, erronka jolasak... izango dituzte. Prezioa 30 eurokoa da, eta izena emateko azken eguna martxoaren 18a. Horretarako, udal webguneko formularioa bete beharko da, edo astelehenetik egubakoitzera Tortolis ludotekara joan, 16:45etik 19:15era bitartean. "HH-3tik LH-6ra bitarteko haurrei zuzendutako ekintzak dira antolatu ditugun udalekuak. Bertan, haurrek ondo



Urkulun jolasean. **ESKORIATZAKO GAZTELEKUA**

pasatzeaz gain, sormena, naturan jolastea, kirola egitea eta Eskoriatzako bazterrez gozatzea bul-tzatzen ditugu. Udaberriko udaleku hauek euskaraz izango dira", azaldu dute Eskoriatzako Udaleko Gazteria Sailetik.

Aretxabaletakoekin batera

Eskoriatzako gaztelekuok, berriz, martxoaren 25ean eta 26an izango dituzte udaberriko udalekuak Aretxabaletako gaztelekuokekin batera. Elkarrekin antolatu dute ekintza berezien programa, 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendutakoa. Hala, hilaren 25ean, Aretxabaletan pasako dute eguna: txapelketak, bingo musikatua, bazkaria eta kontzertu akustikoa izango dituzte. Martxoaren 26n, berriz, Eskoriatzan pasako dute eguna: ginkana, Gaztetxer lehiaketa eta bazkaria egingo dituzte. Bi egunetan, ordutegia 11:00etatik 18:30era izango da, eta, ekintza horiez gain, parte-hartzaileen artean askotariko sariak banatuko dira: *Scape room*-erako sarrerak, *Salting*-erako sarrerak, Paulanerren afariak... Izen-ematea domeka honetara arte egin daiteke, gaztelekuan bertan, eta prezioa bost eurokoa izango da.



AITOR AGIRIANO

Jon Izagarekin saio ganberroa

Mutiko ezizenez ezaguna den Jon Izaga musikari aramaioarra elkarriketatu dute Arizmendi-Almen guneko nerabeek *Galdegazte*-ko laugarren saioan. Platoan Nora Roldan, Irati Koskorrotza eta Uxue Bengoa izan dira, eta errealizazio-gelan saioa jarraitzen Haizea Gabilondo, Alba Diaz de Mendibil eta Iraia Perez.

'Futbarrio' txapelketa martxoaren 30ean jokatu dute

Futbarrio areto-futboleko txapelketa antolatu du hilaren 30erako Malko elkarteak -Oñatiko LEINN graduako lehen mailako ikasleak-. Txapelketa adin nagusikoei zuzenduta dago eta izen-ematea *@futbarrio*. *txapelketa* izeneko Instagram kontuaren bitartez egin daiteke -talde bakoitzak 100 euro-martxoaren 25a aurretik. Abenduaren 30ean egin zuten *Futbarrio*-ren lehengo edizioa, Eskoriatzan, Manuel Muñoz kiroldegian, eta, arrakasta izanda, berriro antolatzea erabaki dute, hobekuntzak eginda. Hain zuzen ere, bigarren edizioa goizean goizetik hasi (08:30) eta gauera arte (20:00) izango da.

23. KORRIKA



2022an Gatzagan egindako Korrika Txikian. **GATZAGAKO KORRIKA BATZORDEA**

Hiru belaunaldik euskararekin izandako hartu-emanak hizpide

Esperientziak elkarbanatuta, Korrika Txikia egingo dute Gatz Museotik herrigunera domeka honetan

Imanol Beloki Unamuno **GATZAGA** Korrika martxoaren 23an goizaldean iritsiko da Gatzagara, baina motorrak berotzeko Korrika Txikia antolatu dute domeka honetarako.

16:00etan, erabilera askotariko espazioan hiru belaunalditako herritarrek euskararekin izan duten harremana izango dute berba. Gonbidatuak Pili Elkorobarrutia, Dorleta Elkoro-barrutia, Aitziber Gorosabel eta Jon Egidazu izango dira. "Lau pertsona eta hiru belaunaldi; herritar hauek gazteak zirenean nola bizi zuten euskara herrian

izango dute berba", azaldu du Nerea Altunak, Gatzagako Korrika batzordeko kideak.

Euskara gaztaroan

"Piliren kasuan, frankismo garaiaz arituko da; Aitziber eta Dorleta, ondorengo egoeraz; eta Jon Egidazuk gaur egun euskara nola bizi duen azalduko du. Azken horri dagokionez, beste egoera batean jaioa eta euskara elkarteko langilea dena". Horren ostean, 17:30ean, Gatz Museotik herrira Korrika Txikia egingo dute, eta gero, berriz, txokolate-jana izango da.

M8



SORGINAK EMAKUME TALDEA

'Sorginen' urteroko bazkaria

Urtero moduan, Martxoaren 8a dela-eta, 25 emakume inguru batu ziren joan den zapatuan Sorginak Emakume Taldeak antolatutako bazkarian. Gure Ametsa jatetxean egin zuten bazkaria, aurrez zapien banaketa, talde argazkia eta poteoa egin ostean. Bapo jan ostean, dantzatzeko tarte ere hartu zuten.



Eguaztenean, hilak 13, aurkeztu zuten *Hazien liburutegia* proiektua, udal liburutegian. JULEN MURUA

Udal Liburutegia, haziak elkartrukatzeko espazio

'Hazien liburutegia' egitasmoak hazi trukeak egitea du xede, eta, beraz, edozeinek har eta erein ditzake; prozesua, ordea, "ziklikoa" izan dadin, ereindako haziak liburutegira itzultzeko eskaria egin dute sustatzaileek. Hiru tailer ere egingo dituzte

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria ANTZUOLA

Haziak eta liburutegiak batzeko asmoz, *Hazien liburutegia* proiektua aurkeztu zuten eguaztenean, martxoaren 13an, Antzuolako Udal Liburutegian. Hazi aniztasuna galtzen ari delakoan, hazi trukeak egiteko ohitura ez galteza du helburu, eta, era horretan, "bertako barietateen haziak eta aniztasuna gordetzea".

Hain justu, Nafarroako hainbat liburutegitan egin zituzten hazien sareak eratzeko lehen urratsak, eta dagoeneko martxan da zenbait lekutan. Oraingoan, Antzuolara iritsi da egitasmoa, Udalaren eta Udal Liburutegia- ren ekimenez. "Garrantzi horretaz ohartarazteko, kultura hori sustatzeko eta jakintza zabaltzeko modua ere bada. Kultura eta jakintza bada, zergatik ez liburutegian zabaldu?", adierazi dute egitasmoaren sustatzaileek.

Nahi duenak har eta erein ditzake liburutegian dauden haziak, eta, beraz, interesdunak

liburutegira joan daitezke. Are gehiago, ahal dela, aterako diren fruituetako haziak liburutegira itzultzeko eskaria egin dute, "prozesua ziklikoa izan dadin". Egitasmoak helburu baitu hazien gordailu izatetik harago, hazi horiek guztiak partekatzeko espazio bat sortzea. "Bertako barietateen haziak baldin badituzu eta partekatzeko prest baldin bazaude, gorde eta zabaldu egingo genituzke".

Urtean zehar hiru tailer

Marc Badalek, agroekologian adituak, haziak ugaltzeko tailerra egin du azken aste honetako aurkezpen egunean, baina ez da ekintza bakarra izango, proiektu horren aitzakiapean beste

BERTAKOAK DIREN BARIETATEEN HAZIAK ETA ANIZTASUNA GORDETZE DA HELBURUA

hiru egingo baitituzte urtean zehar: maiatzaren 11n, zapatuan, esate baterako, Euskal Herriko tomate-landareak banatuko dituzte; urrian, Olatxuko Tailerra proiektuko kideen eskutik, kontserben inguruko tailerra antolatuko dute, baina data gerturatu ahala emango dute xehetasun gehiagoren berri. Azkenik, azaroan, hazien uzta, garbiketa eta biltegitzea izango du hizpide Badalek.

Lau bonuren zozketa

Hazien liburutegia proiektuaz gain, liburutegian bada beste egitasmo bat ere martxan. Hain justu, Itzar liburu dendan nahi den liburu eskuratzeko lau bonuren zozketa egiten dabilta martxoaren 11z geroztik, eta apirilaren 23ra arte iraungo du; alegia, Liburuaren Nazioarteko Egunera arte. Udal Liburutegian liburuak mailegatzen dituzten herritarrek izango dute zozketa horretan parte hartzeko aukera.

54 pilotarik hartuko dute parte San Isidro Txapelketan

Hiru partidu jokatuko dira final laurdenetan; maiatzaren 12an izango dira finalerdiak eta 18an, azkenik, finala

A.R.K. ANTZUOLA

Martxoaren 17an, etzi, emango diote hasiera San Isidro Txapelketaren hirugarren aldiari, eta Euskal Herriko txoko askotariko 54 pilotari arituko dira jokoan: hamahiru bikote benjamin eta alebin mailetan; eta hamalau, berriz, infantil eta kadete mailetan. Hala, guztira, 35 partidu jokatuko dira txapelketan.

Faseei dagokienez, final laurdenetako ligaxka jokatuko da lehenbizi, hiru egunetan: etzi ez ezik, baita apirilaren 21ean eta 28an ere, 10:00etan. Finaler-

diak, berriz, maiatzaren 12an izango dira, ordu berean. Azkenik, maiatzaren 18an jokatuko da finala, 18:30ean hasita.

Finalean hiru partida

Maila bakoitzeko final bana jokatuko da finalean, eta, beraz, zortzi pilotari arituko dira jokoan. Halere, izango da hirugarren partidu bat ere: Olalde pilota elkarteke pilotarien erakustaldia, hain justu. Leire eta Nagore Galeano pilotariak Olatz Insaustiren eta Irati Betegiren aurka arituko dira.

Boluntarioak behar ditu Landatxoepk zuzendaritzarako

Landatxoep erretiratu eta pentsiodunen elkartea boluntario bila dabil Zuzendaritza Batzordea berritzeko. Azaldu dutenez, hiru urteko konpromisoa eskatzen dute, eta esperientzia "aberragarria" da. "Bakoitzak bere borondatearen eta trebetasunen arabera hartzen du parte", eta erantsi dute askotariko lanak egiten dituztela, hala nola ospakizunak prestatu, bidaiak antolatu eta diru kontuak kudeatu. "Interesatuok, batzordearekin jarri harremanetan".

Aldi berean, erretiratuei elkarrearen egoitzara joatera animatzeko dei egin diete, eta baita bazkide ez direnei batzekoa ere, "zutik mantendu" dadin.

OHARRAK

Elkarretaratzea

Antzuolako Gazte Asanbladak azken hilabeteotan gaztetxean eginiko lapurretak salatuko ditu gaur, 19:30ean, Zurrategi plazan.

'Tu Tum Platz'

Jon Plazaolaren umorezko bakarrizketa saioa bihar, martxoak 17, Torresoroan, 19:00etan. Sarrerak Bibe plataforman daude salgai.

Atzeko txapelketa

Maiatzaren 3an eta 4an jokatuko da, udal pilotalekuan, eta martxoaren 20ra arte eman daiteke izena: labur.eus/OlaldeTorneoa. Hamar euroko prezioa du, kamiseta barne.

MUJIKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

23. KORRIKA



Atzo ezkeror, eskurik esku dabil lekukoa

Irunen abiatu zen atzo Korrika, eta Baionan amaituko da martxoaren 24an; Debagoienetik 20an eta 23an igaroko da

SALTOKI HOME

Sukaldea | Zeramika
Altzariak | Komuna
Argiztapena

Zure
proiektuetarako
inspirazioa

T. 943 061 895
Kataide poligonoa z/g
Arrasate

55 kilometro eta 140 lekuko

Atzo irten zen, Irundik, 23. Korrika, eta martxoaren 24an amaituko da, Baionan. Bi aldiz igaroko da aurten Debagoienetik: martxoaren 20an eta 23an, hain zuzen ere. Guztira, 55 kilometro egingo ditu ibarreko errepideetan zehar

Gontzal Belategi Zubia ARRASATE
Beste urte batez, Korrikak euskararen aldarria zabalduko du Euskal Herrian barrena, eta, noski, baita Debagoiengan ere. Irundik irten zen atzo, 16:00etan, eta martxoaren 24an amaituko du ibilbidea, Baionan. 2.700 kilometro izango ditu aurtengo ibilbideak; aurreko edizioa baino luzeagoa izango da, horrenbestez. Debagoiengan, berezitasun modura, bi egunetan igaroko da Korrika, martxoaren 20ean lehenengoz eta 23an hu-

rrena. Debagoiengan, guztira, 54 kilometro egingo ditu Korrikak, baina horiei Aramaio-ko Udalak Korrika Leintz Gatzagara sartu aurretik egingo duen kilometroa ere gehitu behar zaie.

Korrika Debagoiengan

Korrika martxoaren 20an pasako da lehenengoz Debagoienetik. Bergaratik pasako da, 06:45ean. Azkoititik etorriko da, eta Bergarara Elosutik sartuko da. 1483. kilometroa izan-

go izango da Debagoiengan egingo duen lehenengoa. Korrika Antzuolarenak diren lur eremu batzuetatik igaroko da, eta ,hori aprobetxatuz, herri hartako zenbait eragilek hartuko dute lekukoa. 07:01 aldera

DATORREN ASTEAN, EGUAZTENEAN ETA ZAPATUAN, IGAROKO DA KORRIKA DEBAGOIENETIK


izango da hori, 1487. kilometrotik 1489. kilometrora. Ondoren, San Martinetik erdigunera bideratuko da. Bertan lau kilometro inguru egingo ditu eta Matxiategirantz joango da 07:47 aldera. Bide horretatik Uberara 08:18an iritsiko da, eta bidea egingo du Elgetarantz; hara 08:35 aldera iritsiko da. Elgetatik 08:52an irtengo da, Zaldibarrerantz, eta azken kilometroa 1503.a izango da.

Martxoaren 23an igaroko da bigarrenez Korrika eskualdetik. Aramaio izango da ordezkari izaten lehen herria. Aurten Korrika handik ez denez pasako, 2236. kilometroa hartu du Aramaio-ko Udalak, Leintz Gatzagara sartu aurreko kilometroa. 02:03an izango da kilometro hori, eta Gatzagara 02:09an sartuko da. 02:23an pasako da herrigunetik Korrika, eta Eskoriatza-

140 ELKARTETIK GORA IZANGO DIRA DEBAGOIENAN LEKUKOA ERAMANGO DUTENAK

rako bidea hartuko du. 02:35ean sartuko da bertan Korrika, Zarimutz aldetik. 03:01ean Gaztañadaira helduko da. Korrikak zeharkatuko duen hurrengo herria Aretxabaleta izango da. 2247. kilometroa izango da herri horretako lehena. Hain zuzen ere, 03:14an sartuko da. Herri barrura 03:21ean helduko da eta Arrasateko mugara, berriz, 03:27an.

Behin Arrasaten sartuta, 03:40an San Andresera iritsiko da, eta, bidea jarraituz, herrigunera lau minutu geroago sartuko da. Handik Musakola aldera joko du, eta 03:53an iritsiko da. Musakolatik Elorregira joango dira parte hartzaileak, Oñatira bidean. Hain zuzen ere, 04:19an sartuko da Oñatin Korrika. Bidea eginda, 04:50 inguruan helduko da herrigunera, Otadui zuhaiztitik. Olabarrietan gora, Udana aldera joango da. 05:44an, berriz, eskualdeko partaideek lekukoa Urolako kideei pasako diete. Modu horretan bukatuko dira, beste edizio batez, Korrikak Debagoiengan izango dituen nondik norakoak.



Korrika 23 Debagoienetik

Eguna	Herria	Gunea	Ordua
Eguaztena, 20	Bergara	Elosua mendatea	06:45
Eguaztena, 20	Bergara	San Martin plaza	07:37
Eguaztena, 20	Bergara	Matxiategi kalea	07:47
Eguaztena, 20	Bergara	Ubera auzoa	08:18
Eguaztena, 20	Elgeta	Herriko plaza	08:35
Zapatua, 23	Leintz Gatzaga	Muga	02:03
Zapatua, 23	Leintz Gatzaga	Gatzagain	02:16
Zapatua, 23	Leintz Gatzaga	Herrigunea	02:23
Zapatua, 23	Eskoriatza	Zarimutzeko bidegurutzea	02:35
Zapatua, 23	Eskoriatza	Gaztañadui kalea	03:01
Zapatua, 23	Aretxabaleta	Azkena	03:14
Zapatua, 23	Aretxabaleta	Herriko plaza	03:21
Zapatua, 23	Arrasate	Muga	03:27
Zapatua, 23	Arrasate	San Andres Herri Eskola	03:40
Zapatua, 23	Arrasate	Herriko plaza	03:44
Zapatua, 23	Arrasate	Musakola	03:53
Zapatua, 23	Oñati	Elorregi	04:15
Zapatua, 23	Oñati	Zubillaga	04:27
Zapatua, 23	Oñati	Foruen Enparantza	04:54
Zapatua, 23	Oñati	Udana mendatea	05:43

ITURRIA: KORRIKA



22. korrika Arrasatetik igaro zen une bat. GOIENA

Babes handia eskualdean

Korrikak babes handia jasoko du Debagoienean. Urtero bezala, hainbat elkartetek erosi dute kilometroa, eta lekukoa eramango dute, euskara eta AEK babesteko asmoz. Izan ere, horrenbestera inokoa da Korrikak bailaran

duen babesa, hainbat kilometro eragileen eta elkarteen artean banatu behar izan dituzte. Korrikak Debagoienean egingo dituen 55 kilometro horietan, 140 elkartetik gora izango dira lekukoa hartuko dutenak, kilometro kopuruaren bikoitza.

Autobusak Baionara

Martxoaren 24an bi autobus joango dira Debagoienetik Baionara, han izango da-eta Korrikaren amaiera. Bi autobusak beteta daude, eta antolatzaileek, momentuz, ez dute besterik jaritzeko asmorik.

Milaka kilometro, hizkuntza baten alde



OÑATI
dabilen herria

ZENBAKI
Aholkulariak eta abokatuak

Korrikaren alde!!!



Behar dudanerako

www.zenbaki.eus

Basabe industrialdea, F-0
Aretxabaleta
943712112

Korrika Txikiak eta herri-afariak

Bailarako herri guztietako ikasleak irtengo dira kalera; gainera, Korrika gauzez pasako denez, herri gehienetan afariekin girotuko dituzte lekukoa hartu aurreko uneak

Mireia Bikuña Madrid ARRASATE Antzuolatik eta Elgetatik izan ezik, bailarako gainerako herrietatik gauzez pasako da Korrika. Hori horrela, goizaldera arteko denbora tarte hori modu onenean pasatzeko, herri guztietako Korrika batzordeek formula bera erabili dute: herri-afariak egingo dituzte. Gehienek, gainera, *Zuk in zuk jan* sistema erabiliko dute. Oraingoan, me nuak ez dauka garrantzirik. Helburua da lekukoa hartu aurreko orduetan ahalik eta jende gehien ibiltzea kalean, Korrikari ongietorri beroa egiteko. Horretarako, musika emanaldiak, ikuskizunak, umeendako taile-

rrak, jolasak eta poteoak egingo dituzte, besteak beste.

Antzuolan eta Elgetan gosalduta egingo dute Korrika pasa ostean.

Ikasleak korrika

Korrika nagusiaren anaia txikiak ere presentzia izango du Deba-goieneko herrietan. Herrietako ikasleak kalera aterako dira Korrika Txikiak egitera. Batera egingo dute korrika, norbere lekukoarekin, baina guztiak euskararen alde korrika.

Elgetan eta Leintz Gatzagan asteburu honetan egingo dituzte Korrika Txikiak: egubakoitzean eta domekan, hurrenez hurren.

Korrika Kultureko egitaraua

ANTZUOLA

MARTXOAK 16

- **19:00:** *Tu tum Platz* ikuskizuna, Jon Plazaolarekin, Torresoroan.

MARTXOAK 20

- **07:00:** Korrika Antzuolatik igaroko da.

MARTXOAK 23

- **19:00:** Torresoroan, *Bizkarsoro* pelikula.

ARAMAIO

MARTXOAK 17

- Murura mendi irteera, Arrasate eta Aretxabaletakoekin batera.
- **18:30:** *Bizkarsoro* pelikula, kultura etxean.

MARTXOAK 22

- **10:30:** Bertso saioa.
- **11:00:** Karaokea eta disko-festa.
- **11:00:** Herria kantuz, Alaiak taldea eta eskolako umeak bilduta.
- **14:30:** Korrika Txikia.

- **19:00:** Poteo-kalejira, herriko txistulari, trikitilari eta dantzariekin.
- **21:30:** *Zuk egin zuk jan* afaria.
- **10:30:** Bertso saioa.
- **11:00:** Karaokea eta disko-festa.

MARTXOAK 23

- **02:24:** Leintz Gatzagan izango du kilometroa Aramaiok.

ARETXABALETA

MARTXOAK 17

- Murura mendi irteera, Arrasate eta Aretxabaletakoekin batera.

MARTXOAK 22

- **10:30:** Korrika Txikia, Pausokatik.
- **17:00:** Loramendikoen Korrika, udaletxe zaharretik.
- **18:00:** Umeendako tailerrak, Durana kalean.
- **18:30:** *Herrixa apaindu* ekimena, gaztetxoekin.
- **19:00:** Josu Okina, Zirrara eta Xander taldeen kontzertuak.
- **21:00:** *Zuk in zuk jan* kantu-afaria Upeide taldearekin.

MARTXOAK 23

- **02:30:** Gazte-kedada, Korrikara joateko.
- **03:16:** Korrika Aretxabaletatik igaroko da.

ARRASATE

MARTXOAK 17

- **Murura mendi irteera.** Arrasate eta Aretxabaletakoekin batera.

MARTXOAK 19

- **19:30:** *Bizkarsoro* film luzea, Amaia antzokian.

MARTXOAK 22

- **10:30:** Korrika Txikia.
- **18:00:** Konpartsen kalejira.
- **19:00:** Dantza taldeen eta txistularien kalejira.
- **19:00:** Txalapartarien, trikitilarien eta albokarien kalejira.
- **21:00:** Uarkapen *Zeuk ekarri, zeuk jan* kantu-afaria, Sei Pistols & Trabuko Bat taldearekin.
- **MARTXOAK 23**
- **03:29:** Korrika Arrasatetik igaroko da.



Energiarekin egiten dugun gauza bera egiten dugu euskararekin:
ahalik eta modurik onenean banatzen laguntzea.

ELEKTRA S.A. www.grupoelektra.es




Irundik Balonarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra


Markulete Industrialdea · Uribarri Hiribidea, 39 · Arrasate · 943 712 038

Zure negozioa ezagutzera eman nahi duzu?
Zatoz batu-banatura!


Banaketa aukera ezberdinak

- Banaketa **masiboa**.
- Banaketa **pertsonalizatua**.





www.batubanatu.eus
943 08 10 50 / 688 69 00 07
banaketa@batubanatu.eus



MARTXOAK 24

- **08:20:** Baionara autobusa.

BERGARA**MARTXOAK 16**

- **12:00:** Euskal dantzen ikuskizuna Munibe plazan.

MARTXOAK 17

- **17:00:** Umeentzako zinema: *Museoaren zaindaria*. Seminarixoan.

MARTXOAK 20

- **06:37:** Korrika Bergaratik igaroko da.
- **10:00:** Korrika Txikia.
- **17:30:** Umeentzako jolasak Oxirondon.

MARTXOAK 21

- **19:00:** 150 Kokoxa taldearen antzezlan, Seminarixoan.

MARTXOAK 22

- **22:00:** Bertso jaialdia, Seminarixoan.

MARTXOAK 23

- **11:30:** Kalejira Musika Eskolako trikitilariekin.
- **13:00:** Euskal dantzen emanaldia, Munibe plazan.

MARTXOAK 26

- **19:00:** *Oihaletxea* dokumentala eta solasaldia, Seminarixoan.

ELGETA**MARTXOAK 15**

- **15:00:** Korrika Txikia.
- **16:00:** Peto eta bandatxo salmenta.
- **17:30 eta 18:30:** Ipuinen ordu berezia liburutegian.
- **18:00:** Txistor-jana Ozkarbin, Xalbadorperen eskutik, erretiratuen elkartekoendako.
- **19:15:** Argazki erraldoia plazan.
- **Ondoren,** Ad Libitum txaranga.

MARTXOAK 20

- **08:34:** Korrika Elgetatik igaroko da.
- **Ondoren:** txokolate-jana Ozkarbikoen eskutik.

ESKORIATZA**MARTXOAK 21:**

- **19:00:** *Aire* dokumentala, Zaldibar antzokian.

MARTXOAK 22

- **10:30:** Korrika Txikia, herrian zehar.
- **17:00:** Eskulanak, Bizente Goikoetxea plazan.
- **17:00:** Gaztelekuan Korrika girotzeko arratsaldea: kartela, musika eta afari-merienda.



2022ko Korrika Txikia Aramaion. GOIENA

- **18:30:** Buruhandiak kalerik kale ibiliko dira.
- **19:30:** Triki-kalejira, Eskoriatzako trikitilariekin.
- **21:30:** *Zuk ekarri, zuk jan* afaria.
- **23:00:** Elektrotxufa, Bizente Goikoetxea plazan.

MARTXOAK 23

- **02:37:** Korrika Eskoriatzatik igaroko da.

LEINTZ GATZAGA**MARTXOAK 17**

- **16:00:** *Euskara Gatzan* ekimena, ludotekan. Belaunaldi ezberdinetako lau pertsona elkartuko dira umeekin.
- **17:30:** Korrika Txikia, Gatz Museotik hasita.
- **Ostean:** Txokolate-jana.

MARTXOAK 23

- **02:04:** Korrika Leintz Gatzagatik igaroko da.

OÑATI**MARTXOAK 16**

- Irteera gaztetxetik Iruñera.

MARTXOAK 19

- **18:00:** *Euskararen egoera gaur* hitzaldia, kultur etxean.

MARTXOAK 20

- **19:00:** *Entzuteko lan isila* (2017), kultur etxean.

MARTXOAK 21

- **19:00:** Xabier Ugarteren omenezkoa: zuzeneko musika eta ikus-entzunezkoa.

MARTXOAK 22

- **15:00:** Korrika Txikia.

- **17:00:** Gauargi taldearen dantzaldia, Foruen plazan.
- **Ostean:** Sorgin dantza Oñatz taldearekin, kalerik kale.
- **20:00:** Skapaie elektro-txaranga, Arrano tabernan hasita.
- **21:00:** Kantu-afaria, Jose de Azpiazu musika eskolako musikariek.
- **Gau osoan:** DJ Watxas eta DJ Bass&Dere.

MARTXOAK 23

- **04:21:** Korrika Oñatitik igaroko da.
- **22:00:** Malko taldearen kontzertua, gaztelekuan.

MARTXOAK 24:

- **08:00:** Baionara autobusa, Enpresagintzan.

Elkarrekin bidea eginez!!

Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

ULMA

ION
ZERBITZUAK

☎ 658 995 912

✉ ionelektrizitatea@hotmail.com



ion ELEKTRIZITATEA

Mantentze lan integralak
Konponketa txikiak eta handiakIrundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

Gu ere Korrikarekin!

Korrika luze eta zabal Goienan

Korrikak Debagoiengan egingo dituen kilometroak zuzenean eskainiko ditu Goienak, eta Baionako amaiera ekitaldia ere bai. Tartean, askotariko saio eta tarte bereziak izango dira komunikazio taldearen euskarri guztietan

Larraitz Zeberio Lekuona ARRASATE
Goiena Komunikazio Taldeak zuzenean eman zuen atzo Irungo irteera, eta Korrikak Debagoiengan egingo dituen kilometroak ere zuzenean emango ditu. Eguaztenean izango da lehenengo konexioa. Korrika 06:37an sartuko da Debagoiengan, Elosutik, eta zuzenean eskainiko dute une hori bai Goiena telebista eta bai *Goiena.eus*-ek. X-ko eta Instagram-eko profiletan une oroko jarraipena egingo du komunikazio taldeak, eta

eguerdirako herriz herriko argazki galeriak zein bideoak izango dira ikusgai sarean.

Euskararen aldeko lasterketak eskualdean egingo duen lehenengo sartu-irtena Elosutik Elgetarainokoa izango da, 06:37tik 08:47ra. Egun horretan bertan Korrikari buruzkoa izango da *Hemen Debagoiena* saio osoa, 18:00etan, 20:00etan eta 22:00etan. *Korrika* saio berezia ere ekoiztuko du telebista; 21:00etan eta 23:00etan izango da ikusgai. Ibilbidea kilometroz kilometro

eta lekuko aldaketa guztiak jasoko ditu Goienak. Informazioa osatzeko, bi orriko argazki-erreportajea jasoko du hilaren 22ko GOIENA astekariak.

Leintz bailara eta Oñati

Korrika bi egun geroago itzuli-ko da Debagoienera: hilaren 22an. 02:24an sartuko da eskualdean, Leintz Gatzagan behera. Ordurako ere, Goiena Komunikazio Taldeko lantaldea prest izango da kilometroz kilometroko kontakizuna jasatzeko. Tele-

Eduki bereziak

MARTXOAK 20

- **06:30** Elosua-Elgeta, zuzenean.
- **18:00** *Hemen Debagoiena* saio berezia.
- **21:00** *Korrika* saio berezia.

MARTXOAK 22

- **02:24** Leintz Gatzaga-Oñati, zuzenean.
- **16:00** *Korrika* saio berezia.

MARTXOAK 24

- **11:30** Korrikaren amaiera zuzenean Baionatik.
- **17:00** *Korrika Debagoiengan* saio berezia.

Goiena telebista eta *Goiena.eus*-en. GOIENA astekarian hainbat orritako erreportajeak aldira.

bistan, *Goiena.eus* atarian eta sare sozialen bitartez -X zein Instagram- egingo du jarraipena. Leintz Gatzagako, Eskoriaztako, Aretxabaletako, Arrasateko eta Oñatiko kilometroak zuzenean eta urratsez urrats jarraitzeko aukera izango da, horrenbestez.

Lantaldeak *Korrika* saio berezia ere ekoiztuko du 16:00etarako. Leintz bailaran lekuko eramaileek zein lasterkariak egingo bidea kilometroz kilometro ikusteko aukera izango da, Leintz Gatzaga eta Oñati arteko lekuko aldaketa guztiakin batera. Saio hori 19:00etan eta 22:00etan ere ikusgai izango da Goiena telebistan. "Bai egun batean zein bestean jasoko ditugu lekuko hartzeko dauden inpresioak, bide bazterrean ikusle moduan daudenak, antolatzaileenak, eskualdeko koordinatzaileenak..."

DEBAGOIENeko KILOMETRO ETA LEKUKO ALDAKETA GUZTIAK JASOKO DITU GOIENAK



UGARTE
ARozTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoiak
Horma-Armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

ARozTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra



22. Korrika, Arrasaten: aurretik furgoneta jendez lepo; eta, tartean, jarraipena egiten ari zen Goienako lantaldea. GOIENA

Festa handia izan ohi da Korrika, eta Debagoienean jendetza elkartzen da euskararen aldeko lasterketari babesa emateko, eta nork bere onena ematen du. Unean uneko bizipenen eta emozioen lekuko izango gara", azal-

du du Goienako ikus-entzunezkoen zuzendari Oihane Agirrek.

Amaiera zuzenean Baionatik

Korrikaren irteerarekin atzo egin bezala, amaierako ekitaldiak ere zuzenean ikusteko aukera

izango da Goienako euskarrietan. Beste hainbat hedabiderekin batera elkarlanean ekoiztutako saioa izango da eta Goienako kazetari Amaia Txintxurreta Lapurdiko hiriburuan izango da. "Une zirraragarriak

bizi izango ditugu, ziur. Korrikaren amaiera beti da emozioz beterikoa, eta, azken metroak eskaintzeaz gainera, Euskal Herrian zehar eskutik eskura hainbat kilometro egin dituen lekukoak eramandako mezua ezagutuko dugu, azkenik. Aurtengo omenduei [Iparraldeko ikasleek eta gurasoek osatutako Azterketak Euskaraz taldea] eskainitako ekitaldia ere bertatik bertara jarraituko dugu. Baionara joan ezin direnendako aukera ederra da", azaldu du Txintxurreta kazetariak.

Domekan saio berezia

Domekan, hilak 24, eta behin Korrika 23 amaituta, lasterketak Debagoienean egindako kilometroak patxadaz ikusteko aukera izango da Goienan. Bizi izandako une eta tarte berezi guztiak saio bakar eta berezi batean jasoko ditu Goiena Komunikazio Taldeak. Saio hori 17:00etan eta 20:00etan emitituko dute. "Emankizun horretan jasoko ditugu Korrikak Debagoien osoan egindako kilometroak; Elosutik Elgetara eta Leintz Gatzagatik Oñatira.

Kilometroaz kilometroko irudiak eta lekuko aldaketa guztiak jasoko ditugu bertan".

Erreportaje berezia astekarian

Aste Santuko jaiegunen bezperan, hilaren 27an, kaleratuko du GOIENAK 1030. zenbakia. Argazki-erreportaje zabala jasoko du etxez etxe banatuko duten aldizkariak; sei orriko erreportajea, hain zuzen ere. Antolatzailen balorazioak ere jasoko dituzte bertan.

Goiena Komunikazio Taldeak lantalde handi eta zabala prestatu du Korrikak merezi duen jarraipena izan dezan. Korrika martxan den hamar egunotan, berriz, zuzeneko seinalea egongo da une oro ikusgai *Goiena.eus* atarian. Errepidean lasterka, espaloian txaloka zein etxeke egongelatik hunkituta, gozatu Korrika!

BAIONATIK ERE ZUZENEAN ARITUKO DA GOIENA HAINBAT HEDABIDEREKIN ELKARLANEAN

UDALAITZ S.L.
Gipuzkoa etorbidea 36
20500 Arrasate

23. korrika
HARRO HERRI

Gu ere euskararen eta Korrikaren alde!

SEAT Audi Service VW KODIA

Audi Q2 VW Caddy VW T-Roc Skoda Kodiac Seat Arona

Tel.: 943 71 18 70 | Faxa: 943 71 18 71 | udalaitz@otola.org | www.udalaitz-arrasate.com

Iñigo Barrena ARRASATE

Egun, ordu eta minutu gutxi falta dira falta Korrikak Debagoiena zeharka dezan, eta azken txanpa honetan AEK-ko langileak eta herrietako batzordeak buru-belarri ari dira lanean, lekukoa ibarrera iristen denean festa borobila izan dadin. GOIENA Ainhoa Arregi Gaztañaga (Arrasate, 1976) Korrikaren Debagoieneko koordinatzailearekin izan da, azken orduko egoera nolakoa den jakiteko eta herrietako kaleetan zehar eragingo duenaren berri izateko.

Nolakoak izaten ari dira azken egun hauek? Nabari al dira urduritasunak?

Nerbioak izateko astirik ere ez dugu, lanez gainezka gaude azken egun hauetan, eta horrek ez digu uzten lan egiten nahiko genukeen lasaitasunarekin, ez guri, ez lekukoa hartuko dutenei ere. Batzuk beste batzuk baino gehiago ari dira galdezka ea petoak eta bestelako gauzak noiz iritsiko diren. Lanpetuta gaude.

Aurten zenbat kilometro eta lekuko izango dira Korrikak Debagoiengan egingo duen bidean?

"Korrikak magia berezia izaten du gauez pasatzen denean"

AINHOA ARREGI GAZTAÑAGA KORRIKAREN DEBAGOIENeko KOORDINATZAILEA Korrikaren lekukoa Debagoienera iristeko gutxi falta da, eta "lanez lepo" daudela aitortu du Arregik, baina ziur dago "festa handia" izango dela datozen egunetan

Guztira, 55 kilometro eta 159 eramaile izango dira. Egia esatearren, azkeneko urteetan baino eramaile gehiago dira. Pentsa... Arrasaten, esate ba-

terako, kilometro batzuk bost edo sei zatitan banatu behar izan ditugu. Hain zuzen ere, horrek erakusten du parte hartze handia egongo dela, eta,

era berean, eskertzekoa da bailara honetan dagoen borondatea.

Azterketak Euskaraz ekimena omen- duko duzue aurten.

Bai, halaxe da; oihartzuna eman nahi diegu eurei ere. Askotan, Iparraldea atzean-edo uzten dugu, urrun ikusten dugu eta gurean bizi dugun errealitatean zentratzen gara soilik. Iparraldean bestelako egoera bat bizi dute, eta ohartu beharra dugu ze egoeratan bizi diren euskarari dagokionez. Egoera horri oihartzuna emateko erabaki da haiek omentzea.

Nolako bidea izan da orain artekoa? Lehenik, batzordeak eratu behar izan genituen, eta, ondoren, haiekin adostu herri bakoitzean Korrikaren bueltan egongo diren ekitaldi kulturalak. Gero, ekarpenak egin nahi izan dituztenekin harremanetan jarri behar izan dugu. Horiek izaten dira hasierako eginbehar nagusiak. Egia da Korrika hasten den unetik amaitu arte dena oso markatuta eta abiadura handian joaten dela; ia arnasa hartzeko denborarik ere ez dugu izaten. Dena dela, Debagoiengan batzordeak izan dira kilometroen banaketa eta kudeaketa gestionatzeko, eta, horri esker, askoz lan gutxiago izan dugu.



Durana
Hartz Klinika

GORA KORRIKA!

INPLANTOLOGIAKO ESPEZIALISTAK 3D TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABAETA • TEL.: 943 79 93 55



Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA LAN ARLOKO AHOALKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Harro Herri
Irundik Balonarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

Euskararen eta Korrikaren alde!

Euskadi etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com
Jokin Zaitegi plaza 6 (Arrasate) • 943 79 8395 • erana@aserana.com

Nola funtzionatu dute herrietako batzordeek?

Orokorrean, oso ondo aritu direla esango nuke. Askok bada-kite zein den funtzionamendua, azken urteetan ere aritu direlako lanean. Alegia, prestutasuna eta laguntza handia erakutsi dute. Lehen esan bezala, batzorde horiek ez baleude gure lan-karga askoz handiagoa izango litzateke.

Aurtengo edizioan bi alditan pasatuko da Korrika ibarretik; horrek ba al du eraginik?

Bai, noski; lan-jardunean zerkusua du. Duela bi urte, herri guztietatik egun berean igaro zen. Oraingoan, bi egunetan une oro aktibo egotea eragingo dugu. Bailara guztia pasada batean zeharkatzen duenean, ordu gehiago egin behar izaten ditugu autoan, markagailu guztiak ere egun berean jarri behar ditugu eta abar. Lan horiek guztiak bi egunetan zehar errepikatu beharko ditugu.

Bi egunetan, gainera, gauez pasatuko da.

Korrikak gauez aritzen denean izaten duen magia oso indartsua izaten da. Egia da haur txikiak

eta euren gurasoek ez dutela parte hartuko, ordu txikitik pasatzen delako. Dena dela, Bergararik goizaldean igaroko da, eta, agian, han bai parte hartuko dute, eskolara joan aurretik. Bigarrenez igarotzen

denean egubakoitzetik zapaturako gaua izango da, eta ziur nago sekulako festa egongo dela bailara osoan, eta parte hartzea ere halakoxea izango delakoan nago. Zirrara garria izango delakoan nago.

AEKtik, azken Korrikak kontuan hartuz eta datorrenari begira, ze balorazio egiten duzue?

Balorazio oso positiboa egiten dugu; izan ere, badakigu debagoiendarrak bailaratik kanpo ere joaten direla Korrika bizi-


tzera, eta ekarpen ekonomikoak ere egiten dituzte hemendik kanpo. AEK-k Korrikatik ateratzen duen dirua ezinbestekoa du bizirik jarraitzeko. Debagoieneko AEKn, esaterako, hamar irakaslek dihardugu lanean, eta beste herri batzuetara eta enpresa batzuetara joaten gara ikastaroak eta eskolak ematera. Hau, lehen esan bezala, ezinezkoa litzateke Korrikatik jasotzen den diru gabe egitea.

Mezurik helarazi nahi al duzue AEKtik herritarrentzat?

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi ditugu, jendeak erakutsi duen borondateagatik eta egin dituen ekarpenengatik; ikaragarria izan da. Bestetik, debagoiendar guztiei Korrikan parte hartzeko gonbita egin nahi diegu, autoa pasatzen den unean hor egon daitezten, korrika ez bada, txaloka eta animoak ematen, baina parte hartu dezatela nahi duten moduan. Festa erraldoi bat izatea nahi dugu. Azkenik, Korrikaren aplikazioa jaistera ere gonbidatu nahi ditugu; bertatik une oro jarraitu ahalko da ibilbidea eta lekukoa nork daraman.



Ainhoa Arregi, Korrikaren Debagoieneko koordinatzailea. IÑIGO BARRENA



"Herrian oso ondo integratu naiz; esango nuke horregatik eman didatela aukera bikain hau"

SALOME DIAZ CANTO GATZAGAKO SORGINAK

Cadiztarra, Chiclana de la Fronterakoa da Gatzagako Sorginei egokitu zaien tartean lekukoa eramango duen ordezkaria. Bi urte eta erdi darama Leintz Gatzagan bizitzen eta dagoeneko "oso harreman ona" dauka herrikideekin. Sorginak emakume taldeko kide ere bada, eta taldekideek hari eman diote Korrikaren lehen

lerroan joateko pribilegioa Gatzagatik pasatzerakoan.

Senarrarekin batera dabil euskaltegian, eta bertan jakin du Korrika zer den: "Ideia oso originala iruditzen zait; nire familiari azaltzen diot nazioartean ere oihartzuna duela. Ilusio handia egiten dit ekitaldi honetan Sorginak ordezkatzek".



HASIER LARREA

Tropelaren buruan besoa altxata

Ardura eta pribilegioa da Korrikaren lekukoaren barruko mezua garraiatzea. Bailaran hainbat izango dira, Korrikalagun diren elkarte, erakunde, ikastetxe zein enpresen izenean, lekukoa eramango dutenak

Hasier Larrea Herrero ARRASATE

Berdin dio gau edo egun, hotz edo bero, busti edo lehor. Euskaldun guztiek itxaroten dute Korrikaren etorrera irrikaz, izan korrikalarien taldera batu eta mar txan jartzeko, edota espaloitik animoak emateko. Guztiak bihurtzen dira protagonista, baina badaude pertsona batzuk ekitaldiaren aurpegi izaten direnak minutu batzuetan. Errelebobokako lasterkarien keinua imitatzen sartzen dira eszenan, eta irribarrea ateratzen zaie segituan. Haiek dira euskararen aldarria mugiarazten dutenak, atzetik datozenen bul-tzada lagun.

AEKren proiektua diruz laguntzen duten kolektiboak ordezkatzeko dituzte, kilometroz kilometro euren alea jartzen

duten taldeak: hasi elkarteetatik, segi ikastetxe, udal eta enpresetara. Zorionez, asko dira Korrikak duen garrantziaren kontzientzia dutenak. Bailaran, urrunera joan barik, 140 elkarte bakoitza gehiagok erosi dute ibilbide zati bat; elkarrekin partekatuko dituzte Debagoieneko lurretan kokatutako 55 kilometroak.

Testigua euren eskuetan eramango duten lau elkartetako bost izendaturekin egon da GOIENA, ekitaldiarekin lotuta dauzkaten aldarreak eta ikuspuntuak zeintzuk diren jakiteko. Esan gabe doa ilusio handiarekin itxaroten dutela eguna, eta betiko gordeko dutela Korrikaren tropelburu izango diren unearen oroi-tzapena.

"Zuzendaritza batzordekook eramango dugu lekukoa, aurtengoa berezia baita elkartearentzat"

OLAIA ETXENASIA ETA AMAIA BEREZIBAR LORAMENDI EUSKARA ELKARTEA

Aretxabaletako kilometro-erosleen artean elkarte finkoa izaten da Loramendi. Aurten euskara elkarteak 30 urte beteko dituela eta, bertako kideek are eta ilusio handiagoz egingo diote harrera Korrikari. Urteurrena dela eta, testigua egungo zuzendaritza batzordeko bi kidek eramatea adostu dute aurten, eta Olaia Etxenasiak eta Amaia Berezibarrek eramango dute, "biok aldi berean".

Elkarte askotako ordezkarien eskuetatik pasako da lekukoa herriko erdigunean barrena, "baina hori ez da arazo izango, beste ekintza askotan bezala denon artean egiten dugulako Korrika", azaldu dute.

Etxenasiari ez zaio berria egingo ardura hori, beste aldi batzuetan egokitu zaiolako emakume taldeen edota guraso taldeen partez eramatea. Hala ere, nerbioak loratuko zaizkiola ez du ukatzen: "Gauetz izanda, urduritasun puntu bat izango dugu egunean zehar. Dena den, egun polita izango da, aurreko edizio bakoitza bezala, desberdina".



MIRARI ALTUBE



BERGARAN HARRO HERRI, EUSKARA ALDARRI



"2022an nire osabak eraman zuen lekukoa, eta aurten beste Garitaonandia batek: nik neuk"

JOSUNE GARITAONANDIA ELORREGIKO BIZILAGUNAK

Elorregiko Bizilagunen Elkartearen protagonista izango da Korrika Arrasate, Bergara eta Oñati arteko igarotzen denean. Aurreko edizioan lekukoa auzoko pertsona nagusi batek eramateko hautua egin zuten, eta aurten auzoko emakumeak izango dira elorregiarren ordezkariak. Horien artean, Josune Garitaonandia, zeinek baduen 22. eta 23. edizioen arteko lotura egiten duen istorio polita kontatzeko. "Nire osaba Anbrosiok eraman zuen testigua duela bi urte, bizikleta gainean; hark duen adinarekin, oso berezia izan zen egurrezko makila eramaten ikustea; aurten ohore hori, besteak beste, nik izango dut, eta asko pozten naiz", aipatu du.

Edonola ere, Korrikak "beti" egiten dio ilusioa: "Euskara harrotasunarekin mugitzen duen ekintza da, eta horrek bultzarazten zaitu. Lan handia dago herriz herriko antolaketan. Gure auzoa txikia izanik, bizilagunok kilometro bat erostea bada ahalegintxo bat, baina merezi du".



HASIER LARREA

"Zozketa bidez erabaki dugu nork eraman; sekulako pozarekin jaso dut niri tokatu izana"

OLATZ PEREZ ELGETAKO ESKOLA KOMUNITATEA

Elgetan eskolaren eta eskolako guraso elkartearen artean erosi dute kilometroa, eta, gurasoen artean lekukoa nork eraman erabakitzeke, interesa zutenen artean zozketa egitea adostu zuten. Eta Olatz Perez egokitu zaio: "Oso pozik eta ilusionatuta nago; ez nuen espero aukerarik izango nuenik. Badira 9 urte ezin izan diogula herrian harrerarik egin Korrikari, eta ziur nago gertakari handia izango dela asteazkenekoa. Nik ordu batzuk hartu ditut jai lanean, baina badakit elgetar dezentek eskatu dutela egun osoko jaieguna", azaldu du Eibarren irakasle jarduten duen Perezek.

Galdakoztarra da izatez, guraso erdalduen alaba, baina hori ez da eragozpen izan txikitatik euskal giroa xurgatzeko: "Betidanik parte hartu izan dut Korrikan, eta kontziente naiz oso mezu garrantzitsua zabaltzen duela; bide horretan nire ekarpen txikitxo egitea niretzat oso handia da, gutxi baikara lekukoa eramateko pribilegioa izango dugunak".



OLATZ PEREZ



arteman
KOMUNIKAZIOAREN ARTISAUAK



**Komunikazio
agentzia
ko-kreatiboa**

Pertsonentzat sortzen dugu.
Erakundeak hobetzen ditugu.

arteman.eus



Korrikako lekukoa eramatea Goienakideen artean zozketatuko dute

Eskoriatzan izango du kilometroa Goiena Komunikazio Taldeak, eta, bigarren edizioz jarraian, Goienakideen artean zozketatuko du Korrikako kilometroan lekukoa eroatea

Julen Murua Mesonero DEBAGOIENA Martxoaren 20an eta 23an igaroko da 23. Korrika Debagoienetik, eta, azkenekoz Korrika Debagoienetik igaro zenean gerta bezala, aurten ere Goiena Komunikazio Taldeak jarri du bere aletxo kilometro bateko lekukoa eramateko. Martxoaren 23an helduko da Korrika Eskoriatzara, 02:35 aldera, eta herriko lehenengo kilometroan egingo du lasterka Goienak; hain zuzen ere, Korrikako aurtengo ibilbideko 2241. kilometroan eramango du lekukoa, Eskoria-

tzan; Zarimutzen hasi eta Santa Kolunba ermitaraino.

Lekukoa, Goienakideen eskuetan Goienak kilometroa urtero erosten badu ere, aurreko edizioan hasi zen haren lekukoa Goienakideen eskuetan uzten. Aretxabaletan egin zuten lasterka orduan, eta aurreko urteetan Oñatin eta Bergaran ere izan ziren. Ohitura hasi berri horri jarraiki, aurtengo Korrikan ere Goienan urte osoan ekarpen ekonomikoa egiten duten Goienakideen artean

zozketatuko dute lekukoa eramatea, egindako ekarpen hori eskertzeko.

"Esperientzia paregabea"

22. Korrika berezia izan zen Goienan; izan ere, komunikazio taldeari zegokion kilometroko

BIGARRENEZ ZOZKETATUKO DUTE KORRIKAKO LEKUKOA ERAMATEA GOIENAKIDEEN ARTEAN

lekukoa hiru Goienakideek eramane zuten, lehenengo aldiz. Aurretik, Goienako langileak izaten ziren lekukoaz arduratzen zirenak, baina azkenengo edizioan lekukoa kideen eskuetara bideratu zuten. Kide gazteena eta zaharrena gonbidatu nahi izan zituen komunikazio taldeak, eta zozketa bidez erabakitakoa izan zen hirugarrena: Ane Iratzabal, oñatiarra; Maria Jesus Ibabe aretxabaletarra eta David Garcia eskoriatzarra izan ziren, hurrenez hurren, egun hartan Korrikako pankartaren aurrean atzetik zeukaten tropela gidatzen aritu zirenak.

Ordutik hona, bi urte igaro dira, eta "oroitzapen oso onak" dituztela adierazi dute hiru protagonistek; izan ere, Korrikako lekukoa eramatea "ez da edozer gauza" haientzat. Garciak, esaterako, Korrika beste era batera

ESKORIATZAN IZANGO DU KILOMETROA GOIENAK: AURTENGO IBILBIDEKO 2241.A, HAIN ZUZEN ERE

bizitzeko aukera izan zuela adierazi du: "Oso polita izan zen. Beti joan izan naiz tropelaren barruan, atzean, eta, azkenekoz, aurrean joateko aukera izan nuen, lekukoa eramaten. Horregatik hartu nuen parte zozketan, Korrika beste modu batera bizitzeko. Oso gustura aritu nintzen eta oso esperientzia aberasgarria izan zen niretzat". Maria Jesus Ibabe ere esku artean izan zuen Korrikaren lekukoa egun hartan, eta aretxabaletarrak dio "oso egun berezia" izan zela. Edozelan ere, aitortu du "hasiera batean oso urduri eta beldurrez" zegoela eta ez zuela bere burua "gai ikusten" bertan ateratzeko. Nolanahi ere, "ingurukoek lagunduta animatu" zen eta "ilusio handiz" eraman zuen lekukoa eskuetan Aretxabaletako erdiguneko kilometroan: "Lekukoa hartu nuenean beldur eta urduritasun guztiak alde batera utzi nituen eta han zegoen giroarekin eta animo guztiarekin primeran ibili nintzen". "Une hunkigarria" bizi izan zuen azkenengo edizioan Ibabe, eta, lekukoa eroaten ez badu ere, "aurtengo edizioan ere bertan" izango dela nabarmendu

23. korrika
HARRO HERRI
Irundik Baiharra
2024ko martxoaren 14tik 15ra

ARAMAIXO
bizi

ARAMAIXO EUSKARAREN ETA KORRIKAREN ALDE!

Bergara •
metagra
México • Group

Korrikaren eta euskararen alde!

23. korrika
HARRO HERRI
Irundik Baiharra
2024ko martxoaren 14tik 15ra



David Garcia, Monika Belastegi –Goienako presidentea–, Maria Jesus Ibabe eta Ane Irazabal lekukoa eramaten. GOIENA

du aretxabaletarrak. Ane Irazabal izan zen lekukoa eramaten hirugarrena; hain justu, orduko Goienakide gazteena izateagatik eramane zuen lekukoa. Ibaberen eskutik egin zuen Goienaren kilometroa Aretxabaletan eta lekukoa eskuz aldatu ostean

hunkituta agertu zen Irazabal. Bi urte geroago, oroitzapen onak besterik ez du oñatiarrak: "Aurrenekoz eramane nuen lekukoa Korrikan. Aurretik, sekula ez nuen izan horretarako aukera, eta eskaintza onartzea erabaki nuen; oso polita izan zen eta

merezi izan zuen. Ezagutzen ez nuen jendearekin egon nintzen eta giro paregabea bizi izan genuen. Gainera, lekukoa eroan ostean Maria Jesus Ibaberen ingurukoak eta Maria Jesus bera hunkituta ikusteak ni ere hunkiarazi ninduen".

Parte hartu Goienakideen zozketan!

Bigarrenez jarraian, Goienakideen esku egongo da Goienaren Korrikako lekukoa eramatea. Duela bi urte, David Garcari egokitu zitzaion lekukoa eramatea, zozketa bidez, eta harekin batera izan ziren Maria Jesus Ibabe eta Ane Irazabal kideak; orduko kide nagusienak eta gazteenak. Aurtengo edizioan ere Goienakideen artean egingo du zozketa Korrikako lekukoa eramateko. Hauxe dio Goienakideen dinamizatzaile Itziar Larrañagak: "Oso esperientzia aberasgarria izan zen duela bi urtekoa, eta aurtengo ere errepikatzea erabaki dugu". Hauek dira zozketan parte hartzeko jarraitu beharreko urratsak.

Jarraibideak

- *Goiena* aplikazioa deskargatu.
- *Goienakide* atalaren barruan zozketen atalean sartu.
- Korrikako lekukoa eramateko zozketan parte hartu.

Zozketan izena emateko epea irekita dago dagoeneko, eta Goienaren kilometroan lekukoa eramane nahi duen pertsona orok martxoaren 19ra arte izango du zozketan parte hartzeko aukera. Zozketa egin ostean, irabazlearekin jarriko da kontaktuan Goiena Komunikazio Taldea.



Zu hemen zaude.
goiena

@cenarro
cold forming specialists

Euskararen eta Korrikaren alde!

23.korrika

VITALDENT
ZURE AHOA DA GARRANTZITSUENA

23.korrika
HARRO HERRI

200€
-ko deskontua* zure hortzetako tratamenduan

ARRASATE
Otalora Lizentziaduna kalea 1
943 06 03 22

"Lehen ez zitzaidan gustatzen jendaurrean barre egitea, orain ez dago GELDITUKO nauenik".

*200 €-ko deskontua 1500 €-tik gaila tratamenduetan. 2024/03/01etik 2024/04/30era arte (biak barne) kontratatutako tratamenduetarako bali duen sustapena. Ez da metogamia beste deskontu eta sustapenekin. Konbultatu sustapenari atxikitako linkak vitaldent.com webgunean. Osasun-erregistro zenbakiak: CS10715. RPS 43-2.

Aplikazioa, komunitatea sortzeko helburuarekin

Estreinakoz garatu du Goiena jabe den Batura Mobile enpresak Korrikako aplikazioa. Bertatik zuzenean jarraitu ahal da Korrika eta momentu bakoitzean ikusi ahalko da non dagoen eta zeinek daraman lekukoa. Komunitatea sortzeko asmoz ere egin dute

Amaia Txintxurreta Guridi ARRASATE Aurrez ere Korrikak eduki izan du aplikazioa, baina aurten lehengo aldiz garatu du Goiena parte den Batura Mobile enpresak. "AEK-k azaldu zigun euren estrategian aplikazioak, euskarri digitalak, garrantzi handia izatea nahi duela, eta gura izan dute Korrikarako aplikazioa sortu, ez bakarrik Korrikako egunetarako, baizik eta gerora ere komunitatearekin harremana sortu eta bidean egingo diren laguntzaileekin hartu-eman izateko", adierazi du Batura Mobile enpresako Gotzon Artzelusek. Aplikazioa, beraz, ikuspegi horrekin garatu dute.

Otsailean aurkeztu zuten eta atzora arte Korrika hasteko atzera kontaketa ikusi ahal izan da. Orain, furgoneta gailu bat daramate, hain justu ere, aplikazioaren bitartez edozein herritarrek ikusi ahal izan dezan Korrika non doan eta nork daraman testigua.

Laguntzaileen atala

Garrantzi handia daukan beste tarte bat laguntzaileen atala da. Bertan, esaterako, laguntzaile



Aplikazioa deskargatzeko, eskaneatu QR kode hau telefonoarekin.

direnek aukera daukate hainbat zozketatan parte hartzeko. AEK-tik komunitatea sortu eta horiek mimatu gura izan dituzte, eta horretarako sortu dute aplikazio berri hori. Izan ere, Korrika amaitzen denean, aplikazioak bizirik jarraituko du.

Erronka

Urtebete behar izan dute aplikazioa sortu eta garatzeko, eta Artzelusek esan du eurentzat erronka handia izan dela. Hain zuzen, gaineratu du euskarazko aplikazioak ez direla hainbeste eta Batura Mobilek dezente daukela garatuta: "Esaterako, *Itzuli* neuronalaren aplikazioan guk



Batura Mobile enpresako Gotzon Artzelus, telefonoan aplikazioa erakusten. A.T.

parte hartu genuen, *Elhuyar* hiztegiarenean ere geu gabiltza, *Korrika*-n ere bai... Ez daude euskarazko aplikazio asko mugikorretarako, eta ildo horri jarraitzeko guretzako oso garrantzitsua izan da. Lantaldeak

ilusio handiarekin hartu du proiektua eta ikusten ari gara deskargak gehituaz doazela Korrikako egunak gerturatu ahala". Orain, herritarrak gonbidatu dituzte aplikazioa deskargatzera eta erabiltzera.

EROSKI
ARRASATE

Gu ere Korrikaren eta euskeraren alde!

23.korrika
HARRO HERRI

aretxarte
MERKATARI ELKARTEA

Aretxabaletako merkatariak euskaraz, gu ere Korrikaren alde!

23.korrika
HARRO HERRI
Irudik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATUETZA ETA KONSUMO SAILA DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

Euskal kultura eta historia iruditerian

Arteman komunikazio agentziak landu du, hirugarrenez, Korrikaren leloa eta iruditeria. Urte eta erdiko lana izan da eta euskal kultura eta historiaren iruditeria kolektiboan inspiratu dira aurtengo. Gustura daude herritarrek egin dioten harrerarekin

Amaia Txintxurreta Guridi ARRASATE Hirugarren urtez diseinatu du Goiena parte den Arteman komunikazio agentziak Korrikarako iruditeria. Lan horretan ibili dira Garazi Berrizbeitia, Iban Galan eta Gorka Zubizarreta diseinatzaileak. Baina iruditeria bakarrik ez, leloa ere eurek sortu dute; Zubizarretak eta Asier Lekuek, zehazki.

Prozesuaren hasiera

Urte eta erdi inguru behar izan dute prozesu guztia aurrera eramateko. Lehenengo, *Harro herri* leloa sortu zuten; honela azaldu du Zubizarretak: "AEK-koek zehazten digute helburu xedea



Garazi Berrizbeitia, Gorka Zubizarreta eta Iban Galan diseinatzaileak. ARTEMAN

zein izango den, norengana bideratuko den hurrengo Korrika eta zein mezu orokor nahi duten helarazi. Eta horren bueltan hasten gara lanean; leloa sortzea izaten da lehen lan potoloa. Ideia zaparrada batzuk egiten ditugu lehenengo, hitz-jokoekin hasten gara, eta sorkuntza fase oso polita izaten da hori". Behin leloa zehaztuta, irudi proposamenak lantzen hasi ziren.

Iruditeriaren ezaugarriak

Honela deskribatu du Zubizarretak aurtengo iruditeria: "Aurtengo inspiratu gara euskal kultura eta historiaren iruditeria kolektiboan. Hor hainbat elementu jarri ditugu: ekarri ditugu, adibidez, Pablo Picasoren *Gernika*-ko iruditeriaren zati batzuk; ikonografia aldetik, Jose Luiz Zumetaren elementu batzuk erabili ditugu; Mikel Laboaren iruditeria ere sartu dugu; eta baita beste hainbat atal gaurkotasunetik gertuago daudenak. Adibidez, Irulegiko Eskua. Horiez gain, agertzen dira Korrikarenak diren hainbat elementu: lekukoa, petoa eta furgoneta. Eta bukaeran

saiatu gara atzeko plano alai baten bidez festa iradokitzen duen irudi koloretsu bat egiten, gura duena konpromisoz eta ilusioz etorkizunera begira dagoen herri harro baten irudia sortu", adierazi du Gorka Zubizarretak. Behin betiko irudi hori zehaztutakoan, hainbat euskarritara egokitu dute.

Egindakoarekin pozik

Korrikaren spota ere eurek egin dute: "Behin hurrengo Korrikarako leloa eta iruditeria aurkeztu eta gizarteratutakoan, alde batetik, lasaitasuna hartzen duzu, eta, bestetik, jakin nahi duzu zer esaten den sarean eta kalean. Urduritasun puntu bat egoten da, eta harrera aurtengo inoiz baino hobea izan da. Umetatik ilusioz bizi izan dut Korrika, eta erronka potoloa izan da", adierazi du Zubizarretak.

LELOA SORTZEA IZAN DA ARTEMANEOEN LEHEN LAN NAGUSIA; GERO ETORRI DA IRUDITERIA SORTZEA

23.korrika

HARRO HERRI

Inundik Balonarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

Ab

ARRASATE BERRIA
HILETA ZERBITZUAK

San Andres auzoa.
Tel.: 943 79 22 19

AOT

ARETXABALETAKO
TANATORIOA

Basabe 6, behea.
Tel.: 943 79 22 19

Gu ere Korrikarekin!

WWW.FUNERARIAARRASATE.COM • TANATORIOA@GMAIL.COM

23.korrika

HARRO HERRI

Goizper Group
Elkarlanean garatzen

**Goizper-en ere euskaraz!
Gora Korrika!**

www.goizper.com



Korrikaren lekukoa eroan nahi duzu?



Goienak Korrikaren lekukoa eroango du martxoaren 23an, zapatua, 02:35ean, **Zarimutzeko bidegurutzean**.

Goienakide bazara eta Goienaren lekukoa eroan gura baduzu: **Goiena app**-eko zozketen gunean eman izena **martxoaren 19a baino lehen**.

Jarraitu Korrika Goienan

Martxoaren 20an Elosutik Elgetarainoko ibilbidearen berri *Goiena.eus*-en eta Goiena telebistan, 06:30etik aurrera.

Martxoaren 23an Leintz Gatzagatik Oñatirainoko ibilbidearen berri *Goiena.eus*-en eta Goiena telebistan, 02:00etatik aurrera.

Martxoaren 24an, Korrikaren amaiera Baionan, zuzen-zuzenean, Goiena telebistan eta *Goiena.eus*-en, 11:30etik aurrera.

Korrikaren ibilbide osoa, **martxoaren 14tik 24ra** arte, zuzen-zuzenean, *Goiena.eus*-en.

goiena^{''}
kide

Okm: batzen gaituen distantzia



"Elikadurarekin kartzela asko sortzen ari gara"

Udalak antolatuta, sukaldaritza osasuntsuari buruzko bi saio egingo ditu Olaia Blanco Azpirik Elgetan; eguaztenean egin zuen lehenengoa, eta oinarrizko kontzeptuak argitzeko saioa izan zen. Hamaika lagun daude izena emanda

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

"Zer da elikagai osasuntsu bat?". Galdera horrekin zabaldu zuen eguazteneko saioa elikaduran aditu Olaia Blanco Azpirik. Iritzi trukaketaren ostean, hainbat ondoriotara heldu ziren parte-hartzaileak: gertukoa, garai-koka, produktu kimiko barik sortua eta ahalik eta eraldaketa gutxien jasan duen hori da elikagai osasuntsua. Elikaduraren bueltan dauden joerei buruz ohartarazi zituen Blancok entzuleak: "Elikaduraren mundu honetan ere modak daude; negozio bat da. Sasoi batean, munduko beste puntatik ekarritako zazpi gogi jaten nituen egunean. Hemengo masustek oso antzerako elikagaiak dituzte".

Osasuntsu elikatzeari buruz aritu zen, eta nork bere gorputzari erreparatzeari buruz. "Txokolat-ontza batek on egiten dila, ba, aurrera. Ez gara makinak; elikadurak lotura estua du emozioekin, eta antsietatea sortzen digun elikadura mota bat ez da ona. Gure gorputza, gainera, eraldatzen doa, eta onartzea da onena. Ezin gara berdin elikatu adinaren, zikloaren edota urte sasoiaren arabera".

Sendatze prozesuetan dauden gaixoen kasua alde batera utzita, debekurik ez ezartzearen



Olaia Blanco Azpiri tailerra egiten, eguaztenean, Intxorta elkartearen. L.Z.L.

"BIAK NAHASTEN DITUGU, ETA, ESTETIKAREN IZENEAN, OSASUNA GALTZEN ARI GARA"

aldekoa da Blanco, eta jaten denarekin disfrutatzearen aldekoa. "Elikadura plazer handia da. Gainera, askotan nahasten ditugu osasuna eta estetika, eta, estetikaren izenean, osasuna galtzen ari gara".

Gomendio argiak

Lapikoan oinarritutako sukaldaritza aldarrikatzen du Blancok. "Osasuntsu kozinatzeke denbora behar da; eta bariatua jateko, gehiago". Ondo elikatzeke giza-kiak behar dituen bost makro-nutrienteei buruz aritu zen: karbohidratoak, proteinak, gantzak, bitaminak eta mineralak. Kolesterolari, D eta B12 bitaminei buruz eta gero eta ugariagoak diren digestio-arazoei buruz ere aritu zen. Mikrobiota zaintzearen garrantziaren inguruan ere egin zuen berba.

Teoriatik praktikara datorren astean

Datorren eguaztenean egingo dute sukaldaritza osasuntsuari buruzko bigarren eta azken saioa. Sukaldean egingo dutela azaldu du Blancok, eta hainbat errezeta prestatuko dituztela, hala nola azenario-patea, lihozko hirukitxoak, garbantzu-eta barazki-opiltxoak, tzatziki-eta jogurt-saltsa eta madari- eta okan-tartaleta. Intxorta elkartearen izango da, 17:30ean.



Hamaika lagun Blancoren azalpenak entzuten Intxorta elkartearen. L.Z.L.

23. KORRIKA

Korrika Txikiarekin abiatuko dira Korrikaren aldeko ekintzak

Eguaztenean lekukoa eramatekoak diren eragileek plazan jarriko den mahaian jaso dezakete materiala

L.Z.L. ELGETA

Atzo abiatu zen 23. Korrika, Irundik, eta eguazten goizean helduko da Elgetara. Jalotza parean hartuko dute lekukoa elgetarrek, 08:30ean. Elgetako Korrika batzordea lanean da urtarrila ezkerero. Gaur arratsalderako antolatuta dauden ekintzetan parte hartzeko dei egin diete elgetarrei.

Eskolako ikasleek, irakasleek eta familiek Korrika Txikia egingo dute, 15:00etan. Plazan amaituko dute ibilbidea, 16:00etan. Batzordeak informazioa emateko eta banderatzako saltzeko mahaia jarriko du ordurako. Eguaztenean lekukoa eramatekoak diren eragileek bertan jaso dezakete materiala.

Liburutegiko ipuinak (17:30ean), erretiratuendako txistor-jana Ozkarbin (18:00etan), Korrikaren



Korrika, Elgetan, 2015ean. GOIENA

aldeko argazkia (19:15ean) eta Ad Libitum txaranga (19:15ean) daude iragarrita Korrika Kulturala girotzeko (Korrikarekin lotutako gainerako informazioa, 17-32 orrietan).

342 korrikalari bihar Ahuntzak Trail lasterketan

Intxortako Ahuntzak taldeko kideek prest dute III. Ahuntzak Trail mendi lasterketa. 09:50ean abiatuko dira gazteak (22) eta 10:00etan 16 urtetik gorako korrikalariak (320). Antolatzaileek 13:30erako iragarri dute sari banaketa, plazan (Ikus 41. orria). 18:00etan, Elgetako BabesGabe musika taldearen kontzertua eta DJ saioa izango dira.

Intxortako Lehoiek bidaia antolatu dute Sevillako finalera

Athleticzaleen lagunarteak hiru eguneko bidaia antolatu du apirilaren 6an Sevillan jokatzeko den Errege Kopako finala ikusteko. Gasteiztik abiatuko da autobusa, eta Sevilla erdigunean dagoen ostatu bat dute erreserbatua. Prezioa 280 euro da pertsonako. Azken plazak gelditzen dira. Argibideak: intxortakolehoiak@hotmail.com.

OHARRAK

Podologoa erretiratuendako

Martxoko kontsulta astelehenean izango da, hilak 18. Txanda hartzeko, deitu 669 99 81 65 zenbakira (Maite Elkoro).

Mendi irteera eta sagardotegia hilaren 24an

Kantsatzeke mendi taldeak Anboto eta Orixol aldera egingo du 2024ko lehen irteera. Sagardotegirako plana ere egin dute. Zabalik da izen-ematea.

Gipuzkoako hiru txirlo bola-joko txapelketa

Zapatuan emango diote hasiera aurtengo txapelketari, Azkoitiko Floreagan. Hirugarren tiraldia Elgetan jokatu da, apirilaren 6an, 23:00etan. Gorde data!

Liburutegiko sotoa utzi eta azokan jardungo dute

Jardun euskara elkarteak udal liburutegiko sotoko bulego zaharra laga eta Oxirondoko azokako Txiki-Txoko ondoko lokalera pasatuko da ahal bezain pronto. Hitzarmena urtez urte berri ahalko da, hamar urtera arte; bi aldeak pozik daude akordioarekin

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA
Jardunek lokal berria izango du aurrerantzean Oxirondo azokako goiko pisuan, asteon Udalarekin sinatu duten hitzarmenak zehazten duenez. Hala, udal liburutegiko sotoa atzean utzi eta Oxirondoko lehen solairuko gune librearen ondoan dagoen lokalera lekualdatuko dira.

Otsailaren 26ko osoko bilkuran aho batez onartu zuen udalbatzak Jardun elkartearen lekualdaketak. Hitzarmena urtez urte berri ahalko da, hamar urtera arte; betiere, bi aldeak ados baldin badaude eta Bergaran euskara sustatzeko jardueretarako erabiltzen bada. Jardunek lokal hura elkartearen bulegoetarako erabiliko du, nagusiki, astelehenerik egubakoitzera, goizez eta arratsaldean. Jardunek bere gain hartuko du lokalera orain dagoen bezala mantentzeko egin beharreko gastuak egiteko konpromisoa, eta horien berri eman beharko die aurrez Udalari. Horrez gain, argindarraren gastu proportzionala ere hartuko du bere gain Jardunek. Bestalde, eraikinak dituen zergen gastuak Udalaren gain joango dira.

Jardun, pozik eta eskertuta

Euskara zinegotzi Eider Usobiagak erabakiaren garrantzia azpimarratu du: "Elkarteei ahalik eta baliabide onenak ematen saiatzen gara, eta hitzarmen hau horren erakusle da; izan ere, liburutegiko sotoa ez zen elkarre batentzako lekurik aiposea. Bergaran euskarak merezi duen presentzia lortzeko bide-lagun garrantzitsua da Jardun, eta Udaletik laguntzen jarraituko dugu". Oxirondoko lokalak askoz baldintza hobea izango ditu bai Jardunentzat eta baita hara joango diren herritarrentzat ere. Beraz, Jardunetik oso pozik daudela diote, eta Udalari eskerrik eman dizkiote irekitako ate berri horrengatik.



Gorka Artola, Miren Etxeberria eta Eider Usobiaga, asteon. BERGARAKO UDALA



Jardunen bulego zaharra liburutegiko sotoan, martxo hasieran. J.B.L.

Liburutegiko sotoan 20 urtetik gora

1990eko maiatzaren 17an sortu zen Jardun, UNEDen egindako batzarrean. Euskara elkarteak lehen langilea Errotalde jauregiko eta gaur egungo udal liburutegiko sotoan hasi zen lanean, 1990eko irailean, han kokatu zutelako hasieran *Berrigara* aldizkaria.

Ondoren, Jardun Masterreka kalean zegoen lokal batera aldatu zuten hilabete batzuek, eta handik kartzela zaharrera eroan zuten. Han urte batzuk egin zituzten, baina gaztetxearen eraikina berri zutenean udal liburutegiko sotora itzuli ziren... gaur arte. 20 urtetik gora egin ditu Jardunek sotoan, batere aproposa ez den bulegoan. "Urte luzez eskatu dugu lokal berria, eta Udalak borondatea izan arren ez zuen toki egokirik aurkitzen guretzat. Itxaropena galtzen hasi eta beste aukera batzuk bilatzen ari ginela suertatu da aukera hau, eta oso pozik gaude", diote.



NIRE USTEZ

MAMADOU SARR DIAME


Bizilagunak

Valentziako suteak barrenak mugitu dizkit eta hausnartzera eramane nau. Bizilagunen garrantziaz ohartzen al gara? Bergaran bizi naizetik hainbat etxetan bizi izan naiz: Boluan, Simon Arrietan, Artzamendin, Matxiategin... Bizilagunekin gertutasuna bilatzen saiatu naiz beti, Senegalen bizilagunak familia sentitzen baititugu. Seme-alabek maiz galdetu izan didate ea zenbat aitona-amon dituzten; errespetuagatik bizilagun nagusiei horrela deitzen baitiet. Pixkanaka beraiek ere amama Kontxita, amama Begoña edo aitita Julen ahoan. Senegalen bizitzako momentu garrantzitsuenak partekatzen ditugu bizilagunekin: jaiotzak, ezkontzak, heriotzak... Bizilagunak dira gure berri duten lehenak. Beharren bat dugunean ere beraien partetik jasotzen dugu laguntza. Faltan igartzen dut komunitate sentsazio hori, elkar agurtu baino harago doan harremana.

Bila ditzagun bizilagunekin egon eta konpartitzeko momentuak. Partekatu ditzagun ardurak eta pozak. Sentitu ditzagun bizilagunak familia, gure seme-alabek ere hala sentitu ditzaten.

600 zuhaitz landatu dituzte Itsasmendiko herri-lurretan

Hilaren 10ean Itsasmendiko herri-lurretan 600 zuhaitz landatu zituzten. Kukurbasok deituta, 50 bat lagun elkartu ziren Gorlara bidean "etorkizuneko kolore guztietako basoa" ereiteko. Bestalde, hilaren 12rako, *Lurzorua eta ura: binomio banaezina* hitzaldia antolatu zuten Olaso Dorrean, Nahia Gartzia edafologoarekin eta Ane Zabaleta hidrogeologoarekin.



Landaketa Itsasmendin. GOIENA

OHARRAK

Bueltan dator Bergara Oinez ekimena

Martxoaren 21ean egingo dute 2024ko Bergara Oinez barruko lehen ibilaldia; Agorrosinen elkartuko dira, 10:00etan. Aurten honako eragile hauek hartuko dute parte: Jardun, Pol-Pol, Aranzadi Ikastola, Mariaren Lagundia, San Martin eskola, Osasun Publikoa, Duintasuna, San Joxepe, BPXport, Aspace, Bergarako anbulatorioa, Goyeneche fundazioa eta Udala.

Iruñeko Erresuma: Nabarralderen jarduerak

Nabarraldek, Udalak eta Olaso Dorrea Fundazioak zenbait ekintza antolatu dituzte aurten Iruñeko Erresuma martxan jarri zela 1.200 urte bete direla gogorarazteko. Hilaren 11n *Habitat: ezkutatu diguten historia* erakusketa jarri zuten Olaso Dorrean eta biharko deitu duten bisita gidatuarekin (11:45) amaituko dute.

Odol emaleak: hurrengo ateratzerako deia

Martxoaren 20an izango da, Arin zentroan, 16:30etik 20:30era.

Senegal ezagutzeko aukera: plaza mugatuak

Ndank Ndank-ek Senegalera bidaiari antolatu du azaroaren 7tik 16rako, eta izena eman daiteke: ndank.ndankelkarkea@gmail.com edo 636 16 30 10. Argibide gehiago: www.ndankndank.org.



Promes eta nagusien mailletako finalistak, BKEko pilota saileko ordezkariakin. J.B.L.

Apezetxea eta Zubizarreta izan dira abilenak kaiolan

Soraluce lau eta erdiko pilota txapelketan Beñat Apezetxea eta Beñat Zubizarreta izan dira txapelkun promes eta nagusien mailetan, hurrenez hurren; bi finaletan maila ona erakutsi zuten pilotariak, tanto ederrak ikusi ahal izan zituzten frontoira joan ziren pilotazaleek

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Soraluce lau eta erdiko pilota txapelketa finalak jokatu ziren martitzenean udal pilotalekuan, promes eta nagusien mailetan. Lehen finala promes mailakoa izan zen, Oiartzungo Oiarpe taldeko Oihan Etxeberriaren eta Goizuetako Umore ona taldeko Beñat Apezetxearen artean.

Apezetxea-Etxeberria: 22-11

Apezetxeak hobeto hasi zuen finala eta abantaila esanguratsua hartu zuen sakeari esker, baina Oihan Etxeberria saiatu zen Apezetxearen garaipena ahalik eta gehien konplikatzen; lan erdiak egin ahal izan zituen bakarrik, Apezetxeak 11 tantotan utzi zuen eta; aipagarria da Apezetxeak 11 tanto egin zituela jarraian. "Partiduan sartzea kostatu egin zaio Oihani [Etxe-

berria] eta horregatik abantaila polita lortu dut. Gero, partiduan sartu eta asko sakatzen hasi denean, tanto mordoxka bat egin dit, 10-14 jartzeraino. Argi dago lau eta erdiko armarik inportanteenetakoa sakea dela... Horregatik, sakea berreskuratu eta azken txanpan min handia egin diot; hortxe joan da partidua. Txapela eskaini nahi diet egunerokoan laguntzen didaten senitartekoei eta lagunei".

Zubizarreta-Hormaetxe: 22-13

Nagusien mailan Lezamako pilota taldeko Oier Hormaetxe eta Lazkaoko Lapke taldeko Beñat Zubizarreta aritu ziren nor baino nor gehiago. Zubizarreta aritu zen hobeto partidua orokorrean hartuta eta merezimenduz gailendu zitzaion Hormaetxeri, 22-13. Hormaetxek egin

zituen jaialdiko tantorik ederrenak, baina Zubizarreta izan zen erregularragoa. Hala ere, aitortu zuen ez zela final erosoan izan: "Nahiko deseroso egon naiz partiduan zehar. Hasieran, aban-

taila polita lortu dut, uste dut sakearekin asmatu dudala, baina Oierrek [Hormaetxe] sakea hartu duenean min handia egin dit. Partiduaren erdialdean berriro lortu dut tanto batzuk nahiko jarraian egitea eta hor erabaki da finala. Jokoan zehar beti aurrera egiten zidan Oierrek eta horrek deseroso egotera eraman nau. Hala ere, defentsako lan nahiko ona egin dut eta hori izan da beste gakoetako bat. Gaurko [martitzeneko] partidarekin ez naiz oso gustura geratu, baina txapelketarekin, oro har, pozik nago. Txapela beti nire atzean daudenei eskaini nahi diet; bereziki, familiari eta lagunei".

Maila handia eta harrera ona

Txapelketari zor, pilotariak maila handia erakutsi zuten eta kaiolan ohikoa denez tanto gehienak motzak bezain biziak izan ziren. Horren erakusle da promes mailako finalak 35 minutu iraun zuela eta nagusien mailakoak, berriz, 33 minutu. Emozio handirik ez zen izan txapela nork irabaziko baina martitzen baterako frontoia

zuen itxurarekin harro egon daiteke Bergara Kirol Elkarte-ko pilota saila. "Finaletan zein txapelketa osoan maila ona izan dugu frontoian. Finalak aintzat hartuta zazpi jaialdi izan ditugu eta pare batean, beharbada, ikusle gutxi egon dira Realak jokatzeko zuelako, baina bereziki finalean harmailak oso itxuroso egon dira. Oso pozik gaude".

Aranburuk gaineratu duenez, txapelketan parte hartu duten pilotari guztiek erakutsi dute maila ona eta antolakuntzatik bereziki ekarri nahi izan dituzten pilotariak konpromisoa erakutsi dute Soraluce lau eta erdikoan parte hartzeko. Dioenez, maila hori mantentzeak eta ikusleen aldetik izan duen harrerak indarra ematen die txapelketa berezi hori antolatzen jarraitzeko.

PILOTARIEN MAILA ETA TXAPELKETAK IZAN DUEN HARRERA IKUSITA, POZIK DAUDE PILOTA SAILEKOAK

Bakarrizketak egiten ikasteko saioa hilaren 25ean Zabalotegin

Jardunek *Nola egin umorezko bakarrizketa bat?* tailerra antolatatu du martxoaren 25erako Zabalotegi aretoan, 18:00etatik 20:00etara. 2008an edo lehenago jaiotakoei zuzendutako ikastaroa da, Asier Kortabarria *Moto* edo *Asier K*-k gidatuko duena. *Stand up* deritzon tailerra da, eta umorezko bakarrizketa bat idatzi eta antzetzeko behar diren gai-

tasunak lantzea du helburu; honako galdera hauei erantzuten saiatuko da *Asier K*: *Nola aurkitu pertsonaia? Zeri buruz hitz egin? Nondik atera ideiak? Nola osatu txiste bat?*

Izena emateko azken eguna martxoaren 21a izango da: Jardun euskara elkartearen udal liburutegiko sotoko bulegora joanda, 943-76 36 61 edo 605 71 24 69 telefono zenbakietara deituta edo *jardunkultura@topagunea.eus* helbide elektronikora mezua bidalita.

DEBAGOIENKO

PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
blasaga@icagi.net

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE
Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA
Araba ibilbidea 20, behea
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE
Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.



Mendeurrenako ekitaldi nagusia izan zen 2023ko azaroaren 11n orfeoia udal pilotalekuan eman zuen kontzertua. I.S.

Mendeurren az gozatuta, kantatzen segi nahi dute

laz Bergarako Orfeoia 100 urte bete zituela ederto ospatu ostean, ohiko martxari helduko diote, eta hurrengo zita bihar izango da, Mariaren Lagundiko elizan (19:00), Orfeoia Gaztearekin batera; kontzertua bazkideei eskerrak emateko da, baina herritar orori zabalik

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Iazko mendeurren bereziaren ostean, Bergarako Orfeoia berriz helduko dio ohiko martxari, eta, hain zuzen ere, 2024ko zita garrantzitsuen artean kokatu dute bihar, martxoak 16, Mariaren Lagundiko elizan Orfeoia Gaztearekin batera emango duten kontzertua (19:00). Urtero

legez, Orfeoia bazkideei eskerrak emateko emanaldia izango da, baina antolatzaileek argi utzi nahi izan dute edozein herritar gonbidatuta dagoela emanaldiaz gozatzera. "Kalean herritarren batek galdetu digu ea Orfeoia bazkideentzat bakarrik den kontzertua, eta ez da horrela. Bazkideei eskerrak emateko eskai-

ni ohi dugun kontzertua izango da, baina edozein herritar etorri daiteke; zenbat eta entzule gehiago egon, hobeto", adierazi du Orfeoia kide Eva Agirrek.

Eta Agirrek gaineratu du "oso gogotsu" daudela biharko kontzertura begira: "Urtarrila ezkerero ari gara biharko kontzertua prestatzen, eta, behin men-

deurren pasatuta, oso gogotsu gaude Orfeoia ohiko martxara bueltatzeko".

Pieza elizkoiak nagusi bihar

Biharko kontzertuari Ave Virgo Sanctissima izenburua jarri dio Orfeoia zuzendari Aitor Biain oñatiarrak. Izan ere, abesti elizkoiak izango dira nagusi egitarauan, garai askotariko piezak; honako hauek iragarri dituzte egitarauan: *Ave Maria; Hodiae Christus Natus est; Ave Verum Corpus; Ave Maris Stella; Ave Verum; eta Hör mein bitten, Herr!* Orfeoia Gazteko zuzendaria Nerea Parra izango da, eta piano-jolea, Anabel Henao. Orfeoia Nagusia, berriz, Aitor Biain izango da zuzendaria eta Eli Mendiaraz piano-jolea; egitarauari dagokionez, abesti erlijiosoak izango dira protagonista.

Hurrengo zita aipagarriak

Agirrek adierazi duenez, Orfeoia Zuzendaritza Batzordea ere berritu egin dute, eta Begoña Lasagabasterrek hartu dio lekua Kontxi Laskuraini presidenten moduan. Bestetik, 2024an zein beste hitzordu aipagarri izango dituzten galdetuta, Agirrek maiatzaren 5a aipatu du: "Gipuzkoako Federazioak antolatutako Kukubiku ekimenaren bigarren diskorako hiru abesti grabatuko ditugu Orfeoitik".

Hurrengo zita aipagarriak lotura zuzena du Bergarako Musika Eskola aurten ospatzen ari

den 40. urteurrenarekin. Musika Eskola ekainaren 1erako ari da prestatzen udaberriko jaia, eta bertan parte hartuko duen eragileetako bat izango da Orfeoia. Eta, horrez gain, ekainaren 29an kontzertu sinfonikoa eskainiko dute San Pedro elizan.

Mendeurren "oso berezia"

Agirrek aitortu duenez, iazko urte "oso berezia" izan zen Bergarako Orfeoiarentzat. Ospakizun-ekintza bereziak egin zituzten; tartean, erakusketa bat Aroztegi aretoan, baina zita garrantzitsuen azaroaren 11ko *100 urte kantuan* ikuskizuna izan zen (Argazkian), zalantza barik. Udal pilotalekuan egin ohi diren ikuskizun handien formatuari eutsiz, abeslarien, musikarien eta dantzarien artean 207 lagunek hartu zuten parte. Orfeoia ibilbidearen laburpena ere egin zuten, bideo eta argazkiekin, eta Orfeoia 1923an sortu zenetik izan dituen mugari nagusien berri eman zuten. Orfeoia sei zuzendariak ere omendu zituzten, eta egun bizirik dauden Cristina Larrañagak eta David Azurzak pieza bana zuzendu zuten.

ORFEOIA AITOR BIAINEK ZUZENDUKO DU; ORFEOI GAZTEKO ZUZENDARIA NEREA PARRA IZANGO DA

Elortzaren 'Animeta' erakusketa irekiko dute gaur Aroztegin

Jaiotzez tolosarra izan arren, Bergararekin "lotura berezia" du Jon Elortza; martxoaren 31ra arte ikusi ahalko da

J.B.L. BERGARA

Gaur irekiko du Jon Elortza Areizaga (Tolosa, 1980) artistak *Animeta* erakusketa, Aroztegin, martxoaren 31ra arte. Kalean egindako askotariko artelanei ateratako hogeitabi argazki eta tamaina handiko hamasei koadro inguru erakutsiko ditu Elortzak; abstrakzioa da nagusi haren artelanetan. Dio Elortzak "berezia" izango dela Bergaran erakustea: "Lehen aldia izango da Bergaran erakutsiko dudana, eta berezia izango da. Aita Bergaran jaio zen, eta, gainera, beti etxean izan



Elortzaren kaleko artelanetako bat. B.U.

dugun aitona-amonen koadroa Simon Arrietak margotu zuen; erretratu horiek ere erakutsiko ditut Aroztegin". Gaur irekiko dute erakusketa, 19:00etan.

Duela 30 bat urte hasi zen

Artista moduan ibilbide luzea darama Elortzak, 90eko hamarkadaren erdialdean egin zituen eta lehen grafiti-piezak, eta horien arlo nabarmenena da nola bakanzen dituen hirigunearen barruko uneak, ekintzak, istripuak, legez kanpokoak...; betiere, muralismoaren eta grafitiaren herri-kulturatik hasi eta Euskal Herriko eskultura garaikidera arteko erreferentziak hartuz. Ezbeharetik, desordenatik abiatuta, modu ambiguoan eta ekoizpen etengabearen, ezezagunen argazkiak, pinturak eta bideoak sortzen ditu, besteak beste.


Inguma eta Aho Zakil Konekxion taldeek joko dute gaur (22:30)

Egubakoitzak Berreskuratzen ekimenaren barruan, punk-rock eta oi! doinuak izango dira protagonista gaur kartzela zaharrean (22:30). Oñatiko Inguma oi! taldeak herrikide duen Lehen Lerroa taldearekin batera atera berri duen *Bi ametsen artean* EPa aurkeztuko du, 2022an kaleratu zuten *Buruaz beste* diskoko abestiak ere joko dituen arren.

Boskote oñatiarrarekin batera, 2019an Zugarramurdin sortu eta Lapurdiko kideak ere badituen Aho Zakil Konekxion punk-rock taldeak ere joko du; hain zuzen, 2022an kaleratu zuten *Kisulabe* diskoko abestiak joko dituzte. Sarreraren prezioa bost euro da.

Herbehereetan egon dira Mariaren Lagundiko 44 ikasle

Ikasleen arteko elkartruke programaren barruan, Mariaren Lagundiko 44 ikasle eta hiru irakasle Herbehereetako Warnsveld hirian egon dira martxoaren 9a ezkerero, eta bihar, hilak 16, itzuliko dira Bergarara; hango herritarren etxeetan egin dute lo. Iazko urriaren 1etik 5era bitartean, Herbehereetako Warnsveld herritik etorritako 45 ikasle eta lau irakasle egon ziren DBHko 4. mailako Mariaren Lagundiko ikasleen familien etxeetan, eta elkarrekin hainbat ekintza egin zituzten: alkatearen harrera udaletxean, Bergara ezagutu, Laboratoriumera bisita, euskara ikasteko ikastaroa, Donostiara irteera....



**Hau da hau
desastria egin dotena.
Oin, baten batek konpondu
biherko dost hau.**



DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n

goienaOkmgida

Debagoiengan baldin badago,
hemen dago.



Goiena
Okmgidaren
eskaintza osoa.



Zubillaga auzoan dagoen Batuak enpresaren pabiloiko leihoetan laneko kamisetak eta kartela eskegita. AITZIBER ARANBURUZABALA

Epailearen ebazpenaren zain Batuak enpresan

Hartzekodunen konkurtsoan dago enpresa iaztik, eta joan den astean administrariak eta epaileak bilera egin zuten ELA sindikatuko kideekin, langileek jasoko dituzten kalte-ordainak zeintzuk diren zehazteko, eta epaiaren zain daude

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI
Ziurgabetasun egoeran egon dira Batuak enpresako langileak uda ezkerro; izan ere, uztailaren 19an azalpenik eman gabe joan ziren enpresatik jabeak. Hirugarren pertsona batzuen bitartez jakin zuten, ondoren, enpresa hartzekodunen konkurtsoan zegoela.

Hilabete batzuk geroago, erose bat agertu zen eta langileak normaltasun egoerara itzuli ziren, baina orduan konturatu ziren Gizarte Segurantzaren alta eman gabe zeudela. Abenduan eroslea desagertu egin zen, salmenta burutu gabe utzita eta langileak erregularizatzeke tramiteak egin barik. 2024aren hasieran atzeratutako soldata jaso zituzten arren, bi hilabete daramatzate kobratu barik eta lantegira egunero joaten, lanik ez duten arren.

Enpresa "bideragarria" da
ELA sindikatuko ordezkari Idoia Altunak Goienari azaldutakoa-

ren arabera, enpresa "bideragarria" dela azpimarratu du: "Enpresak jabeak izan dituen eta lana egon denean ikusi da hori". Eta borrokan jarraituko dutela aitortu du: "Enpresa bideragarria da eta halaxe ikusi da lana egon denean. Guk aha-lerin guztia egingo dugu langileek euren lanpostuak mantendu ditzaten, eta, hala ez bada, kalteak ahalik eta txikienak izaten saiatuko gara".

2017a ezkerro gorabeherekin
Gaur egun Batuak likidazioan badago ere, gorabeherak aspalditik datoz. 2017an, kudeatzaile aldaketa izan zuen enpresak, eta urtebete geroago, berriz, bazkide aldaketa jasan zuen.

BATUAK ENPRESA GAUR EGUN LIKIDAZIOAN BADAGO ERE, 2017AN HASI ZIREN ARAZOAK

Haiek euren soldata %20 igotzea erabaki zuten, baina ordutik aurrera gauzak "okertzen" joan zirela azaldu du ELAko ordezkari Altunak. 2020an langileen ordezkariari soldata %20 "jaisteko" eskatu zitzaizela ere gaineratu du ELAko ordezkariak, baina norbanako batzuk kenduta gehiengoak "ez jaistea" erabaki zuela azaldu du.

Langileen egoera salatzeaz gainera, enpresa bezeroak "galtzen" hasi zela aitortu du Altunak. 2023aren hasieran, berriz, aldi baterako enplegu-erregulazioeko espediente jarri zuten martxan Batuak-en, baina akordiorik lortu ez zutela gaineratu du ELAko ordezkariak. Ordutik aurrera "utzikeria" egon dela dio, gaur egun dauden egoerara heldu diren arte.

Epaia zain
Egunotan dira epailearen ebazpena jasotzekoak, eta datozen asteetan emango dute langileen ordezkariak emaitzaren berri.

23. KORRIKA

Askotariko kultura ekitaldiak Korrikari ongietorria egiteko

Xabier Ugarteri omenaldia, kantu-afaria, kontzertuak eta herriko kultura taldeen ekitaldi gehiago izango dira

Aitziber Aranburuzabala OÑATI
Santa Ana antzokian egingo dute, hilaren 21ean, 19:00etan, duela gutxi zendu den Xabier Ugarteren oroimen-ekitaldia. Zuzeneko musika -Ruper Ordorika, Ugarteren musika-bidelagun Eduardo Baranzano, Maribel Botanz eta Iraia Aizpuru eta Oñatiko abesbatza- eta Ugartere protagonista den *Entzuteko lan isila* ikus-entzunezkoa izango dira. Hara joateko, aurrez gonbidapenak hartu behar dira kultura etxean, 16:30etik 20:30era.

Korrika Txikia egubakoitzean
770 ikasle ibiliko dira 15:00etatik 16:00etara Korrika Txikian. Ondoren, Gauargi taldearen emanaldia izango da, Foruen plazan; gero, Oñatz dantza taldeak sorgin dantza egingo du.

Kantu-afari herrikoia izango da gaztelekuan; Txokolateixan daude, martitzena arte, txartelak salgai. Gaztetxearen eskutik, 20:00etan Skapaie elektrotxaranga kalean eta DJ Watxas eta DJ Bass&Dere Antixenean ondoren.



NIRE USTEZ

HIDE DOHINO

'Onki xin gurera'

Txantxiku Ikastolan martxan jarri zen *Onki xin gurera*. Jatorriz Arrasateko ikastolan hasitako proiektu horrek kanpotik etorritako jendeari laguntza ematen ikastea eta euren egoera ezagutzea dauzka helburu.


Hasiera ematera joan nintzen, eta, azken egunean, ikasleen aurkezpena entzutea ere bai. Aupa zuek! Japoniako ikasleekin konparatuta, hemengoak aktiboak dira, beldurrik gabe hitz egiten dute. Klasearen dinamismoa izan dut atsegin. Japonian irakasle ibiltzen nintzenean, askotan esan behar nien ikasle isilei: "Tira! Animatu! Klaseak kontzertu bat bezalakoa izan behar du, ikasle-entzuleekin batera giroa sortzen delako".

Etxera heldu eta Dollar Street izena duen material batez gogoratu nintzen. Ikus bestela Interneten! Ahalmen ekonomikoaren arabera munduko etxe asko ordenatutako kale birtual bat da. Eta argazkien bidez egoera gaika ikus daiteke - etxeak, platerak, janaria, zapatak, dutxak, jolasak... eta zerrenda amaigabea-. Agian, horrelako proiektua egiteko material osagarria izan liteke.

Bele artistaren 'matinee' kontzertua etzi gaztelekuan

Liher taldeko Lide Hernando abeslariaren bakarkako proiektua da Bele. Rock gordinetik apur bat aldentuta, bestelako estiloak lantzen ditu; soula, punka eta musika urbanoa, adibidez.

Gaztelekuan egingo du kontzertua etzi, 12:30ean hasita. Sarrerak, zortzi eurotan, Txokolateixan eta *Oñati.eus* atarian aurrez, eta domekan leihatilan.



Lide Hernando Bele. L.H.

Izaro Elortza, asteon, Goiena telebistako platoon, *Harira* saioan. MIREIA BIKUÑA

"Etxebizitza kopurua ez da arazoa; badaude eta bideratu egin behar dira"

Agintaldi berria "beste lasaitasun batekin" hasi duela aitortu du Izaro Elortzak (Oñati, 1983) Goiena telebistako 'Harira' saioan. Inbertsioez, komertzioaz eta turismoaz aritu da, besteak beste; gaur emango dute saioa, 18:30ean, 20:30ean eta 22:30ean

Julen Murua Mesonero OÑATI

Berretsi egin zuen Oñatiko alkate kargua Izaro Elortzak (Oñati, 1983) azken udal hauteskundeetan, eta bigarren agintaldia "beste lasaitasun batekin" hasi duela aitortu du, asteon, Goiena telebistako *Harira* saioan: "Aurreko Gobernu Taldea osatzen genuen bost kideei beste sei pertsona batu zaizkigu. Horrek, nolabait, jarraikortasun bat bermatzen du. Gure artean elkar ulertzen dugu eta helburu konkretuak elkarbanatzen ditugu".

Agintaldi berriko asmo nagusien ganean galdetuta, alkateak aipatu du "izaera ezberdineko proiektuak" egingo dituztela. "Batzuk epe motzekoak izango dira eta, agian, agintaldian ikusiko ditugu emaitzak; beste batzuk, berriz, epe luzeak dira eta hazitxo bat bakarrik landatu ahal izango dugu. Alor asko

tako proiektuak izango dira; besteak beste, berdintasunarekin, zaintza ereduarekin, osasun mentalarekin, emantzipazioarekin edota irisgarritasunarekin lotutakoak".

8,3 milioi inbertsioetarako

Inbertsioei dagokienez, 23,2 milioi euroko aurrekontu osotik 4,3 milioi euro bideratuko dira esparru horretara: "Nabarmentzekoa da horietatik 2,16 milioi euro bideratuko direla Next Generation funtsetara. Tartean daude Emakumeen Etxeko birgaitze lanak, Torreau-

"AURREKONTUETAKO 4,3 MILIOI EUROEI BESTE 4 MILIOI BATU BEHAR ZAIZKIE INBERTSIOETARAKO"

zo eta Zañartu tarterako bidegorria egitea, aparkaleku disuasorioa edota Araotz eta Arantzazuko aparkalekuen monitorizazioa. Gainontzean, irisgarritasun lanekin aurrera jarraituko dugu. 4,3 milioi euro daude inbertsio ezberdinak bideratzeko, baina aurreko urteko likidazioa ere onartu da, eta aurreko urtetik datozen proiektu batzuk ere txertatu beharko dira. Orotara, aurrekontuko 4,3 milioi euroei beste 4 milioi inguru gehituko zaizkie; exekuzio handia izango dugu 2024an".

Next Generation Funtseko dirulaguntzetatik bideratutako proiektuak "2026. urterako bukatutzat" eman behar direla jakinarazi du alkateak, eta, beraz, "aurtengo urtea eta hurrengo urtea" izango dute proiektu horiek martxan jartzeko.

Irisgarritasun plana

Udalak urtero gordetzen du aurrekontuaren zati bat irisgarritasun lanetarako. Elortzak dio "fase bakoitzak aurrekontu handi bat" eskatzen duela, "300.000 euro" ingurukoa eta, horretarako, exekuzio proiektuak egiten dituztela "gune ezberdinetara heltzeko". Gaur egungo plan integralaren barruan Otadui zuhaitzian, Aita Madinan, Lizaur kalean eta Kale Zaharrean esku hartzea aurreikusten da: "Lehenengo fasea irisgarritasun plana egitea izan zen, gune bakoitza aztertze helburuarekin. Momentuz, plan hori dugu, eta etorkizunenean hurrengo lanei ekingo diegu".

Emakumeen Etxea, estrategikoa

Proiektu estrategikoa da Emakumeen Etxearena Udal Gobernuarentzat, eta, Elortzaren hitzetan, "bi lanketa paralelo ditu: bata etxea bera da; haren exekuzioa eta egin beharreko obra. Bestetik, parte-hartze prozesua dago, barruko guztia antolatuko duena. Nahiko paraleloan eroaten ari garen prozesuak dira biak, bata bestearen elikatzen duelako. Esanenez obrari dagokionez birgaitze lanak gutxi gorabehera amaituta daudela eta orain sartuko ginatekeela bigarren faseko exekuzio proiektua idaztean. Horrekin, lizitazioa orain aterako dugu, eta espero dugu, ondo bidean, udazken aldera eraikin barruko obrekin hastea. Paraleloan, parte-hartze prozesuarekin ari gara lanean; orain arte oinarriak onartu ditugu, zer motatako Emakumeen Etxea nahi dugun adosteko. Azken fase honetan erabiltzaileak eta erabilerak definitu dira, eta orain gobernantzaren eta kudeaketaren inguruko hausnarketak egiten ari dira erabiltzaileak".

Emantzipazioan urratsak

Pil-pilean dagoen gai bat da emantzipazioarena, eta, horrenbestez, Elortzak "etxebizitzaren alorrean urratsak egiteko asmoa" duela aitortu du. "Hasiko ginateke etxebizitza hutsen inben-

"UDALAK LAGUNTZAK ESKAINIKO DIZKIE KOMERTZIOEI EGOKITZAPENEAN BIDELAGUN IZATEKO"

tario bat eguneratzen. Horrez gain, uste dugu alokairuak bideratzeko formulak berraztertzea behar direla, eta konpromisoa hartzen dugu gai horretan sakontzeko. Gainera, birgaitzeak sustatzea eta kanpaina bat egitea badagokigu. Etxebizitza kopurua ez da arazoa; badaude eta bideratu egin behar dira. Bide horiek jorratuko ditugu, eta dirulaguntzak bideratzen joango gara emantzipaziorako eta gizarte zerbitzuetatik hileko alokairua ordaintzeko zailtasunak dituztenei laguntzak ematen jarraitzeko".

Musika eskola berria

Aurreko agintaldian murgildu zen Udala musika eskola berriaren diagnostikoaren prozesuan. Hala ere, "bertan behera" utzi behar izan zuten prozesua, "EAJK beste proposamen bat egin zuelako eta kutsu politikoa hartzen hasi zelako guztia". Orain lan horri berriro helduko diotela jakinarazi du alkateak: "Aurrekontua badugu, eta, beraz, prozesuarekin jarraituko dugu".

Komertzioei laguntza

Komertzioek herriari "abertasuna" ematen diotela dio Elortzak, baina, era berean, aitortu du haien egoera ez dela "gura bezalakoa. Ikusten dugu komertzioek nolako onura dakarten herriarentzat eta herritarrentzat, baina gizartea aldatzen doa eta horrek kultura aldaketa bat dakar. Testuinguru horretan, zailtasunak ikusten ditugu komertzio berriak zabaldu edo mantentzeko; joera guztiz kontrakoa da. Alde horretatik, Udala egoeraz kontziente da eta baliabideak eskainiko ditu komertzioei, orain arte bezala, dirulaguntzak edo formakuntzak bideratuz, ohitura berriei egin beharreko egokitzapenean bidelagun izateko".

Turismo jasangarri baten alde

Nazio Batuen Turismoaren Mundu Erakundeak *Best Tourism Village 2023* saria eman zion Oñatiri iaz urrian, eta, horri lotuta, Udal Gobernuak "turismo jasangarri bat bideratu" nahi duela dio alkateak. "Herriak mugak ditu eta oreka bat bilatu behar dugu datozen bisitarien eta gure herritarren artean, masifikazioan ez erortzeko. Sariaren inguruan ez genuen oihartzun handirik eman nahi izan, neurria hartu ahal izateko".



Finalistak Euskadiko Pilota Federazioko, Laboral Kutxako eta Arrasateko Udaleko ordezkariekin, Zaldibarren. I. BARRENA

Master Cupeko finala Uarkapen

PILOTA Domekan jokatu dute, Uarkape berrituan, Emakume Master Cup txapelketa borobilduko duen finala. Maddalen Etxegarai oñatiarrak Gaminderekin osatuko du bikotea, eta Arrizabalaga-Erasun bikotea izango dute aurrean (12:00)

Xabier Urtzelai ARRASATE Uarkapek morez *jantzita* hartuko ditu domekan (12:00) Master Laboral Kutxa txapelketako finalistak. Arrasateko frontoiak 25 urte betetzen ditu aurten, eta itxura berrituarekin batera zenbait lan egin dituzte pilotalekuan (Ikus 8. orria). Hala, pilotariek ikuskizun ona eskaintzeko eszenatoki aproposa izango dute.

Estilo arteko talka bat bezala aurreikusten den final ireki horrek hamaika pizgarri ditu domekan pilotazaleak Arrasatera joan daitezten. Esaterako, Olatz Arrizabalagak txapelketa horretan historia egiten jarraituko ote duen ikustea –zazpigarren finala izango du bizkaitarrak–. Bikotekide izango du Itxaso Erasun; atzean txapelketa borobila egin du zizurkildarrak, eta aurrelariari segurtasun handia eman dio. Gipuzkoarra, baina,

lehenengoz egongo da halako final batean.

Aurrean izango duten bikoteak, baina, oso maila ona erakutsi du txapelketan zehar. Gamindek egungo atzelaririk sendoena dela berretsi du txapelketa horretan. Berezkoa zuen kolpe biziari gero eta segurtasun eta kontrol gehiago gehitu dizkio, eta, zarata handirik egin gabe, kantxan haren legea ezartzen ari da. Ho-

"ETXETIK GERTU DA FINALA ETA SEGURU OÑATIAR ASKO EGONGO DIRELA HARMAILETAN"



MADDALEN ETXEGARAI
PILOTARIA

rretarako, gainera, bikotekide ezin hobea topatu du: Maddalen Etxegarai oñatiarra. Aurrelari txantxikuarrak oso eskuin bizia du eta Arrizabalaga jokoz kanpo uzten saiatuko da. Gainera, Oñatiko zaleen babes handia izango du, seguruenik, Oñatitik jende asko joatea espero dute eta antolatzaileek. "Orain arte, lasai egon gara, baina finala gerturazten doan neurrian hasi gara urduritasunak sumatzen", adierazi zuen oñatiarrak eguaztanean Zaldibarko frontoian egindako aurkezpen ekitaldian. "Finala Arrasaten jokatu dugu, etxetik gertu, eta senitartekoak eta lagunak harmailetan izango dira. Horrekin batera, gainontzeko oñatiarrak ere animatuko nituzke etortzera; finaletan giro aparta egoten da, eta ilusioa egiten du harmailetara begiratu eta herrikideen aurpegiak ikus-



Maddi Barrocal, pilota astintzen. GOIENA

Ados-eko binakakoa Iturrigorri

Emakume Master Cupeko finala ez da izango asteburuan Debagoienean jokatu den emakumezkoen jaialdi bakarra, domeka goizean Aretxabaletako Iturrigorri pilotalekuak Ados txapelketa barruko norgehiagokak hartuko ditu eta –11:30; sarrera: 5 euro–. Promozioko eta lehen mailako binakako norgehiagokak jokatu dituzte; bi, guztira. Lehenengo partiduan Aranburu-Arrastia bikoteak Ibarrola-Vertis bikotea izango du aurrean, eta jaialdiko partidu nagusian debagoiendar bat izango da, Maddi Barrocalek Agirrerekin osatzen du-eta bikotea, eta aurrean izango dituzte Aldaregia eta Larramendi.

Adosek antolatzen duen binakakoa abenduaren 16an hasi zuten; ibarreko hainbat pilotalekutan jokatu dituzte norgehiagokak, eta finalak apirilaren 21ean jokatu dituzte.

tea. Zaleen babesa sumatuko dut, seguru. Behin hona iritsita, irabaztera irtengo gara".

Kontrario gogorak aurrean

Maddalen Etxegarai garbi dauka final gogorra izango dutela: "Arrizabalagak erakutsi du ze mailatako pilotaria den, eta Itxaso oso momentu onean dator, oso erregular ibili da eta sasoi onean dago". Oñatikoak garbi dauka akats gutxien egiten dituen bikotearendako izango dela txapela. "Gu ere ondo gaude; esango nuke txapelketa ona egin dugula, eta gure artean ondo

ulertzen dugu elkar". Jaialdiko partidu nagusiaren aurretik, atariko norgehiagoka ere izango da, eta bertan, Garaik eta Bergarak Beitiaren eta Mendizabalen kontra jokatu dute.

Finalistez gain –Arrizabalaga ezin izan zen aurkezpenean egon–, aurkezpen ekitaldian izan ziren Arrasateko alkate Mainer Morras Azpiazu, Euskadiko Pilota Federazioko presidente Gotzon Enbil eta Laboral Kutxako ordezkari Ainhoa Azurmendi; kirolariei euren babesa eskaini zieten eta pilotazaleak domekako finalera gonbidatu zituzten.



Uarkapek itxura berritua estreinatuko du domekako finalean. GOIENA



Mendi lasterkariak, iaz, ibilbideko igoeretako baten gora, ikusleen animo artean. GOIENA

Ugarbitzako maldek gogortuko dute proba

MENDI LASTERKETAK Zapatuan egingo duten Ahuntzen lasterketako hirugarren edizioa aurrekoak baino gogorragoa izango da, Ugarbitzako tontorra gehitu diotelako ibilbideari. Bost kilometro pasa horiekin, lasterketa maratoni izatera pasako da

Xabier Urtzelai ELGETA

Ahuntzen lasterketa gogortu egin dute, eta bihar irteera puntuan batuko diren 320 korrikariak hobe dute indarrak neurtu -10:00, Elgetako plaza-: "Bestela, lasterketako azken zatian, San Romanetik Intxortako tontorrera bidean dauden azken maldetan hankak bete-beteta eramango dituzte. Gainera, badirudi Intxortara igotzen hasi aurretik Elgeta bertan dagoela, baina ez, igoera geratzen da", dio, umorez, antolaketa taldeko Eleder Lozanok. "Ibilbidean Ugarbitzako tontorra sartzea erabaki dugu aurten; ibilbideak bost kilometro pasa gehiago izango ditu. Hala, Ahuntzen lasterketako lehenengo bi edizioak lasterketa motzen barruan egin dira, baina biharkoa beste kontu bat izango da, ibilbideak ia 21 kilometro izango dituelako, eta hori maratoni erdi bat da".

Nagusien lasterketaren aurretik, Antxumeena egingo dute, 09:50ean; alegia, gazteendako

propio egiten dutena. "22 korrikari eman dute izena, eta gazte elgetarrak oso motibatuta ikusten ditugu; gurasoei entzun diegu azken egunotan ez dutela besterik eta ibilbidea behin eta berriro erreparatzen dabiltzala".

Kortazar da faboritua

Oihana Kortazarrek iaz atera ahal izan zuen lehenengo edizioan parte hartu ez izanaren arantza. Eta bihar, iazko txapela defendatzeko moduan egongo da elgetarra. Gertuen izango duenetako bat Ane Zabala arrasatearra izango da, lehenengo edizioan irabazlea eta iaz Hiru Haundiak proba irabazi zuena. "Gizonezkoetan, berriz, esango nuke indarrak parean daudela; ez daukat horren garbi nor egon daitekeen faboritoen artean. Izen bat nabarmentzekotan, Aimar Larrea antzuolarrarena nabarmenduko nuke. Duela gutxi, Aiako lasterketa irabazi zuen anaiarekin batera, eta saioan dagoela erakutsi du".

Lasterketaren datuak

- **Distantzia:** 20,8 kilometro.
- **Desnibela:** 1.089 metro.
- **Gehienezko garaiera:** 680 metro.
- **Azkarrenaren denbora-aurreikuspena:** ordu eta erdi.
- **Parte-hartzaileak:** 320 lasterkari.
- **Irteera ordua:** 09:50 (Antxumeak) eta 10:00 (Ahuntzak).
- **Antxumeen lasterketa:** 4 kilometro eta 180 metroko desnibela.
- **Iazko irabazleak:** David Rua (1.14.47) eta Oihana Kortazar (1.22.07).

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOR. ERREGIO. GIZ.

Bergara-Hernani

Zap. 16:30. Agorrosin.

Aretxabaleta-

Zumaiaiko

Dom. 16:30. Ibarra.

OHOR. ERREGIO. EMAK.

Zumaiaiko-Debagoiena

Zap. 16:00. Zumaia.

GAZTEAK, MAILA NAZ.

Bergara-Barakaldo

Dom. 17:30. Agorrosin.

EMAK. GOREN. IGOERA

Bergara-S.Tomas

Lizeoa

Zap. 12:00. Agorrosin.

GORENGO MAILA

Zumaiaiko-Aretx. B

Dom. 15:45. Zumaia.

Anaitasuna-Antzuola

Dom. 16:30. Azkoitia.

Mondra-Bergara B

Dom. 16:30. Mojategi.

GAZTEAK EUSKAL LIGA

Danak Bat-

Aretxabaleta

Zap. 17:15. Bilbo.

GAZTEAK OHOR. MAILA

Ordizia-Aloña Mendi

Zap. 16:30. Altamira.

Urola-Mondra

Egub. 19:45. Argixao.

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Afantxo-Mondrate

Zap. 16:00. Pasai Donib.

Leioako-Eskoriatza

Zap. 18:30. Leioa.

GIPUZKOAKO 1. MAILA

Tolosala-Coinb. Aloña

Egub. 21:00. Tolosa.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAP.

Saizar U.-Fagor Prof.

Zap. 17:30. Usurbil.

GIZ. GIPUZ. SENIOR.

Urola-Mugarri Ingou

Zap. 12:15. Zumarraga.

Legazpi-Soraluce BKE

Zap. 19:15. Legazpi.

GIZO. BIGARREN SENI.

Legazpi-Erreka Berg.

Zap. 17:45. Legazpi.

GAZTEAK GIZONEZKOAK

Ingou Ar.-Legazpi

Dom. 10:00. Udal kirol.

Donibane-Ingou Arras.

Zap. 19:45. Pasaia kirol.

GAZTEAK EMAKUMEZKOAK

Lacturale-G. Bergara

Zap. 13:15. Donostia.

Elgoibar-Oñabike

Zap. 16:30. Majori.

Elgoibar-Oñabike

Dom. 13:00. Elgoibar.

SASKIBALOIA

EBA

Pas Pielagos-MU

Dom. 18:00. Santander.

EUSKAD. LEHEN EMAK.

MU-Deusto Loiola

Dom. 18:00. Ibarra.

EUSKAD. BIG. GIZON

Askartza-Biotz Aloña

Zap. 18:00. Askartza.

Santutxu-Soraluce BKE

Dom. 17:00. Berrio O.

ERRUGBIA

SENIOR GIZONEZKOAK

Gaztedi-AGT

Dom. 11:30. Rekalde.

SENIOR GIZONEZKOAK

Univ. Bilbo-Kanpanzar

ART

Dom. 12:00. Gasteiz.

ZIKLISMOA Pello Garitano omentzeko jaia apirilaren 20an

Apirilaren 20rako antolatu du Lokatza Ziklismo Eskolak Pello Garitanoren omenezko martxa zikloturista, eta dagoeneko zabalik dago izen-ematea -apirilaren 8a da azken eguna-. Izen-ematea egiterakoan, gainera, herri bazkarian parte hartzeko aukera emango dute antolatzaileek. Aurtengoa ere jai giroan egindako igoera izango da.

FUTBOLA Aretxabaleta, hamargarren garaipenaren bila

Azken hamar partidua irabazi egin dituzte aretxabaletarrek, eta, martxa horretan, zuzen doaz Hirugarren Mailara. Domekan, erdialdean dagoen Zumaia koren bisita izango dute Ibarra (16:30). Bergara, azken bi partidua berdinduta, laugarren kokatu da, Eibarren eta Zarautzen atzetik. Hernani hartuko dute bihar, zapatua (16:30).

FUTBOLA Elene Guridik Lehenengo Mailan egin du debuta

Elene Guridi oñatiarrak Lehenengo Mailan egin zuen debuta joan den domekan Realarekin, Bartzelona indartsuaren kontra. Talde txuri-urdinak 1-7 galdu bazuen ere, oñatiarrak bazuen zer ospatu. Hasierako hamaikakoan izan zen Guridi eta oñatiarrak lehenengo partiduan laurogeita hamar minutuak jokatu zituen.

ERRUGBIA ARTko Pirolitikak Bartzelonara doaz

Bartzelonako La Teixonera errugbi zelaian jokatu dute ARTko Pirolitikek bihar, zapatua. Arrasatearrek III. Mater Series torneoan hartuko dute esku eta goizeko kanporaketa norgehiagoketan Wonder Brac eta Lacartijas taldeak izango dituzte aurrean. Bi partidua horiek gaitu beharko dituzte hurrengo faserako sailkatzeko.

Txapelaren bila, kinielak zabalik

Peru Abarrategi, Manex Agirre eta Paula Amilburu aramaioarrak, Aroa Arrizubieta gasteiztarra, Asier Otamendi urretxuarra eta Iñaki Viñaspre abetxuarra izango dira bihar Arabako Bertsolaritza Txapelketako finalean, Principal antzokian, 17:30ean

Aitziber Aranburuzabala Juldain
ARAMAIO

Bertsozale asko joango da bihar, zapatua, Gasteizko Principal antzokira Arabako bertsolari-tzako txapel preziatua nork jantziko duen ikusteko gogoz; haien artean, astean Arrasate Irratiko *Zaku bete kontu* saiora gonbidatu dituzten Arrasateko Patxi Goikolea bertsozalea eta bertso-eskolen bultzatzaile beteranoa eta Ane Zuazubiskar bertsolaria. Gertutik ezagutzen ditu Aramaioko hiru finalistak Zuazubiskarrek, eskola berean jarduten dute bertsoan; Goikolea aspaldi ez da bertso-eskolara joan, baina gertutik jarraitzen du eskualdean dagoen eta datorren bertsolarien harrobia.

Goi mailako bertsolariak

Aurreikusitako moduan, txapelketa "anitza, gaztea eta jaso" izan da eta finala ere halakoa izango dela uste dute solaskideek. "Ez nintzateke ausartuko esatera zein izango den lehenengo eta zein bigarrena; izan ere, bertsolari bakoitzak txapelketan zehar jasotako batez besteko puntuari begiratuta, alde oso txikia dago

lehenengotik seigarrenera. Horrek esan gura du seigarrena ere txapel-duna izan daitekeela", dio Patxi Goikoleak, eta zera gaineratu du Ane Zuazubiskarrek: "Zenbakietan argi dago oso estu sailkatu direla denak, baina finalak finalak dira eta puntuetatik harago jakin egin behar da egoten, eta egoteko tokia topatu behar da. Ez da kontuan hartu behar bakarrik bertsolariak botatzen duen bertsoaren kalitatea, garrantzitsua da aurrean daudenean, publikoak eta epaileek, bertsoak nola hartzen dituzten, asko eragiten du eta horrek. Esango nuke azkeneko urteetako joerei jarraituta orekatu egin dela apur bat; hau da, garai bateko txapel-

"ALDE OSO TXIKIA DAGO BATEZ BESTEKO PUNTUETAN; BERAZ, EDOZEIN IZAN DAITEKE IRABAZLE"



PATXI GOIKOLEA
BERTSOZALEA

ketetan ibiltzen zirenak eta belaunaldi gazteagokoak heldu direla finalera".

Bihotzak aginduta, Aramaiora

Kinielak zabalik daudela diote biek, nahiz eta bihotzetik jardunda txapela Aramaiora ekartzea gustatuko litzaiekeela aitortzen duten. "Manex oso erregularra da" dio Goikoleak. "Nik, erregularra dela baino gehiago, erregular dabilela esango nuke", dio Zuazubiskarrek, zera gaineratuta: "Aramaioko saioan oso fin hasi eta oso zorrotz amaitu zuen, eta esango nuke bere burua entrenatuta eta finalean gustura abesteko sumatzen duela. Peruk, berriz, Aramaiokoan ez zuen gozatu, nire ustez, baina freskuratik egiten du bertsoan, bertsoak behar duen sakontasuna kendu barik". Goikoleak haxe dio: "Txispa dauka eta gutxien uste duzun lekutik ateratzen du hark bertsoa", Amilburu bertsoan ezagutzen ez duela aitortuta. "Poliki-poliki urduritasunari neurria hartzen doa Paula; oso gustuko dut pertsonaiaren azalean nola sartzen den eta baita duen umorea ere".



Biharko finalean izango diren Aramaioko bertsolariak. XABIER URTZELAI

Bertsokide "konpletoak"

Aramaiokoekin batera izango diren beste hiru bertsolariak buruz galdetuta, zera dio Goikoleak: "Asier Otamendik egoki egiten du bertsoan, neurritz dotore beti eta errimaz ere oso ondo. Iñaki Viñaspre ondo eza gutzen dut, eta gustuko dut, nahiz eta azkar samar ibiltzen den sarritan eta horrek kalte egin ahal dion; eta Aroa Arri-

zubietara ere oso gustuko dut, etorri oneko bertsolaria da, esaera ona eta zorrotza du. Hiru urteko tartean garapen handia izan du bertsoan Aroak, gauza asko esateko kapazitate handia du eta urduritasuna ondo menperatzen du. Kontrakoa gertatzen zaio, nire ustez, Viñaspre, pertsona urduria da eta bertso-tara eramaten du hori, eta azkartasunean sakrifkatzen du batzuetan teknika".

"AZKENEKO URTEETAKO JOEREI JARRAITUTA, OREKATU EGIN DA FINALISTEN ZERRENDA"



ANE ZUAZUBISKAR
BERTSOLARIA

40. urteurrena aurten

Publikoaren erantzun ona izan du biharkoak ere; horren erakusle da *Bertsosarrerak.eus* atarian apenas geratzen direla sarrerarik.

Arabako bertso-gintzan egin duen ibilbidea aitortzeko, Xabi Rico Iturriotzi egokitu diote biharko irabazleari txapela janzteko ohorea.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

IZARO ELORZA

OÑATI KO ALKATEA

'HARIRA' SAIOAN

MARTXOAREN 15EAN, EGUBAKOITZA,
18:30EAN, 20:30EAN ETA 22:30EAN



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena

Zu hemen zaude.



Finalean izango diren Aramaioko bertsolariak

1. Ze sentazioarekin zoaz finalera?
2. Zelako saioa aurreikusten duzu?
3. Irabazteko faboritotik baduzu?

"Finalerdian egin nuena biziberritu nahiko nuke"

MANEX AGIRRE

1 Ilusioarekin noa finalera; aukera polita da. Baditut bizkarrean final batzuk eta pozik nago beste bat gainean dudalako, txapelketan zerbait egin dudan erakusle da. Finalerdian egindakoa Principalen biziberritzeko gogoz nago. Eguna gerturatu ahala, urduritzen noa, igartzen da tentsioa, baina, esandakoa, pozik nago.

2 Urte hauetan edozer ikasi badut da saioaren eskema mentala egin dezakezula baina oso zaila dela asmatzea eta irakurtzea zer izango den gero. Sei bertsolari oso ezberdinak gara, batzuek esperientzia gehiago dugu eta gutxiago beste batzuek; hala ere, denok dakigu zer den final bat. Denak eragingo du emaitzan, gure aldarreak eta aurrean izango den publikoaren harrerak ere bai.

3 Uste dut ez dagokigula guri faboritua aukeratzea, publikoaren pribilegioa da hori. Guk nahikoa dugu gure burua begiratzearrekin eta zaintzearrekin. Beste bostak asko gustatzen zaizkit eta uste dut bakoitzak bere onena ematen badu saio elegantea izango dela. Publikoari utziko diogu lan hori.

"Nire helburu nagusia ez da txapela irabaztea"

PAULA AMILBURU

1 Finalera gogotsu noa ni ere, eta aurrez egindako lana edo landu dudan guztia erakusteko asmoarekin. Finalera begira, helburu pertsonalak ditut, eta, noski, txapelketa helburu polita da, baina, modu pertsonaletik begiratuta, ez dut uste txapela irabaztea denik, errealista izanda, nire helburua aurten.

2 Bihar Gasteizko Principal antzokian jokatu den saioa, orokorrean, ona izango dela aurreikusten dut; orokorrean, txapelketa ere hala izan dela uste dut. Nire esperantza da ea biharko saioan umoretik asmatzea lortzen dugun; uste dut taularen gainean izango garen sei bertsolariok kapazak garea umoretik asmatzeko, baina ea zelan ateratzen zaigun, zelako gaiak egokitzen zaizkigun, zelako eguna duen bakoitzak...

3 Egia esan, txapela nork irabaziko duen ez dakit esaten, eta ez dut faborito garbirik. Beste gauza bat da nork irabaztea nahiko nukeen. Hori galdetuz gero, bada, Manexek edo Peruk, baina auskalo zer gertatzen den!

"Principalera bueltatzea puntazoa da"

PERU ABARRATEGI

1 Iruditzen zait ardura gauzak ondo egiteko gogoarekin joanda benetan plaza gozagarria dela biharkoa. Txapelketa aurreko bi saioak beste presio puntu batekin bizi izan ditut eta Principal antzokira bueltatzea puntazoa da niretzako. Kolektiboki saio polita egitea lortzea gurako nuke.

2 Seion aldetik, saio dibertigarria eta ona izan daitekeela aurreikusten dut. Orokorrean txapelketa ona izan dela iruditzen zait eta finaletik kanpo geratu diren bertsolari asko maila handikoak direla; bada, horrek esan gura du finalera heldu garenok ere bagarela nor bertotan. Gustatuko litzaidake helburu kolektibo bat izatea finalera begira, ea kapazak garen antzokia beteko duen jende horri final ederra eskaintzeko.

3 Ez, ez naiz izen bat esatera ausartzen. Onerako edo txarrerako, Arabako txapelketa buelta batera jokatu da eta finala ere egun bakarrekoa izango da. Iruditzen zait denok ditugula txapela irabazteko aukerak; beraz, bakoitzak bere onena eman beharko du.

'Gelatik plazara' ekimeneko eskualdeko bigarren saioa

Bertsolari gazteek Arrasateko Kulturaten egingo dute jendaurrean saioa gaur, egubakoitza, 18:00etan hasita

A. Aranburuzabala ARRASATE

Oñatiko bertso-eskolako gazteak izan ziren protagonista martxoaren 1ean Oñatiko gaztelekuan egin zuten saioan, eta Arrasateko, Aretxabaleko, Eskoriatzako eta Aramaioko bertso-es-

koletako 14 urte bitarteko 25 lagunek hartuko diete lekukoa gaur Kulturaten egingo duten eskualdeko bigarren saioan. "Sariketa moduan antolatu dugun arren, gelan ikasia plazara ahalik eta modu jostari eta ero-

soenean jendaurrera eramatea dugu helburu. Berrikuntza moduan, aurten, bailara bakoitzeko talde batek finalean kantatuko du apirilaren 25ean Aretxabalean ospatuko dugun Bertso Eskolen Egunean. Gaurko saiora joateko ez da aurrez gonbidapenik behar; edonor gonbidatua dagoen arren, gure helburua ez da aretoak jendez betetzea, azaldu du Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak kide eta ekimeneko antolatzaile Mirari Sagarzazu oñatiarrak.

Goienakideen txokoa

MARTXOKO SARIAK



Tableta

InnJoo Superb Plus tableta

Parte hartzeko sariaren izena: tablet



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

ARRIKRUTZ
OSTATIKO OAK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremanlenda.org
Bideoa: Merkataritza produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoa: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE

"sariaren izena" [barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte hartzearen artean egingo da zozketa. Irabazlearen dagoen 0% 15/1000 lagunen artean, zozketaren ondorioz, zuzen dago bertan dagoen Goiena Forumakide Tabletaren martxoaren 15etik martxoaren 31era bitartean. Zozketaren ondorioz, zuzen dago bertan dagoen Goiena Forumakide Tabletaren martxoaren 15etik martxoaren 31era bitartean. Zozketaren ondorioz, zuzen dago bertan dagoen Goiena Forumakide Tabletaren martxoaren 15etik martxoaren 31era bitartean. Zozketaren ondorioz, zuzen dago bertan dagoen Goiena Forumakide Tabletaren martxoaren 15etik martxoaren 31era bitartean.

Irabazi bi lagunendako otordua

LUXARTE JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: martxoak 19



GOIENAKIDE Jotetxea
[barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailez gozatzeko...



GOIENAKIDE KUOTA: 65€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

Bergara. Bergara erdigunean etxebizitza erosiko nuke. Hiru logela, igogailua eta garajeduna. Deitu telefono zenbakia honetara: 653 29 37 04 telefono zenbakia.

104. ERRENTAN HARTU

Oñati. Oñatiko bikote bat gara, 30-32 urtetakoa. Alokairuko etxe baten bila gabiltza, Oñatin. Deitu telefono zenbakia honetara: 696 33 36 62

Oñati. Oñatin alokairurako etxe bila dabilen alaba bakarrek familia gara. Biok lanean. Deitu telefono zenbakia honetara: 632 69 62 33

3. LOKALAK

305. BESTELAKOAK

Arrasateko denda eskualdatzen da. Arrasaten dagoen Centro Cien bazarra eskualdatzen da, erretiroagatik. Saltoa Olarte kaleko 23. zenbakian dago, Arrasateko erdigunean. Xehetasun gehiago nahi izanez gero, deitu zenbakia honetara: 635 71 60 44

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate. Neska arrasatearra, arduratsu eta atsegina, umeak zaintzeko eta nagusiei paseatzera lagundu edota konpainia egiteko gertu. Deitu telefono zenbakia honetara: 695 73 87 95

Bergara. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu edo pasiatzera laguntzeko prest. Deitu 611 24 18 98 telefono zenbakia

Bergara. Mutil gaztea eraikuntza lanetan laguntzaile gisa, pertsonen zaintza, lorezaintza-lanak eta taberna eta pisuetako garbiketak

egiteko gertu. 671 64 11 25

Bergara. Neska pertsonak zaintzeko eta garbiketala-lanak egiteko prest. 671 64 11 25

Debagoiena. Asteburuetan edo astean zehar orduka lan egoiteko prest, baita etxean bertan bizi izaten. Pertsona nagusiak zein umeak zaindu eta garbiketala-lanak egingo nituzke. Deitu telefono zenbakia honetara: 632 63 77 38

Debagoiena. Emakumea pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketala-lanak egiteko prest. Malgutasun osoa du. Etxean bertan bizi izaten, orduka edo bestela lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz eta legezko agiriak ditut. Deitu telefono zenbakia honetara: 612 23 89 09

Debagoiena. Emakume arduratsua pertsona nagusiak zaindu eta konpainia egiteko gertu. Garbiketala-lanak egingo nituzke. Orduka lan egingo prest. Deitu telefono zenbakia honetara: 677 14 64 29

Debagoiena. Emakumea pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketala-lanak egiteko prest. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, astean zehar zein asteburuetan. Deitu telefono zenbakia honetara: 632 19 08 26

Debagoiena. Emakumea pertsona nagusiak zaindu edo pasiatzera aterako gertu, baita garbiketala-lanak egiteko ere. Orduka lan egingo nuke. Esperientzia du.

Deitu telefono zenbakia honetara: 642 97 71 61

Debagoiena. Esperientzia handiko neska, arduratsua, pertsona nagusiak zaindu, pasiatzera atera edo goizetan jaiki eta gauetan ohera sartzen laguntzeko prest. Baita umeak zaindu eta garbiketala-lanak egiteko ere. Astean zehar zein asteburuetan lan egingo nuke, orduka. Deitu telefono zenbakia honetara: 631 76 12 42

Debagoiena. Emakumea prest adinekoak gauz zaintzeko eta goizetan paseatzera ateratzeko. Deitu telefono zenbakia honetara: 647 37 01 92

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketala-lanak egiteko ere. Malgutasun osoa. Deitu telefono zenbakia honetara: 632 54 45 86

Debagoiena. Gizonezkoa pertsona nagusiak zaindu edo garbiketala-lanak egiteko prest. Esperientzia handikoa. Soziosanitario ikasketak ditut, baita garbiketala-lanak egiteko ere. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Malgutasun osoa. Deitu telefono zenbakia honetara: 643 47 39 37

Debagoiena. Haurrak edo pertsona nagusiak zaintzeko, garbiketala-lanak egiteko edo bestelako edozein lanetarako prest. Deitu telefono zenbakia honetara: 611 24 18 98.

Debagoiena. Mutil arduratsua asteburuetan lan egingo prest. Nagusiak zaindu edo tabernan lan egingo nuke.

Debagoiena. Mutil arduratsua asteburuetan lan egingo prest. Nagusiak zaindu edo tabernan lan egingo nuke. Esperientzia du.

nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo prest. Baita asteburu eta gauetan ere. Deitu telefono zenbakia honetara: 626 91 49 04

Debagoiena. Neska arduratsua pertsona nagusiak zaintzeko prest. Etxean bertan bizi izaten, etxetik kanpo edo asteburuetan lan egingo nuke. Berehalako prestasuna. Deitu telefono zenbakia honetara: 613 13 51 88

Debagoiena. Neska euskalduna pertsona nagusiak zaindu, tabernan lan egin edo bestelako lanak egiteko prest. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz. Asteburuetan edo jai-egunetan lan egingo nuke. Deitu telefono zenbakia honetara: 656 79 28 37

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketala-lanak egiteko prest dagoen emakumea. Garbiketala-lanak egiteko ditut. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Emakume arduratsua naiz, 7 urteko esperientziaduna. Legezko agiriak eta sozio-

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edo paseatzera laguntzeko prest. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak ditut. Deitu telefono zenbakia honetara: 643 21 04 28

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edo pasiatzera ateratzeko gertu dagoen mutila. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. 604 28 78 39

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu, paseatzera atera edo konpainia egiteko prest, baita garbiketala-lanak egiteko ere. Astean zehar 14:00etatik aurrera, gauetan edo asteburuetan lan egingo nuke, etxe zein ospitaletan. 602 80 15 38

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Deitu telefono zenbakia honetara: 647 31 48 17

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan, etxetik kanpo lan egingo nuke. Emakume arduratsua naiz, 7 urteko esperientziaduna. Legezko agiriak eta sozio-

sanitario titulua ditut. 612 51 42 99

Debagoiena. Umeak eta nagusiak zainduko nituzke. Esperientzia gabe ostalaritzan lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak ditut. Deitu telefono zenbakia honetara: 632 99 34 22

Debagoiena. Zaintza, garbiketala-lanak egiteko prest nago. 604 28 78 39

7. ANIMALIAK

702. EROSI

Golden Retriever txakurra nahi dugu. Baserrian bizi garen bikote bat gara eta Golden Retriever motako txakur baten bila gabiltza. Informazio izan ezker, idatzi mesedez. 696 33 36 62

Katakumak. Katakumak oparitzen dira. 610 31 02 61

DENETARIK

Bergara. Bergaran plazatik poligonora bitartean betaurreko graduatuak galdu ditut. Funda batean sartuta daude. Topatuz gero mesedez deitu telefono honetara: 646 24 42 64

ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN




IZARO ELORZARI ELKARRIZKETA
Oñatiko alkatea elkarrizketatuko du Goiatz Aranek, kargua hartu eta zortzi hilabetera.

'*Harira*' Egubakoitza, 18:30, 20:30 eta 22:30



AHUNTZEN ETA ANTUXUMEEN LASTERKETAK
Hirugarren egongo dituzte trail lasterketak Elgetan, eta hango protagonisten berbak jasoko dituzte.

'*Harmailatik*' Astelehena, 19:30, 21:30 eta 23:30



KORRIKA ZUZENEAN

23. Korrika Bergaratik eta Elgetatik nola pasatzen den zuzenean ikusteko aukera.

'*Bereziak*' Eguaztena, 06:37-08:47



23. KORRIKA: SAIO BEREZIA

Bergara eta Elgeta dauden lekuko aldaketa guztiak jasoko ditu Goiena telebista.

'*Bereziak*' Eguaztena, 21:00 eta 23:00



KAZETARI GAZTEAK JON IZAGAREKIN

Arizmendi Ikastolako Almen guneko ikasleek elkarrizketatuko dute *Mutiko* musikaria.

'*Galdegazte*' Martitena, 19:30, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

Korosti
Inmobiliaria

Bergara:
Lizaria, 95m² erabilgarri,
3 logela eta terraza bat
patiora. Oso egoera
onean.
210.000€



Bergara:
Zubiaurre,
61m² erabilgarri, 2
logela, balkoia eta argi
natural askorekin.
120.000€

Bergara: Ibarra,
87m² erabilgarri,
3 logela, ganbara eta
trasteleku. Erabat
kanpoaldekoa.
140.000€



Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

Informazio
gehiago:



IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

• Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.


• Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

• GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.


ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro 18 euro Goienakideko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagoko argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).

URTEURRENA



Juanita Arana Elkorobarrutia



2023ko martxoaren 11n hil zen, 88 urte zituela.

*Mundu honetatik alde egin zenuen arren,
gure bidelagun izaten jarraitzen duzu.
Gurekin jarraitzen dute zure oroitzapenak,
zure irakaspenak, zure ereduak, zure maitasunak,
elkartasunak eta eskuzabaltasun mugagabeak.*

Etxekoak.
Arrasaten (Uribarri), 2024ko martxoaren 15ean.

URTEURRENA



Edurne Iza Garmendia
2022ko urriaren 29an hil zen,
88 urte zituela.




Juanmari Altuna Sagastigutxia
2023ko martxoaren 31n hil zen, 88 urte zituela.


Urteurrenako meza domekan izango da, martxoaren 17an,
12:30ean, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2024ko martxoaren 15ean.

ESKER ONA



Alfonso Zubillaga Narvaez



2024ko martxoaren 8an hil zen, 94 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez
besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2024ko martxoaren 15ean.

URTEURRENA



Leire Irizar Urzelai



2023ko martxoaren 14an hil zen, 37 urte zituela.


*Leire maitia, urte bat igaro
da gure ondotik joan zinela.
Ez da erreza zu gabe bizitzea,
ez baitago inor zure hutsunea
beteko duenik.*

*Muxu handi bat, Leire, beti
egongo zara gurekin.
Gero arte, maitia!
Etxekoak eta Xabi.*

Urteurrenako meza zapatuan izango da, martxoaren 16an, 19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren elizan.

Aldez aurretik, esker on bertaratzen zareten guztioi.
Oñatin, 2024ko martxoaren 15ean.

URTEURRENA



Felipe Setien Ortuzar



2023ko martxoaren 25ean hil zen, 73 urte zituela.


Beti gure bihotzean eramango zaittugu.

Urteurrenako meza domekan izango da, martxoaren 17an,
12:30ean, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2024ko martxoaren 15ean.

ESKER ONA

Jose Luis Zubiria Echeverria



2024ko martxoaren 10ean hil zen, 78 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez
besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2024ko martxoaren 15ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 15 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

Zapatua, 16 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

Domeka, 17 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

Astelehena, 18 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30

Martitzena, 19 AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15

Eguaztena, 20 JUNCAY: Kontzeziño 12 / 943 79 79 99

Eguena, 21 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 15 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Zapatua, 16 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 94376 11 74

Domeka, 17 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 94376 11 74

Astelehena, 18 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Martitzena, 19 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05

Eguaztena, 20 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

Eguena, 21 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 15 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16

Zapatua, 16 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16

Domeka, 17 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16

Astelehena, 18 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Martitzena, 19 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Eguaztena, 20 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

Eguena, 21 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

ARRASATE GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)


SANCHEZ ALVAREZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

BERGARA GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)


OIARBIDE: San Antonio 3/ 943 76 11 05

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

OROIGARRIA



Zorione Arana Abarrategi




2019ko martxoaren 15ean hil zen.

*Zure izena gure buruan,
zure oroitzak gure bihotzean.*

Zure kuadrilla.
Arrasaten (Garagartza), 2024ko martxoaren 15ean.

OROIGARRIA

Zorione Arana Abarrategi



2019ko martxoaren 15ean hil zen.

*Inoiz minak irensten bazaitu,
beti irriz oroituz nazazu
ez da hilko eusten nauen arrazoi bakarra
ez da hilko maitasuna.*

Arrasaten, 2024ko martxoaren 15ean.

OROIGARRIA



Leire Irizar Urzelai



2023ko martxoaren 14an hil zen, 37 urte zituela.

*Gogoratzen zaittugu, urte bat pasa den honetan.
Gogoratzen, zure irribarre eta zure begi urdinak.
Faltan botatzen dugu zure alaitasuna eta izan zinen lagun ona,
egunero gogoratzuz, gure artean utzi zenuen hutsunea.
Beti izango zara gurekin, bidea argituz gure bihotzetan.*

Ez dezala denborak inoiz zure argia itzali.

Zure lagunak: Ainhoa, Alaitz, Amaia, Iratxe, Irene, Itxaro eta Maider.
Oñatin, 2024ko martxoaren 15ean.

BABESLEA

Oroilore

Hileta zerbitzuak

**Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu**

*Gure artean agurtutako guztiei
esker bidea ematen laganduz
diragu, orain arte bezala, eta guztiek
izango dute agur berezia Oroiloren.*

*Gure eskerrik beronenak gogon
izan behar du konfiantzagarri eta
maitasunagatik.*

Mario, Iban, Mariñe eta Cristian

617 44 21 55
BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OÑATI



ZORION AGURRAK



OÑATI
Eire eta Gari Agirrebaltzategi Urzelai
Martxoaren 20an, 5 urte. Zorionak bikote!
Jada 5 urte. Ondo ondo pasau zuen eguna
etxekeuen partetik.



OÑATI
Alaitz Isasti
Arkauz
Martxoaren 17an,
11 urte. Zorionak,
polittori! Ondo
pasau zure eguna.
Asko maite
zaitugu.



ARRASATE
Uxue Belategi
Galdos
16an, 7 urte.
Zorionak! Oso
ondo pasa eguna
eta patxo goxo
bat guztion
partetik.



OÑATI
Jakes Campo Manias
Martxoaren 15an, 4 urte. Zorionak!
Tik-tak, tik-tak / Heldu da martixa! /
Tik-tak, tik-tak / Eta Jakasen eguna!
Tik-tak, tik-tak / Prestatu belarriak! /
Tik-tak, tik-tak / Ikasten bazabiltza! /
Tik-tak, tik-tak / Prestatu zangoak! /
Tik-tak, tik-tak / Heldu da korrika!
Tik-tak, tik-tak / Goazen antxintxika!



BERGARA
Helene Sanchez
Martxoaren 15an, 10 urte. Zorionak,
Helene! Oso oso ondo pasa zure
egunean! Muxu asko etxeko guztien
partetik!



ARRASATE
Irai Zabaleta
Urteaga
14an, 6 urte.
Zorionak!
Muxuak Ekain,
amama, aitona,
tia, aitaxo eta
amatxon
partetik.



ARETXABALETA
Lara Pacheco
Urteaga
11n, 7 urte.
Zorionak! Zure
guraso Maria
eta Luis, Marijo
eta Manuel eta
maite zaituen
familia osoaren
partetik.



OÑATI
Ane Empanza
19an, 12 urte.
Zorionak! Oso
ondo zelebrau!
Muxu haundi bat
familixian eta
bereziki Xabin
partetik.



Joxepa
Garcia-Etxabe
Axpe
19an, 94 urte.
Zorionak!
Arkazoko
guapiena eta
gure super-
amama!



ARETXABALETA
Luis Pacheco
Martxoaren 15an, 44 urte. Zorionak eta
egun ederra izan, Luis! Asko maite
zaitugu. Ama eta Lara.



BERGARA
Libe Unamuno Lete
Martxoaren 15an, 8 urte. Zorionak, maitia!
Segi horrelako jator. Muxu potolo bat
danon partetik.



ARETXABALETA
Jasone Zabala Ibarra
Martxoaren 14an, 45 urte. Zorionak,
amatxo! Oso ondo pasatu zure
urtebetetzear. Mila muxu etxeko guztien
eta batez ere Inarren partetik! Asko maite
zaitugu.



ARETXABALETA
Unai Idigoras
Gonzalez
Martxoaren
10an, 6 urte.
Zorionak,
maittia! Egun
ederra
pasau. Patxo
haundi bat.



BERGARA
Julen Gartzaron
Telleria
8an, 5 urte.
Zorionak!
Jada 5 urte!
Muxu haundi
bat etxeko
guztien
partetik.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 15

OÑATI Odol ematea
Aurrez hartu behar da ordua:
943-00 78 84.
Enpresagintzan, 16:00etan.

ARETXABALETA Musika
eskolako ikasleen emanaldia
Bandaren saioa.
Arkujen, 18:00etan.

OÑATI Emakume sortzaileen
erakusketa
Hamahiru emakume sortzaileen
sormen-lan artistikoak ikusgai
hilarren 22ra arte.
Kultura etxean, 18:00etan.

ESKORIATZA Ahoz Aho jaialdia
Celine Rainoird frantziarrak
gaztelerazko ipuinak kontatuko ditu.
Debalde.
Zaldibarren, 19:00etan.

ARRASATE 'Foto Laso'
dokumentala
Pedro Sologaitztoa *Laso*-ren
(1920-2009) gaineko lana, Arrasate
Zientzia Elkartearen eskutik.
Kulturaten, 19:00etan.

ARAMAIO Elkarretaratzea
Herritar talde batek deituta,
Palestinari elkartasuna adierazteko.
Goiko tabernaren aurrean,
19:00etan.

ARETXABALETA Bat-bateko
saioa
Jaiki elkarteak *Fraideidei*
Belarmetan saioa eskainiko du,
dendaren hamabosgarren
urteurrenaren baitan.
Belar Metan, 19:15ean.

ARRASATE 112, Dirty Old eta
Berandu Baino Lehen taldeak
Punk 4 Palestina jaialdia egingo
dute. Sarrerekin batutako dirua
palestinari herriarendako izango da.
Gaztetxean, 22:00etan.

BERGARA Inguma taldea
Oñatiko taldeak diskoa aurkeztuko
du, Egubakoitzak Berreskuratzen
egitasmoaren baitan. Aho Zakil
Konekxion taldea ere egongo da.
Sarrera: bost euro.
Kartzela zaharrea, 22:30ean.

ZAPATUA 16

ANTZUOLA Izki parke naturalera
irteera
Arrolakoen eskutik.
Herriko Plazan, 08:30ean.

ARRASATE Baserritarren azoka
Karapaixoa izango da protagonista,
eta tailerra egingo dute 11:00etan.
Seber Altube plazan, 09:00etan.

ARETXABALETA Herriko
emakumeen frontenis topaketa
Lehenengoz egingo dute. Gaur,
lehen jardunaldia.
Iturrigorri, 09:30ean.

ELGETA Intxortako Ahuntzak
Trail
09:50ean, Antxumeen lasterketa;
10:00etan, Ahuntzen lasterketa;
13:30ean, sari banaketa; eta
18:00etan, Babes Gabe taldea eta
DJa.
Mendizaleen plazan.

OÑATI Emakumion Etxia
erakitzen
Antolaketa, kudeaketaz eta
governantaz egingo dute berba.
Eltzian, 10:00etan.

ARAMAIO Alaiak elkartearen
batzar orokorra
Bazkideendako.
Erretiratuen elkarte, 10:30ean.

BERGARA 'Musika familian'
tailerra
Maite Bikuñaren eskutik.
Musika eskolan, 11:00etan.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria
3 eta 12 urte arteko haurrendako
eta aurrenerabeendako. Orduetgia:
11:30-13:30.
San Andresko gazte txokoa.

BERGARA 'Habitat: ezkutatu
diguten historia' erakusketa
Nabarraldeko kide Beñi Agirrek
gidatuko du.
Olaso dorrea, 11:45ean.

ARAMAIO Oletako Sagardo
Eguna
12:00etan, aizkolarien erakustaldia;
13:00etan, pintxo-poteoa,

musikarien laguntzarekin;
15:00etan, bazkaria; 17:00etan,
musika; eta 19:00etan, Txino
Musika Selektor.
Oletan.

OÑATI Musika Bandaren
konzertu pedagogikoa
Potx eta Lotx pailazoez eta Aloña
Mendiko gimnasia erritmikoko
kideek parte hartuko dute.
Zubikoan, 13:00etan.

BERGARA 'Txapeldunen kluba'
antzezlan
Alara Konpainiarekin, 4 urtetik
gorakoendako. Sarrerak, lau euro.
Seminarixoa, 18:00etan.

ESKORIATZA 'El dilema de las
redes' dokumentala
Debalde.
Gaztelekuan, 18:00etan.

ARETXABALETA Fundantz
dantza urbanoen lehiaketa
Hainbat talde lehiatuko dira
BreakOnStage jaialdirako
sailkatzeko asmoz.
Ibarra kiroldegian, 18:30ean.

ARRASATE EguzkiFest jaialdia
Txandal Valdals, Anixe eta Pxli.721
taldeak, eta hiru DJ.
Gaztetxean, 22:30ean.

DOMEKA 17

OÑATI Lokizera mendi irteera
Nafarroa aldera joango dira Aloña
Mendikoak.
Postetxean, 07:00etan.

ANTZUOLA San Isidro Pilota
Txapelketa
Benjamin, alebin, infantil eta kadete
mailak.
Pilotalekuan, 10:00etan.

ARAMAIO Patinaje ikastaroa
Haur eta Lehen Hezkuntzako
ikasleendako eta haien
gurasoendako.
Kiroldegian, 10:30ean.

ARRASATE Familia-meza
haurrekin
Familia-katekesian
dabilzanendako.
Parrokian, 11:00etan.

OÑATI Bele taldea

Emakume sortzaileak hamabostaldiaren barruan. Sarrerak, zortzi euro. *Gaztelekuan, 12:30etan.*

OÑATI Azkoagainen 75 urte

Ospakizuna futbol zelaian. *Azkoagainen, 16:30etan.*

OÑATI Talentu lehiaketa

Gaztelekuko erabiltzaileendako, banaka edo taldeka. *Gaztelekuan, 17:00etan.*

ARRASATE Familian Jolasean ekimena

0-8 urte arteko seme-alabak dituzten familiendako. Orduategia: 17:30-19:30. *Okendoko ludotekan.*

ARRASATE 'Almazanean' antzezlan

Txalo Produzioen eskutik, Iker Galartza eta Zuhaitz Gurrutxaga oholtza gainean. Sarrerak, hamar euro. *Amaia antzokian, 19:30etan.*

ASTELEHENA 18**ARRASATE** 'Egun gorri, arrosa bat' hitzaldia

Miren Karnele Gomezek egingo du berba zentzumenen nahasketari buruz, Goienagusik gonbidatuta. *Kulturaten, 10:00etan.*

DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio publiko duinak eskatuko dituzte Oñatin, Bergaran, Antzuolan eta Arrasaten. *Herri horietan, 12:00etan.*

ESKORIATZA 'Lehen sorospenak haurretan' hitzaldi-tailerra

Amaia Sanchez eta Marina Madariaga erizainek emango dute. Debalde. *Kultura etxean, 17:00etan.*

ARRASATE Telelaguntza zerbitzuaren inguruko hitzaldia

Euskadiko telelaguntza zerbitzu publikoaren gainekoak kontatuko dituzte, Arrasateko Nagusien Kontseiluak antolatuta. *Kulturaten, 17:30etan.*

ESKORIATZA Aukera energetikoen gaineko batzarra

Aritz Ameztegik eta Aritz Otxandianok aurkeztuko dute Leintz Bailarako Ekiola proiektua. *Ibarraundin, 18:00etan.*

MARTITZENA 19**ARRASATE** 'Atzerritartasun legea: oinarriko kontzeptuak' ikastaroa

Bi ordu iraungo du: ordubeteko hitzaldia Caritaseko aholkulari juridikoaren eskutik eta beste ordubate inguruko egoerak aztertze. Aurrez eman behar da izena. *Parrokiako lokalean, 16:00etan.*

BERGARA 'Lehen saiakera' dokumentala

Bidasoako mugaren inguruko dokumentala da, Mondragon Unibertsitateko Marina Perosanz, Natalia Berridi eta Yurena Carrero ikasleek egindakoa. *Seminarioan, 18:00etan.*

OÑATI Literatura solasaldia

Lorenzo G. Acebedoren *La taberna de Silos* liburuaren gaineko saioa, Monica Leivak gidatuta. *Kultura etxean, 18:30etan.*

ELGETA Hitez Pitz irakurketa taldea

Saio irekiak. *Liburutegian, 19:00etan.*

OÑATI Maddalen Iriarterekin solasaldia

Erabaki aldaketa testuinguruan egingo dute berba. *EH Bilduko bilgunean, 19:00etan.*

ARRASATE 'Bizkarsoro' filma

Martitzenetako emanaldia. *Amaia antzokian, 19:30etan.*

EGUAZTENA 20**OÑATI** Adimen artifiziala berbagai

Aitzol Astigarraga informatikariak eta Jon Mentxakatorre filosofoak egingo dute berba, Goienagusik eta Esperientzia Gelak gonbidatuta. *Santa Anan, 10:00etan.*

ZINEMA**ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA**

Politicamente incorrectos
Zapatua eta astelehena: 19:30.
Patrick (euskaraz)
Zapatua: 17:00.

ARRASATE**SEMINARIOA**

Las cuatro hijas
Domeka eta astelehena: 19:30.
Museoaren zaindaria
Domeka: 17:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA**

Priscilla
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka eta astelehena: 19:30.

La aventura infinita
Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA**ARKUPE**

Cualquiera menos tú
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua eta domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.
Corre, Tiger, corre!
Zapatua eta domeka: 17:00.

FLORIDA

Robot dreams
Zapatua eta domeka: 12:00.

La zona de interés
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:20.
Domeka: 16:15, 19:00.

Astelehenetik eguenera: 17:00.

Desconocidos
Egubakoitza eta zapatua: 20:30, 22:30.
Domeka: 21:15.

Astelehenetik eguenera: 19:15.
La estrella azul
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 22:15.
Domeka: 20:30.

Astelehenetik eguenera: 19:00.

Migrazioa (euskaraz)

Zapatua eta domeka: 12:00.

Guardianes del museo (euskaraz)
Zapatua eta domeka: 12:00.

La aventura infinita
Zapatua eta domeka: 12:00.

El chico y la garza
Egubakoitza: 19:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 19:30.
Astelehenetik eguaztenera: 19:00.

ELGETA Sukaldaritza ikastaroa

Olaia Blancok gidatutako ikastaroa. Gaur egingo dute bigarren eta azken saioa. *Intxorta elkartearen, 17:30etan.*

ARRASATE Ahozkotasanaren Eguna

Juan Kruz Igerabide eta Kandako Berceurs Du Temps elkartuko dituzte. *Kulturaten, 18:00etan.*

ELGETA Astrotopaketa

Ilartegi elkarteak gidatuta. Parte-hartze irekia. *Liburutegian, 18:30etan.*

ARETXABALETA Emakume baseritarren mahai-ingurua

Atxabaltako Mugimendu Feministak antolatuta. *Arkupan, 18:30etan.*

ARETXABALETA Basotik fundazioari buruzko argibideak

Fundazioaren gaineko argibideak emango dituzte. *Arkupan, 19:00etan.*

OÑATI Hatxe taldea

Idoia Hernandez Toledo musikari oiartzuarraren proiektua da. *Eltziako topagunean, 20:00etan.*

BERGARA 'Samsara' pelikula

Jatorrizko bertsioan eta azpittuluekin. Sarrerak, hiru euro. *Seminarioan, 20:00etan.*

EGUENA 21**ARRASATE** Dual berriari buruzko mahai-ingurua

Osane Lizarralde (MGEP) eta Alberto Larreak (Miguel Altuna LH) egingo dute berba. *Kulturaten, 09:00etan.*

ARRASATE 'Nola kontratatu pertsona atzerritarrak nire enpresan' hitzaldia

Biltzen zerbitzuko kideek egingo dute berba. *Kulturaten, 11:00etan.*

ARAMAIO 'Sare sozialak eta osasun mentala' ikastaroa

Eskolako familiei zuzenduta. Izena emateko: 945-18 71 57 edo *aramaioeskola@aramaioeskola.eus*. *Eskolako liburutegian, 17:00etan.*

ARETXABALETA Musika

eskolako dantzarien saioa
Hiru emanaldi egingo dituzte: 17:00etan, 18:15ean eta 19:00etan. *Arkupan, 17:00etan.*

ARRASATE 'Basoko sekretuak' ipuin kontaketa

Amelie kontalariaren eskutik, 4 urtetik gorako umeendako. *Santa Marinan, 18:00etan.*

ESKORIATZA 'Hitzak josten' ipuin kontaketa

Maite Francorekin, 4 urtetik gorakoendako. *Bibliotekan, 18:00etan.*

ESKORIATZA Literatura solasaldia

Erich Hacklen *Los motivos de Aurora* liburuaren gaineko saioa, Monica Leivak gidatuta. *Kultura etxean, 18:00etan.*

ARETXABALETA Aukera energetikoen gaineko informazio batzarra

Aritz Ameztegik eta Aritz Otxandianok egingo dute berba. *Osoko bilkura aretoan, 18:30etan.*

BERGARA 'Mi parto robado' liburuaren aurkezpena

Nahia Alkorta Elezgarai egilea egingo da ekitaldian. *Kartzela zaharlean, 18:30etan.*

ESKORIATZA 'Aire' dokumentala

Maurizia Aldeiturriaga pandero-jolearengan inspiratuta, hamahiru gaztek musika-pieza bat sortzeko jarraitutako prozesua jasotzen du. *Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

BERGARA '150' antzezlan

Bergarako Kokoxa taldearen lana. Ezkontza batean gertatzen direnak kontatuko dituzte. Sarrerak, bi euro. *Seminarioan, 19:00etan.*

BERGARA 'Opera bat: ikusi eta entzun, Carmen' ikastaroa

Vinaixa Gartziak gidatuta, operaren barrukoak ezagutzeko aukera. *San Joxepe elkartearen, 19:15ean.*

OÑATI 'Las hermanas Munekata' filma

Jatorrizko bertsioan eta azpittuluekin. Sarrerak, bost euro. *Zinema-aretoan, 19:30etan.*

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Libe

Sarrerak, zazpi euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

Hauteskunde giroan

Hauteskunde giroa etorri den honetan, Espainiako politikaren ustelkeria kasuak direla-eta bi alderdi nagusiak *zozoak beleari ipurbeltz* dabilta. Eta orain Katalunian hauteskunde aurreratzea. Euskadin, berriz, espainiar komunismoa ikamikan, ezin elkar ikusi. Ezker independentista mesianismo giroan sartuta. Euskal Herriaren salbatzailea ba omen dator; 2024an beste egutegi bat hasi behar omen dugu hutsetik hasita.

Erakundeetan hainbeste urtez herria eraikitzen aritu den alderdi jeltzalea etxeari eusten; 45 urteren ondoren zer hobetua badago, baina gaur egun dugun ongizate mailara iristeko lanean aritu dena eta liskarra sortzen ibili dena zein diren argi dago. Abertzaleen arteko gobernu eskaintza egiten du, batetik, mesias salbatzaileak eta, aldi berean, anai-arrebei, egurra.

"Eredu zaharkitua", Europako iparraldeko mailan dagoen ongizate sistema eta Islandia aurreratuaren gainetik dagoena, munduko onenetakoa da. Urruti geratzen da kataklismoa Euskadiren ongizate eredu, oso urruti, eta ez dakigu zein den eredu aldaketa horren proposamena eta helburua.

Txapel batek ezin bi buru estali. Eskua eman edo atzaparra aurpegira bota ez dira bateragarriak.

BUKATZEKO



Eskuinetik hasita, hirugarrena Mikel Azkarate eta laugarrena Jon Altuna, sari-banaketan. ASIER ARREGI

Bi bergarar euskarazko palindromoen gailurrean

Mikel Azkaratek irabazi zuen euskarazko palindromo txapelketa. Bigarren postuan, berriz, Jon Altuna gelditu zen. Abenduaren 16tik otsailaren 2ra arte jokatu zen txapelketa, eta otsailaren 29an egin zuten sari-banaketa, Andoainen

Gontzal Belategi Zubia BERGARA

Aurretik atzera eta atzetik aurrera berdin irakurtzen diren hitz zein esaldiak dira palindromoak. Historikoki beren garrantzia izan dute; horren froga da duela mende bat Ebaristo Bustintza *Kirikiño* idazle mañariarrak *Euzkadi* egunkarian horien gaineko txapelketa bat antolatu zuela.

Txapelketa horren mendeurrena ospatzeko, eta Markos Gimeno palindromo-egile zenduaren oroimenez, abenduaren 16tik otsailaren 2ra arte izan zen palindromo txapelketa antolatu zuten Bigara elkarteak, Gimeno ingurukoek eta Rober Peramento palindromo-egileak. Otsailaren 29an banatu zituzten

sariak, Andoango Martin Ugalde kultur parkean. Lehenengo bi postuak bergararrendako izan ziren: Mikel Azkarate irabazlea izan zen eta Jon Altuna, txapel-dunordea. *Irauli psiko-eleok ispiluari* izan zen Azkarateren palindromoa. Altunarena, berriz, *Utz Iparragirre han! Ona da danona; herri garra piztu!*

Afizio zaharrei tiraka

Bi bergararrek adierazi dutenez, 2010eko hamarkadaren hasieran garatu zuten palindromoekiko zaletasuna. Azkarate sare sozialen bidez hasi zen: "Twitterren aspaldi hasitakoa naiz, eta karaktere mugatuengatik oso ohi-koak ziren hitz jolasak. Hor hasi

nintzen palindromoetara gerturatzen". Altuna beste afizio batek mugituta hasi zen: "Bertso mundutik nator, eta beti gustatu izan zaizkit hitz jolasak". Bertsoetatik hasi arren, Markos Gimeno bidetik hasi zen palindromoak egiten: "Nire amak Markosen amarekin egiten zuen lan, eta haren liburua oparitu zidan. Hor hasi nintzen palindromoetara gerturatzen". Hala ere, garai haietan izandako zaletasunaren ostean, biak joan dira palindromoak alde batera uzten, baina, txapelketaren berri izan ostean, garai hartako palindromo-egile hautsa kendu eta txapelketara hainbat palindromo biltzea erabaki zuten.

Teknika ezberdinak

Altunak dioenez, "palindromoak ez dira egiten, hor daude, baina aurkitu egin behar dira". Hark ez du aparteko teknikarik, probatzen ibiltzen da palindromo bat aurkitu arte. "Eromena izan liteke, denbora asko pasatu behar duzu ideia bati tiraka, baina, akaso, azkenean, ez duzu palindromorik aurkituko", dio Altunak. Azkaratek ere antzera jokatzen du: "Palindromo txipean jarri behar duzu, alerta; konturatu orduko hitzei buelta ematen hasten zara". Azkaratek beste sekretu bat ere badu: "Ingeniari informatikoa naiz. Teknologiek hiztegietan bilaketak egiteko aukerak ematen dizkigute, eta tresna horiekin jokatzeak aukerak ematen ditu".

Benetako saria

Bi bergararrek azpimarratu dute sari onena txapelketaren bueltan ibilitako guztiak elkartzea izan zela. Izen bat nabarmendu dute biek: Joseba Sarrionandia, idazlea eta epaimahaiko kidea. Hain izan zen ona esperientzia, Azkarate bertan elkartutako zenbait pertsonarekin palindromoak trukatzeko ere hasia da.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

JON IZAGA 'MUTIKO'

MUSIKARIA

'GALDEGAZTE' SAIOAN

MARTXOAREN 19AN, MARTITZENA, 19:30EAN,
21:30EAN ETA 23:30EAN

ARIZMENDI IKASTOLAKO ALMEN GUNEKO
IKASLEEK EGINDAKO ELKARRIZKETA



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.

